

puntua

Ekonomiaren gurpila ixtea, denon esku

Irati Garciari elkarrizketa, lodifobiari buruz



URTEBETE TALDE-LANEAN AURRE EGITEN

Debagoieneko Ospitaleko langileek lehen lerroan erantzun diote COVID-19ari / 4

Debagoieneko ospitaleko profesionalak ospitaleko sarreran, atzo, eguaztena. IMANOL SORIANO

Arrasateko Gautxori urbanizatzen hasi da MU, han ekintzaitza teknologikoa sustatzeko / 15

SINADURAK

	ALAITZ JAUREGI / 30
	IKER IRAZABAL ARANTZETA / 33
	GAIZKA ERAÑA / 15
	AITOR UGALDE / 34
	HARITZ ZUBIA / 24
	AGURNE BARRUSO / 48

2MÓ
229€

betaurreko progresiboak (batzuk eguzkitakoak izan daitezke)

Kontratatuta optikan kanpainaren ezagueriak.

Aitarentzat opari ezin hobea

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE


Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Hiru lurraldeetan egoera okertzeak neurriak zorroztea ekar dezake

EAEko datuen bilakaera "kezkgarria" da, eta positiboek eta ZIUetako okupazioak gora egin dute. Horri lotuta, intzidentzia-tasak ere gora egin du Hego Euskal Herrian, baina ibarrean kontrakoa izan da joera. Bestetik, AstraZenecaren txertaketa eten egin dute

Maialen Santos ARRASATE

Jonan Fernandez LABIko Bartzorde Teknikoaren koordinatzaileak atzo azaldu zuenez, "kezkgarria" da Erkidegoaren bilakaera epidemiologikoa; zehazki, positiboen gorakadak eta ZIUetako egoerak arduratzen dute. "Bilakaera bereziki negatiboa izango balitz, ez dugu baztertzeko neurri gehiago hartzea", gaineratu du, Aste Santuari erreferentzia eginez.

Oinarritzko birsorkuntza tasari dagokionez -R0 adierazlea-, okerrera egiten jarraitzen du; 1,13koa izan zen martitzenekoa, eta horrek esan gura du pandemia hedatzen ari dela EAEn.

Ospitaleei erreparatuta, Zainketa Intentsiboetako Unitatean ingresatuta daudenak 100etik gora dira; zehazki, atzora arte, 101 ziren. Bestetik, 323 lagun

daude EAEko ospitaleetan ingresatuta atzora arte; horietako lau, Debagoieneko Ospitalean.

INTZIDENTZIA-TASAREN EBOLUZIOA ESKUALDEAN EZ DAGO GORRIZ MARKATUTA DAGOEN HERRI HANDIRIK

Joan den eguenetik martitzen honetara arte, 73 kutsatu berri hauteman dituzte Debagoienean, joan den astean baino 34 gutxiago -107 izan ziren-. Aipatzekoa da, halere, GOIENA aldizkaria ohi baino egun bat lehenago banatu dela aste honetan, eta, beraz, zazpi beharrean, sei egun hartu direla aintzat erreparatzen.

Pandemia hasi zenetik, 5.990 debagoiendar kutsatu ditu birusak, eta 157 hil. Martxoaren

8tik 14ra bitartean, lau lagun hil dira: bi Arrasaten, bat Aretxabaletan eta bat Eskoriatzan.

Herrika, Bergara izan da kasu positibo gehien baieztatu dituen (27), eta aurreko asteo ia bikoitza izan dira. Arrasatek jarraitu dio herri horri, baina joan den asteko kutsatuen erdiak baino gutxiagorekin (22). Gai nontzeko herrietan hamar kasutik behera hauteman dituzte azken sei egunetan, eta nabarmenezkoa da Oñatin izandako beherakada nabarmena -lau kasu izan dituzte-.

Osasun Sailaren semaforoaren sistemari erreparatuta, aipatzekoa da Aretxabaleta eremu gorritik irten dela. Hori horrela, Debagoieneko herririk ez dago, atzora arte, kolore gorritz marrotuta. Aretxabaleta eta Arrasate laranja zeuden atzo; eta

AstraZenecaren lehen dosia hartu berri




AITOR OTAMENDI
SUHILTZAILEA

"Joan den astean hartu nuen, eta buruan karga pixka bat eta besoko eremu konkretu horretan mina igarri nituen. Txertaketa eteteak ez nau kezkatzen; biztanleriaren portzentaje oso txikiak izan ditu tronbosi kasuak".



IRATI BIKUÑA
JANGELAKO LANGILEA

"Duela bi aste hartu nuen, eta sukarra izan nuen, baita bizkarreko eta besoko mina ere; oro har, gorputzeko mina. Txertaketa bertan behera geratzeak ez nau kezkatzen; bigarren dosia maiatzean hartuko dut".



MIKEL ELKORBERIZIBAR
IRAKASLEA

"Joan den astean hartu nuen, eta besoko mina eta gorputzaldi arraroa izan nituen hiruzpalau egunez. Pribilegiatua sentitzen naiz dagoeneko hartu dudalako. Birusa amaitzeko, txertoa jartzea beharrezkoa dela uste dut".

Oñati eta Bergara, aldiz, horiz. Herri txikien artean, Antzuolak 504,82ko tasa zuen bart.

INTZIDENTZIA-TASAREN EBOLUZIOA LURRALDEETAN EZ BEZALA, IBARREAN BEHERA EGIN DU INTZIDENTZIA-TASAK

Azken egunetan behera egin du Debagoieneko azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko intzidentzia-tasak, eta atzo, 313,22koa zen. Lurraldeen kontrako joera erakutsi du eskualdeak; izan ere, Gipuzkoan (186,27), Bizkaian (209,22), Araban (221,37) eta Nafarroan (130) gora egin du tasak azken egunetan.

TXERTAKETA-PLANA ASTRAZENECA TXERTO JARTZEARI UTZI EGIN DIOTE, BEHIN-BEHINEKOZ

Prebentziozko neurri gisara eta behin-behinean hartu dute konpainia horren txertoa emateari uzteko erabakia, astelehen arratsaldean egin zuten Lurraldeen Arteko Kontseiluan. Carolina Darias Espainiako Osasun ministroak azaldu zuen Sendagaien Europako Agentziak aztertuko duela tronbosi kasuen eta txertoaren arteko "harremana", eta txostena izandakoan emango dutela emaitzen berri.

Hego Euskal Herrian, bi astez ezingo dute jarri txerto hori. Espainiak, Frantziak, Alemaniak Italiak, Danimarkak, Norvegiak, Herbehereek, Islandiak eta Irlandak ere iragarri dute AstraZenecaren txertaketa etengo dutela, Europako Sendagaien Agentziak azterketaren emaitzen berri eman arte. Oraingoz, 30 tronbosi kasu atzeman dituzte AstraZenecaren dosia jaso dutenen artean, eta Europako Batasunean bost milioi dosi baino gehiago banatu dira, denera.

Horren harira, Gotzone Sagardui Osasun sailburuak "lasaitasun-mezua" helarazi gura izan die herritarrei, eta azaldu du Osakidetza emandako AstraZenecaren 52.760 dosietatik ez dela "bigarren mailako ondorio larrik" hauteman. Bestetik, erabakiaren ondorioz, 1.580 hitzordu ezeztatu dira EAEn, eta 24.000 dosi inguru emateko plan-gintza bertan behera geratu da.

OSTALARIEN PROTESTAK

OSTALARITZAREN
ALDE EGINDAKO
ETENALDIAREKIN BAT
AZALDU DA IBAI-ARTE

Mugitzeko dauden arazoak dira eta, ostalariekin bat egiteko, Euskadiko ostalaritza-elkarteek hamar minutuko geldialdia egin zuten martitzenean. "Hori dela eta, Arrasateko ostalaritzak bat egin zuen etenaldiarekin, eta Ibai-arteko gainerako kideak ere etenaldira gehitu ziren, es-

tablezimenduak hamar minutuz itxiz, 12:00etatik 12:10era", azaldu du elkarteak.

Sektorearentzako erreskate-plan bat, enpleguari laguntzeko plan bat, txertaketan lehentasunezko eta funtsezko sektore bat izatea eskatzeko, mugikortasuna hobetzeko, 2021 osoan zehar UPSak zabaltzeko, kontsumo-zergak jaisteko eta kontsumoa sustatzen duten ekintzen bidez eskaria suspertzeko plan bat aldarrikatzeko asmoz, aldarrikapen-ekitaldia egin zuten Madrilan egun berean.


Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNEN TASA

100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Bergara	27	15	1.300	86,46
Arrasate	22	49	2.498	113,12
Aretxabaleta	10	16	584	82,49
Antzuola	6	3	198	90,87
Oñati	4	15	916	79,87
Eskoriatza	3	8	297	72,39
Aramaio	1	1	138	93,24
Elgeta	0	0	51	45,09
Gatzaga	0	0	8	32,00
GUZTIRA	73	107	5.990	92,43

OHARRA: MARTIZENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

"Kazetari gisa, ardura puntu bat sumatzen dut"

ANE IRAZABAL KAZETARIA

Azken urtean lan egiteko modua aldatu egin zaio Ane Irazabal kazetari arrasatearrari. Hirugarren olatuan murgilduta dago Italia, eta AstraZenecaren txertaketa etenda dago

M.S. ARRASATE

Gabonen ostean iritsi zen koronabirusaren hirugarren olatua Italiara. Osasun sistema kolapsatu egin du horrek, eta, astelehena ezker, herrialdearen bi heren konfinatuta dago.

Zein da egoera une honetan?

Datuak ez dira onak. Hirugarren olatuan, britaniar, brasildar eta hegoafrikar aldaerak gailendu egin dira; oso kutsakorrek dira. Ospitaleek gainezka egitea eragin du horrek, eta konfinamendua ezarri dute intzidentzia-tasa 250etik gorakoa duten tokietan. Herrialdeko zein eremuri eragiten dio horrek?

Herrialdeko bi hereni; hamaazpi eskualdetatik, hamaika daude konfinatuta, eta hiri nagusiak dauden eskualdeei eragiten die horrek. Oinarrizko jarduerak egiteko soilik irten gaitzake etxetik, eta egunean behin, kirola egitera ere bai. Hiru asteko konfinamendua izango da, eta, beraz, Aste Santua ere etxean pasatuko dugu.

Duela urtebete ere, pandemiak Italian jo zuen gogorren...

Hala da. Italia izan zen Txinaren ostean lehen kasu autoktonoa identifikatu zuen Europako lehen herrialdea, iaz, otsailean. Hari horri tiraka, agerraldi handi bat hauteman zuten herrialdeko iparraldean, eta horrek eraman zuen Gobernuak Europako lehen isolamenduak derrigortzera. Halere, esan behar da gerora jakin zela gizon haren aurretik kasu gehiago ere egon zirela.

Italiaren atzetik zihozzen gainontzeko herrialdeak...

Sentsazioa zen etorkizunetik hitz egiten ari ginela; Italian gertatzen zena astebetere zabalten zelako beste herrialdeetan. Hemen hartzen ziren neurriak hedatzen zihozzen beste herrialdeetan. Ardura gisako bat sumatzen genuen, besteek ez zituzaten egin hemengo akats berak. Baina, gauzak distantziatik



Ane Irazabal kazetaria, Italian, lanean, zuzeneko bat egin aurretik. A.I.

"KAZETARIOK
EPIDEMIOLOGIAN
DOKTOREGO GISAKO
BAT EGIN BEHAR IZAN
DUGU, NOLABAIT"

ikusita, ematen du zuri ez zai-zula halakorik gertatuko.

Nolakoa izan da azken urtea?

Maiatzean hasi zen konfinamendua arintzea; oso motela izan zen eta ondo egin zen. Horri esker, uda lasaia izan genuen, baina korronte negazionistak hasi ziren esaten birusa ez zela existitzen, eta horrek eragina izan zuen gerora; urriaren bigarren olatua iritsi zen, eta lehenengoak baino hildako gehiago utzi zituen.

Azken urtean, aldatu egin zaizu kazetari jarduna?

Erroman bizi naizen arren, asko bidaiatzen nuen lehen, eta hori moztu egin da orain. Horretaz gain, kazetari moduan ardura puntu bat sumatzen dut, garrantzitsua delako informazioa ondo ulertzea, ondo kontatu ahal izateko. Nolabait, kazetariok doktorego gisako bat egin behar izan dugu epidemiologian. Az-

kenik, krisi honek erakutsi du hedabideetan garrantzitsua dela zientzian adituak izatea.

Nola doa txertaketa-plana?

Eskualdearen arabera. Herrialdeko estrategia da 60 urtera arteko AstraZenecaren txertoa jartzea eta gainontzekoei, Moderna eta Pfizer. Txertaketa ez doa espero bezain azkar, halere. AstraZenecaren txertaketa eten egin dute Italian ere...


Sendagaien Europako Agentziak gaur hartuko duen erabakiaren arabera jokatu du Italiak.

Txerto horrekin Australiara zihozten barku bat geldiarazi zuen Italiak...

Bai, Europako Batasunak urtarrean sinatutako akordioa aintzat hartuta. Horretan esaten zen estatukide bat gai izan zitekeela esportazio bat geratzeko, batasunaren baitan beharrezkoa den hornikuntza bat arriskuan ikusiz gero. Hala izan zen.

COVID-19ari aurre egiteko Mario Draghi teknokrateregan konfiantza jarri du herrialdeak...

Ospe handiko pertsona da hemen. Esperimentu politiko berria jarri du martxan: Gobernuan daude teknokratik eta politikariak. Ikuspuntu komunikatibotik egin du aldaketa handiena.



Debagoieneko ospitaleko profesionalak ospitale barruan, atzo, eguaztena. IMANOL SORIANO

Urtebete eta hiru olatu: pandemiaren aurka lehen lerrotik lan egiten

Ospitaleko langile guztiak ez dira medikuak, edo erizainak; arlo askotariko langileak daude bertan, eta denentzat izan da gogorra pandemiari erantzutea. Euren bizipenak eta iritziak jaso nahi izan ditu GOIENAK, COVID-19aren agerpenaren urteurrenean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Pandemiak txalotzeko moduko pertsonak utzi baditu, zalantzarik gabe, horietako asko ospitaleetako ateen barrualdean lan egiten dutenak dira. Nork bere esparrutik ahalegin berezia egin du azken urte honetan zehar, eta zailtasunei aurre egiteko tresna eraginkorra "taldean lan egiteko gaitasuna" dela aipatu dute denek. "Mundu mailako osasun erakundeetatik hasi eta anbulatorioetako lantaldeetara heldu arte, taldean lan egiteko gaitasuna izan da gakoa. Ezezaguna zen gaitz honi lotutako jakintza partekatuz eta aplikatuz joan gara, eta hori modu azkarrean eta eraginkorrean egitea ez da erreza", adierazi du Agustín Agirre zuzendari medikuak. "Komunikabideak ikusten dituzunean, badirudi profesionalen artean gaixotasu-

nari aurre egiteko iritzi asko daudela; baina ez da horrela. Oro har, osasun eta zientzia komunitatean adostasun maila handia izan da, erabatekoa, eta irizpideak bateratzeko ez da inongo arazorik izan".

Agur duinak eta esker mezuek

Debagoieneko Ospitalean hilzorian egon diren pazienteak ez dira bakarrik hil. "Uneoro eman diegu aukera euren senideak agurtzeko; muga batzuekin, baina beti izan dute aukera. Askok eskertu egin digute hori, beste leku batzuetan ez baita aukera

OSPITALEKO LANGILEEK DIOTE "TALDE LANA" IZAN DELA TRESNARIK ERAGINKORRENA

hori egon. Bihotza uzkuertzeko moduko idatziak utzi dizkigute senide batzuek, gure lana eskertuz", adierazi du Miren Ezenarro erizainak. Hemendik aurrera euren lana gehiago baloratuko ote den galdetuta, zera dio: "Orain arte baloratu duenak, bai; orain arte egin ez duenak, ez".


Baliabideak eta hondakinak

Antolaketa arloan ere erronka handia eragin du pandemiak, eta, adibidez, uniformeak bizpahiru egun erabiltzetik egunero erabiltzera pasa dira. Protokoloen eraginez, hondakin kopurua une batzuetan hirukoiztera heldu dira: 2020ko otsailean 1.800 kilo hondakin izatetik, iazko apirilean 7.000 kilo izatera ere heldu ginen. Gaur egun 4.400 kilo inguru sortzen dira" azaldu du zerbitzu orokorretako arduradun Igone Erizek.



JULIO SANDOVAL
ETXEZ ETXEKO MEDIKUA

"Gogorrena, gaixotasun berri bati aurre egitearen ezjakintasuna; jakintza partekatuz eta protokoloak adostuz, gaintu egin dugu. Protokoloak zorrotz bete ditugu, eta gure arloan ez da izan COVID-19 kasurik; etxeke pazienteek eskertu egin dituzte segurtasun neurriak".




MIREN EZENARRO ERIZAINA
OSPITALIZAZIO-GUNEAN

"Lehen olatuan, martxo amaieran, egonkortu egin zen lan egiteko modua. Askok hitz egin da hirugarren olatuaz, baina, gure kasuan, bigarrena eta hirugarrena ez dira apenas bereizi. Gorabeherak izan ditugu, baina une lasaiak baliatu ditugu gerorako pilak kargatzeko".



JOSERRA BARDEZI
AZTARNARIA

"Urriko agerraldia izan zen unerik gogorrena. Egunean 100 kasutik gora atzematen genituen, eta bizpahiru astez egon ginen astean ia 60 orduz lan egiten. Orokorrean, jendeak adeitsu hartu gaitu, baina askotan izan dugu gezurra esan diguten sentsazioa".



KARMEN JIMENEZ
HARRERA-GUNEKO LANGILEA

"Gure kasuan, ahalegin handia egin dugu bisita presentzialak gutxitzen; soilik behar-beharrezko kasuetara mugatzeko. Era telematikoa lan egiteko ikasgai handia izan da. Baheketa uneak izan dira lan karga handiena ekarri digutenak, 24.000 zita inguru eman ditugu eta".



AGUSTIN AGIRRE
ZUZENDARI MEDIKUA

"Gabon osteko olatuak sentsazio eskasa utzi zigun; batez ere, ez zirelako neurri gokiak hartu hori ez gertatzeko. Jakitun gara behar ekonomiko eta sozialak daudela Gabon sasoiaren, baina oreka ez zen ona izan eta neurriak ez ziren behar bezala bete".



RAMON SANCHEZ
AZTARNARIA

"Bigarren olatua kolpean agertu zen eta luzeagoa izan zen; gainera, lehen olatuko nekea geneukan bizkar gainean. Tokatu izan zait dei bat egin eta entzutea: 'Ez ezazu nire izena esan!'. Ez da lan erraza, baina gure lanak fruituak eman ditu, eta ematen jarraituko du".

"Ezkerrak gehitzea eta biderkatzea behar du"

EH Bilduren sorreratik 10 urte bete dira, eta egindako bidea dokumental erara jaso du koalizioak. Alderdiaren helburu estrategikoak, Europako funtsen negoziaketa eta Madrilen egiten ari diren lana izan ditu hizpide Arnaldo Otegi, Goiena telebistan

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Hamar urte, baino ez izena jarri diote dokumentalari, eta, azken hamarkadan EH Bilduk lortutakoen inguruan hausnartuz, "ezkerretik jendea batzeko" egindako lana goraiatu du koordinatzaile nagusi Arnaldo Otegi.

"Ahalegin handia egin genuen eta egiten jarraitzen dugu, kultura politiko ezberdinetako jendea proiektu politiko baten inguruan batzeko eta gehitzeko. Testuinguru politiko honetan beharra dago horretarako, eta uste dut ezkerrak hortik zerbait ikas dezakeela".



Arnaldo Otegi, martitzenean, Goiena telebistako *Harira* saioko platoon. ENKO AZKARATE

Hautsitako hesiak

EH Bilduk lortutako emaitzei buruz adierazi zuen "hainbat hesi haustea" lortu dutela. Horietako bat, hirietan lortutako babes maila: "Beti esan izan da ezker independentista karlisten ondorengoa zela, eta horregatik eduki izan duela indarra herri txikietan; komunitate euskaldun txiki horietan. Nolabait, horrek eragiten zuela hiriburua mailan indarrak ez edukitzea. Bada, azken hamar urteetan, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetatik bi gobernatzera heldu gara, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundia ere. Ez hori bakarrik; une honetan, Durangon, Orere-

tan, Arrigorriagan... tamaina handiko guneeetan ere agintean gaude. Hala ere, asko dago egiteko eta Bilbo Handian erronka polita dugu oraindik".

Duela hamar uste "pentsaezina" ziren lekuetatik botoak lortu izana izan da beste hesietako bat: "Datuek esaten digute alderdi sozialistaren ingurutik, Ezker Batutik eta Podemostik botoak iritsi direla EH Bildura. Ez hori bakarrik. Duela gutxi, UGTko kongresu nagusira gonbidatua izan naiz, eta hori pentsaezina zen duela 10 urte. Nire

ustez, adierazten du EH Bildu sendotzen ari dela".

Gaizki egindakoei buruz galdetuta, zer hobetu badutela onartu zuen, eta garai berrietara egokitzeko "moteltasunak" arduratzen du. "Ezkerrak oro har duen arazoa dela iruditzen zait. Aurretik dugun hamarkadan gauza asko aldatuko dira; alor digitalean, alor ekologikoan, alor energetikoan, alor industrialean, zaintzaren esparruan... Ezkerraren bertute bat da taldean lan egitea lehenesten duela: eztabaidatuz, parte hartzea eskai-

niz... Baina gertaerek oso abiadura handia dute gaur egun, eta horrek, askotan, atzetik joatea eragiten digu. Azelerazio prozesu bat behar dugu; EH Bildu bezala, eta baita herri bezala".

Bigarren kongresua

Maiatzean amaituko dute jada martxan duten kongresua, nahiz eta onartu duen ez dela nahiko luketen bezala egin: "Jendearekin aurrez aurre egotea da guri gustatzen zaiguna, eta hori faltan igarri dugu. Bide telematikoen laguntzari esker kongresua egiten joatea lortu dugu, baina pena puntu bat ematen du". *Bilkideen* figurari buruz zera adierazi du: "Koalizioko alderdi askok zuten afiliatu figura, eta hortik dator *Bilkide* egitearena. Uste nuen ez zela garairik egokiena ahalako zerbait egiteko, baina, nire harridurarako, erantzuna ona izaten ari da; hasieran, 400 inguru ginen, eta hilabete gutxiren buruan, berriz, 4.000 inguru gara".

Europako funtsen negoziaketa

EAJrekin daramaten negoziaketan, badaude partekatzen dituzten interesak: "Kritikoak gara EAJren filosofiarekin, baina, adibidez, ados gaude *big data*-ren gaian, eta baita Araban bateria solidoen enpresa bat jartzeko orduan. Badirudi ez dutela gurekin batera bidea egin nahi, baina guk hamazortzi proiektu identifikatu ditugu, gutxienez, elkarrekin joateko Madriler horien defentsa egitera".

Jaurlaritza, "presarik gabe"

Gasteizko Parlamentuan EH Bilduko lehendakari irudikatzen duen galdetuta, baietz dio, baina "presarik gabe, eta

gauzak beste era batera egiteko, betiere". "Munduko leku guztietan ikusten dugu alternantziak daudela, eta hona ere iritsiko da. Baina ez dugu agintera heldu nahi gauzak orain arte bezala egiteko. Gure ustez, EAJK gobernantza eredu zaharkitua du, eta guk eredu askoz kolaboratiboagoa defendatzen dugu. Berriki egin dugu galdeketa bat Durangon, adibidez. Jendearekin egiten den eredu da gurea, eta hori hiru probintzietara eta Nafarroara heltzea nahi dugu. Estatu izatea dugu helburu, pandemian agerian geratu delako norberak erabakitzeak duen garrantzia. Ez daukagu presarik, eta, heltzen bagara, gauzak beste era batera egiteko izango da; bestela, ez zait interesatzen".

Madrilgo lanaren defentsa

Madrilgo Gobernuari emandako babesagatik jasotako kritikak argitu nahi izan zituen: "Esan digute, askotan, beste batzuek 40 urtean egin izan duten gauza bera egiten ari garela. Baina ez da hala. Bigarren errepublikatik lehen aldiz, koalizio gobernu bat dago, eta bertako kide bat ustez PSOetik are ezkererrago dagoen indar bat da. Beste batzuek sustengatu izan dituzte PPre edo PSOeren gobernuak, baina hau ezberdina da. Hiru alorretan gauzak beste era batera egiteko eman diegu aukera: arazo nazionaleri irtenbide demokratikoa emateko, euren gizarte politikako programa betetzeko eta kartzela politika hobetzeko".



Elkarrizketa osorik ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsiko telefonoarekin.

Artzain Eskolako makilak eta diplomak banatu dituzte

Hamahiru lagunek jaso dute, eta emakume gehiago erakartzea jarri dute etorkizunerako erronka gisa

X.G. DEBAGOIENA

Joan den asteko barikuan egin zuten diploma banaketa ekitaldia. Urtero egiten duten ekitaldia bada ere, aurtengoa oso ezberdina izan da. Hamalau ikasle hasi ziren Artzain Esko-

lan, baina hamahiruk jaso dute diploma eta makila. Hamar gizonen eta hiru emakumez osatutako taldea izan da aurtengoa, eta aurrera begira jarrita eskolak duen erronketako bat "emakumeak ardiaren sektoreko pres-

takuntzara erakartzea" dela azpimarratu du Batis Otaegik, eskolako zuzendariak.

"Urte zaila izan den arren, oso pozik gaude. Hamahiru ikasle izan ditugu, eta baldintza hautan ikasturte jatorra eraman dugu aurrera, askotariko praktikak izan dituen. Ikasleek egindako proiektuak ere azpimarratzeko modukoak izan dira: ederrak, asko landutakoak, eta ikasteko baliagarriak. Horieta bost landuko ditugu, eta txorratzen gaude".

Hiru kalitate ziurtagiri Ojanguren ehorztetxearentzat

Arrasaten dagoen ehorztetxea Debagoieneko lehenengoa izan da, bere sektorean, Applus erakundeak emandako hiru ziurtagiri jasotzen.

Hileta-zerbitzuetarako, beilato-zerbitzuetarako eta nazioarteko lekualdaketak egiteko dira ziurtagiriak, besteak beste. Applus erakundeak 2020ko abenduan egindako auditoretzak gaitu

ondoren, martitzenean egindako ekitaldian jaso zuten aintzatespena Ojanguren ehorztetxearekin. Azaldu dutenez, arauaren puntu guztiak bete dituzte, zuzenketa beharrik gabe.

Enpresak 50 urte baino gehiagoko ibilbidea du, eta, azaldu dutenez, eguneko "aurrera" egiten du "hurbiltasuna", "babea" eta "eraginkortasuna" eskainiz. Ehorztetxearen ardura-dunek pozez hartu dute ziurtagiria, eta zerbitzua hobetzen jarraitzeko gozoz daude.



Elkarteko boluntario bat, joan den barikuan, Arrasateko Eroskin egindako bilketan. IMANOL SORIANO

7.000 litrotik gora esne, eta erantzun "bikaina"

Zaporeak elkarrekin esne bilketa egin du Lesbos uharteko errefuxiatuei eramateko, eta "oso eskertuta" azaldu dira debagoiendarrek egindako 7.000 litroko ekarpenarekin. Gipuzkoan 30.000 litro batu dituzte, eta aste honetan bidaliko dituzte Greziara

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

"Debagoiengan, orokorrean, jendeak oso ondo erantzuten du era honetako kanpainak egiten ditugunean, inplikazio maila itzela baitago. Eta oraingoan ere erantzuna bikaina izan da. Oso-oso pozik gaude. 7.000 litrotik gora batu ditugu, eta kopuru izugarria da", azaldu du Zaporeak elkarteko kide Xabier Gesalagak.

Mugarri kontzesionarioak furgoneta bat utzi zien, batutakoa Donostiara eramateko, eta hura hiru aldiz betetzea zuten helburu. Baina aurreikuspenak gainditu egin zituzten: "Furgonetan hiru aldiz betetzearekin helburua zeharo beteta edukiko genuen, bidaia bakoitzean 1.500 litro pasatxo kabitzen zirelako. Baina, azkenean, lau bidaia egin behar izan genituen Donostiara; beraz aurreikuspenak bete eta gainditu ere egin genituen".

"Harrera ona"

Joan den asteburukoa Zaporeak elkarrekin bailaran egin duen

bigarren bilketa izan da, eta Gesalagak adierazi du igartzen dutela gero eta ezagunagoa dela elkarrekin egiten duen lana. "Oraingo honetan, igarri egin dugu gero eta jende gehiagok ezagutzen duela Zaporeak elkarrekin zer den eta zertara dedikatzen den. Eskuorri informatiboak banatzeraz hurbildu, eta askok adierazten zizuten bazutela elkarrekin berri, eta hori beti da lagungarri".

Hala ere, aitortu du beti dagoela zer hobetu, eta aurrera begira helburu berri batzuk finkatu dituzte: "Boluntario sare polita daukagu, eta gero eta gehiago gara. Baina egia da faltan igartzen dugula jende gaztea gugana hurbiltzea. Kanpaina

DEBAGOIENDARREK, BESTE BEHIN, ONDO ERANTZUN DUTELA DIOTE ZAPOREAK ELKARTEKOEK

garaian eruegana jo dugunean, ondo hartu gaituzte eta gaiarekiko interesa ere erakutsi dute. Hala, gustatuko litzaiguke hurrengoan boluntario gisa aritzeko pausoa emango balute. Horrez gain, Bergaran ez dugu bilketa egin oraindik, eta hurrengoan bertan ere bilketa egitea gustatuko litzaiguke".

Esnea eta fruta, osagai gisa

Orain arte, errefuxiatuentzako bazkariak prestatzen aritu izan dira, baina horri "beste buelta bat" emate aldera dator esne bilketarena: "Orain arte, nagusiki, bazkariak prestatzen aritu izan da Zaporeak. Zeregin horretan jarraitu dugu, baina beste buelta bat eman nahi izan diogu. Esne-behi osoa eta fruta eskaini nahi dizkiegu errefuxiatuei, jaten duten otorduarentzako osagai gisa".

Hala, kanpaina zehar pilatutako 30.000 litroak aste honetan bertan bidaliko dituzte Lesbos uhartera.



Arrasateko AEK-ko langileak, 2019an. T.M.

Bultzada ekonomikoak batzeko kanpaina du martxan AEK-k

'Bultza euskaltegiak, bultza euskara!' izena du, eta Debagoieneko ekintza Arrasaten egingo dute

X.G. DEBAGOIENA

Pandemiarik ez balitz, datorren astean 22. Korrika Euskal Herriko bazterrak zeharkatzen ibiliko zen, baina, tamalez, 22. edizioa 2022. urtera atzeratzea erabaki zuen AEK-k. Korrikaren bitartez jasotzen du elkarrekin bere jardunerako beharrezkoa duen finantzaketaren zati bat, eta aurtengoa atzeratu behar izanak kalte ekonomikoa eragin dio. "Korrikaren 22. edizioa atzeratzea erabaki zaila izan zen guretzat. Korrikak gauza askotarako balio du: euskara kalera ateratzeko, gizarteak euskarekiko duen atxikimendua bideratzeko eta euskaltegien aldeko aldarria egiteko... Baina horretaz guztiaz gain, gure jarduna finantzatzeko tresna ere bada, eta urtebete atzeratu izana igarri egingo dugu", adierazi du elkarteko koordinatzaile orokor Alizia Iribarrenek.

Hala, esan bezala, une ekonomiko delikatu hori arintzeko, diru bilketa kanpaina jarri dute martxan, *Bultza euskaltegiak, bultza euskara!* izenarekin. "Ez da Korrika ordezkatza datorren ekitaldi bat, baizik eta Korrika atzeratzeak eragindako hutsunea estali nahi duen zerbitzu. Dirua batzeaz gain, euskaltegien garrantzia nabarmentzea gustatuko litzaiguke".

Debagoiengan, Arrasaten

Hala, martxoaren 28rako, 65 udalerritan ekintzak antolatuko dituzte; hain justu, 22. Korrika amaituko zen egunean. Debagoienari dagokionez, Arrasateko Herriko Plazan egingo dute, 12:00etan. AEKren mezua irakurri eta *Euskal Herrian, Euskaraz* kanta eta *Bultza Euskaltegiak* bertso-ropa abestuko dituzte, eta bertsoak eta grafitiak ere izango dira egitarauko osagai.

Goienagusik prest du 2021eko hirugarren hiruhilekoko programa

Mamitsua eta askotariko gaiei buruzko egitaraua josi dute, beste behin. Goi-joskintza, elikadura, arkitektura, Hego Amerikako literatura, jazz musika eta halako osagaiak sartu dituzte lapikoan, eta ziur partaideen jakin-min gosea asetzeko balioko dutela. Aste Santuko oporren astean ekingo diote egitarauari, arrasatear batekin.

Izan ere, Amaia Albes diseinatzaileak goi-joskintzari buruzko xehetasunak emango ditu, apirilaren 12an, Arrasaten, Kulturatan. Handik bi egunera, elikadura kontuak izango dituzte hizpide, Bergarako Seminariokoan; Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile Bittor Rodriguezek hitzaldia egingo du bertan, jaten duguna zergatik jaten dugun hobeto jakiteko. Guztira, hamalau saio lotu dituzte, apirilaren 12tik maiatzaren 26ra bitartean.



Maidar Larrañaga, Arteaga landetxeko arduraduna, jatetxeko jangela atzean duela, eguaztenean. J.O.



Xegun Altolagirre, azaroan berrituta ireki zuten Oñatiko Soraluze hoteleko atarian. X.A.

Jone Olabarria ARRASATE

Ohiko bizitzaren eguneroko erritmoa aztoratu egin du COVID-19ak, aisialdian eragin nabarmena izanda. Udaberri sasoiko opor egunetan iazkoan baino aukera zabalagoa izango den arren, Euskal Autonomia Erkidegoko mugetatik ezin izango dira irten debagoiendarrak. Eusko Jaurlaritzak martxoaren 5ean iragarri zuen mugikortasunaren muga norberaren udalerritik eta mugakideetatik autonomia erkidego osora zabalduko zuela, eta herritar askok "ezustean" hartu zuten berria. Ostatuak eta jatetxeak erreserbak jasotzen hasi ziren orduan; zenbait kasuan, beteta dute da-goieneko datozen asteetarako eskaintza guztia.

Debagoiena, turisten gustukoa

Uda sasoi eta Aste Santuko egunak "denboraldi ona" izaten dira bailarako turismoaren alorrean. Herriko aztertuta, Oñatik hartu ohi ditu turista gehienak bailaran, eta bertan izaten da okupazio maila altuena: "Batez ere, bertakoak izaten dira, eguneko txangoak egiteko. Kataluniatik eta Madril ingurutik ere etorri ohi dira. Turista gehienak familian edota bikotearekin etortzen dira eta horietatik asko lo egitera geratzen dira. Autokarabanen guneak ere arrakasta izaten du".

Mugatuta izan arren, aurten ere hala izatea espero dute bailarako ostatuak eta jatetxeetako arduradunek. Debagoieneko turismoak bizi duen egoeraren erradiografia egiteko asmoz, bizi duten egoeraren berri eman dute Oñatiko Soraluze hoteleko

Bailaran oporrez gozatzeko prest

Debagoieneko ostatuak eta jatetxeek San Jose zubian, Aste Santuan eta Pazko astean dute jarrira begirada. "Itxaropentsu" agertu dira datozen jai eta opor egunei heltzeko, eta orain arte bezeroek emandako babesak eskertu egin dute, egoera "zaila" izanda ere

Xegun Altolagirrek, Bergarako Izal landetxeko German Letek eta Alazne Oyarzabalek, Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeko Josune Ibabek eta Arrasateko Arteaga Landetxea jatetxeko Maidar Larrañagak.

Bergarako jendearekin beteta

Pandemiaren aurretik, Europatik etorritako bisitariak eta bikoteak izan ohi ziren Bergarako San Juan auzoan dagoen Izal landetxeko ohiko bezeroak. Enpresetara etortzen den jendeari ostatu eman baino, turismoa dute bideratua euren jarduna. San Jose zubia, Aste Santuko egunak eta Pazko astea guztiz beteta daudela azaldu dute bertako arduradun diren Alazne Oyarzabalek eta German Letek: "Mugikortasuna EAE osora zabalduko zela jakitean, bezeroen dei eta erreserba pila bat jasotzen hasi ginen. Esajeratua izan zen; denbora gutxian bete zen datozen asteetarako libre genuena. Une honetan, dena dago hartuta".

Aurretik, baina, zabalik izan dute landetxea, eta, espero zutenaren aurka, hainbat asteburutan beteta izan dute, soilik herriko jendearekin: "Mugatuta egon ginenean, uste genuen herriko jendea bakarrik ez zela etorriko. Gure usteen kontra, baina, herritarrak zoriontzeko eta haiei eskerrak emateko modukoa da Bergarako jendeak emandako erantzuna; pare bat

"ESKERTZEKOA DA LANDETXEAK BERGARAKO JENDEAREKIN SOILIK BETE AHAL IZATEA"

ALAZNE OYARZABAL, ETA GERMAN LETE, IZAL LANDETXEKO ARDURADUNAK

"EGURALDIA EZ DATOR OSO ONA, ETA ASKOK AZKEN UNERA ARTE ZAIN DAUDELA DIOTE"

XEGUN ALTOLAGIRRE, SORALUZE HOTELEKO ARDURADUNA

aste bukaeratan bergararrekin bakarrik bete dugu landetxea".

Gertukoa ezagutzeko aukera

Orokorrean, opariak edota deskonektatzeko asmoz herrigunetik aldentu diren bezeroak izan direla zehaztu dute: "Askok esaten ziguten: 'Guri ez zaigu axola herrian egotea'. Zenbaitean, Nafarroaraino joaten gara landetxe batera, eta hemen Ber

"GERTUAN SOILIK MUGITZEAK, BERTAKO BEZERO GEHIAGO EKARRIKO DITU"

JOSUNE IBABE, LEINTZ GATZAGAKO GURE AMETSA JATETXEA

"PAZKO ASTEA ANIMATUA IZAN OHI DA, BEZEROAREN PROFILA ALDATU EGITEN DA"

MAIDER LARRAÑAGA, ARTEAGA JATETXEKO ARDURADUNA

garan gauden arren, askotan ez dugu ingurua ezagutzen ere".

Aurreko asteetan, erritmo ona

Aste Santuko egunetan itxita izaten dute jatetxea Arrasateko Arteagan, eta aurten ere hala egingo dute. San Jose zubirako, baina, beteta dute jatetxea. Bertako arduradun Maidar Larrañagak azaldu du inguruko herritarrek oso erantzun ona eman dutela mugikortasuna mugatuta egon den azken asteetan ere: "Egia esanda, ondo aritu gara lanean. Erritmo polita izan dugu. Ez dakit bestelako planik ez zegoelako izan den edo, baina jendea animatu egin da bazkaltera etortzen".

Pazko astea ere, "animatua"

Ohiko bezeroez galdetuta, enpresetako langileak izaten dituztela gehien zehaztu du Larrañagak. Asteburuetan familia bazkariak eta ospakizunak izan ohi dira nagusi Arrasateko Garagartzua auzoko jatetxean. Deskatzurako egun batzuk hartu ostean Pazko astean zabalik izaten dute jatetxea, eta, azaldu dutenez, "animatua" izaten da: "Bezeroaren profila aldatu egiten da egun horietan; haurrek ez dute eskolarik oraindik, eta familiak etortzen dira, baita bailaratik kanpoko bisitariak ere".

Iazko abuztua ere "ezohikoa" izan zen Arteaga jatetxean. Hiru astez itxi ohi dute urtero, baina, egoerak behartuta, aste bakarra ixtea erabaki zuten iaz: "Mugimendua egon zen abuztuan zehar ere jatetxean; erdiko aste bat lasaixegoa izan zen, baina, bestela, oso ondo lan egiteko aukera egon zen".



German Letek eta Alazne Oyarzabalek beteta dute datozen asteetarako Bergarako Izal landetxea. J.O.



Josune Ibabe –Gure Ametsako arduraduna– eta Gorka Bolinaga –sukaldeburua–, Gatzagako jatetxean. I.B.

"Lehenagoaren herena"

Gure Ametsa jatetxeko Josune Ibabe ez da horren itzaropentsu agertu. San Jose zubirako ia beteta dute jatetxea eta joan den asteburuan ere lekua gabe geratu ziren, baina gaur egungo edukiera muga kontuan hartu behar dela gogorarazi du: "Gaur egun guztiz betetzea lehenagoaren heren bat izatea da".

Aste Santura begira, mugikortasuna erkidegora mugatzeak jatetxeei onura egingo diela uste du Ibabe: "Herriarrak gertuan soilik mugitzeak bezero gehiago ekarriko dituela uste dut, bertako jendea. Euskaldunek kanpora joateko ohitura handia dute opor egun hauetan eta hemengo jende oso gutxi izaten da ohiko

egoeran Aste Santuko jai egunetan".

Ospakizun handiekin egiten dute lan asko Gatzagako jatetxean: ezkontzak, jaunartzeak... Halakoak bereziki murriztu egin direla azaldu dute. Mahaiak lau lagunekoak izan beharrak ere bereziki kaltetu dituela azaldu du: "Neurriokin ezin da ongi lan egin, ez da errentagarria. Hala ere, guk zorrotz betetzen ditugu; behintzat, alde horretatik, lasai gaude".

Bezeroen jarrera, "eredugarri"

Bezero asko betikoak direla azaldu du Ibabe, eta "oso eskertuta" agertu da emandako babesagatik: "Posible izan deanean, denak etorri dira. Arauak

barneratu dituzte, eta zorrotz bete. Askok adinez nagusiak dira, eta beldurra izan dute pandemian zehar ere".

Eguraldi aurreikuspenaren zain

Oñatin dagoen Soraluze hoteleko arduraduna da Xegun Altolagirre. Guztira, 45 lagunendako lekua dute eta bihartik aurrera %80ra dute beteta hotela, zubi osorako: "Baditugu hainbat gela hutsik oraindik, baina jendea deika dabil aste osoan, galdezka. Eguraldia ez dator oso ona, eta askok aitortu digute azken unerarte zain dardela".

Hala ere, "nahiko gustura" daudela zehaztu du: "Orain arteko basamortu honetatik irten eta argi pixka bat ikusten ari gara". EAEko barneko mugak zabaldu ziren arte bikoterena bat edo beste izan dutela zehaztu du, "baina gutxi".

Mendialdeak erakarrita

Dena den, lanera etortzen den jendeari esker erreserbak izan dituztela azaldu du: "Aste barruan gertuko enpresetara etortzen diren komertzialak edo langileak hartu ditugu, baina aisialdiari dagokionez orain hasi da".

Aste Santuko jaiegunetarako guztiz beteta dute hotela, nahiz eta Pazko asterako oraindik ere baden lekuren bat: "Negua etxe inguruan pasa ostean irteteko lehen aukera izaten da Aste Santua, eta herritarrek oso gustura hartu ohi dute". Altolagirrek azaldu duenez, mendialdeak erakarritzen ditu, gehienbat, herritarrek Oñatira: "ibilalditxoak egitea naturan zehar, mendi bueltak eta herria bera bisitatzea ere izaten dira planak".

Egoerara moldatuta, 550 bat ohe

NEKAZARITZA TURISMOAK	HERRIA	EDUKIERA
Ibarre	Antzuola	16
Lamaino Etxeberri	Bergara	12
Barrenengua	Elgeta	6
Aterbe	Eskoriatza	6
Arregi	Oñati	16
Uxarte	Aramaio	6
Muru baserria	Aramaio	6
LANDETXEAK		
Urkulu landetxea	Aretxabaleta	12
Izal landetxea	Bergara	12
Eguzkitza landetxea	Elgeta	6
Maialde landetxea	Elgeta	12
PENTSIOAK 1*		
Jausoro ostataua	Aretxabaleta	10
Goiko Benta	Oñati	20
PENTSIOAK 2*		
Uxarte Pentsioa	Arrasate	10
Urizar Pentsioa	Arrasate	14
APARTAMENTUAK		
Gorosarri apartamentuak	Eskoriatza	21
Areano	Eskoriatza	13
Leintz zuhaitz etxeak	Leintz Gatzaga	20
Arantzazuko Borda	Oñati	8
HOTELAK 1*		
Ormazabal hotela	Bergara	28
Ongi Etorri hotela	Oñati	16
Sindika hotela	Oñati	74
HOTELAK 2*		
Arrasate hotela	Arrasate	22
Soraluze hotela	Oñati	45
HOTELAK 3*		
Hotel Mondragon	Arrasate	68
Santa Ana hotela	Arrasate	24
AUTOKARABANEN GUNEA		
Asentzioko gunea	Elgeta	10
San Martingo gunea	Oñati	18
Ibarrako gunea	Bergara	20

Aurreko esperientziatik ikasita

"Beldurrez" heldu zioten iazko uda denboraldiari Debagoieneko turismo alorreko profesionalek. Egoera "ezegonkorra" zen orduan eta turismoari berrikiteko ezarritako neurriak betetzeak "zaila" zirudien. Hala ere, aitortu dute bezeroek oso ondo hartu dituztela arauok. "Hasieran, ezinezkoa zirudien landetxean maskararekin egon behar izatea, baina bezeroek oso ondo ulertu zuten dena eta zentzuz jokatu dute beti", azaldu dute Izal landetxeko arduradunek.

Bezeroek orduan izandako jarrera ere azpimarratu nahi izan dute Gure Ametsa jatetxeko ugazabek: "Maskararen erabilera oraindik ere derrigorrezkoa ez zenean, mesedez maskara ekartzeko eskatzen genien herritarrei, eta denek arazo barik eta prestutasun handiz egiten zuten". Hala ere, orain arte hainbatetan gertatu bezala, osteraren tabernak itxiko ote dituzten beldur da Ibabe: "Badugu itzaropena opor eta jaiegun hauetan, baina espero dezagun maiatzean ostalaritza itxi behar ez izatea jaiegun hauengatik". Datozen asteetan dute, baina, orain fokua jarrita.

Denak bat etorri dira: mugikortasun-muga zabaltea "esperantzaz" hartu zuten albistea izan zen, eta, neurriek egoera eta lanerako baldintzak zailtzen dituzten arren, zerbitzurik onena emateko lanean jarraituko dute. Une oro bezeroen babesaren sentitu dutela diote, eta "bihotzez" eskertu gura izan dute.

Errutinak ahazteko aukerak, kulturaren eta aisialdiaren eskutik

Apiril hasierako jaiegunei zuku berezia atera izan diete bailarako herriek; aurten EAEko bisitarien etorrera espero dutenez, egongo da ibarrean zer egin eta zer ikusi

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Urrutira joatea debekatuta dagoen garai hauetan, tokiko kultura eta aisialdi egitarau zabalak eskainiko dute zenbait herri. Jaiegunak heltzeko egun batzuk gelditzen diren arren, ibarreko herrietako kultura eta turismo sailek mahai gainean jarri dituzte kartak, herritarrei gero eta barneratuago daukaten ezohiko egoera samurtzeko asmoz. Aurtengo Aste Santuko menua iazkoa baino koloretsuago dator, eta normalean kanpora joateko aprobetxatu ohi duenak izango ditu, ziurrenik, bere etxetik gertu gauza berriak ezagutzeko aitzakiak eta aukerak.

Bergara, kulturaz lepo

Elkarlan sendoa egin dute azken hilabeteetan Bergarako Udalak eta Kultura Mahaiak, udaberriko loreak zelaian antzera, mota desberdinetako ekintzak antolatuko baitituzte Seminarixoan apirilaren 1etik 11ra arte. Orotara, hiru kontzertu, lau ikusentzunezko, bi antzerki eta bi tailer egongo dira bertan, adin eta gustu denentzako gozagarri.

Dupla musika taldeak irekiko du Bergarako Aste Santuko kultura eskaintza, apirileko lehen egunean. Hurrengo egunean, Oñatin eta Arrasaten aurkeztu duten *Atzerrian lurra garratz* antzezlan taularatuko du Artedrama konpainiak. Apirilaren 3an, Pelax laukote donostiarrak rock doinu bustiko ditu Seminarixora gerturatzen direnen zentzumenak. Zineari egingo diote tokia apirilaren 4an, *Tess eta ni* filma emitituko baitute, euskaraz. Hori ez da egun horretan proiektatuko den pelikula bakarrik izango, jarraian egongo baita Euskal Herrian jazotako gertaera beltz bati buruzko *Non dago Mikel* dokumen-

tala ikusteko aukera, eta baita hurrengo egunean ere.

Seminarixoak atsedean hartuko du egun batez, pilak kargatu eta apirilaren 7an zineklubak ekarriko duen Berri Txarrak taldea ardatz duen *Dardarak* dokumentala emititzeko. Biharramunean, *Panta Rhei* izeneko haur antzerkiak hartuko du Seminarixoan ostatu. Apirilaren 9an, 11n eta 12an, ostera, *Nomadland* filma egongo da ikusgai. Domeka horretan ez da pelikula bakarrik ikusteko aukera egongo, *Raya y el último dragón* animaziozko filma jarriko baitute *Nomadland*-en aurretik. Aretoan joko duen azken musika taldea Ibil Bedi izango da; apirileko bigarren zapatu arratsaldean etorriko dira musikariak nafarrak Bergarara.

Emanaldi horietara joan nahi duenak www.seminarixoa.eus atarian erosi beharko ditu aurrez sarrerak, eta fisikoki eskuratu nahi dituenak ostegunero izango du Seminarixoko txarteldegia zabalik, 18:00etatik 20:00etara. Aipatutako ekintzak, bi pelikularen proiektzioa izan ezik, arratsaldeko seietatik zazpiak bitartean hasiko dira.

Gaztetxoentzako tailerrak

Seminarixoko oholtzan beharrezkoan, patioan egingo dituzte Bergarako Aste Santuko egitarau bereziaren baitako tailerrak, herriko taldeek dinamizatuta. Alde batetik, gaztetxoei zuzendutako dantza ikastaroa egingo dute apirilaren 7an, 11:00etatik aurrera. Camden Town dantza akademiako kideak arduratuko dira saioari erritmoa emateaz, eta bertan parte hartu nahi duenak www.bergara.eus atarian eman beharko du izena.

Apuntatzeko prozedura berbera erabili beharko dute esku-

lan tailerren parte hartu nahi duten 6 eta 16 urte arteko neska-mutuek. Ekimen hori Izeder Eskulanak taldeko kideek gidatuko dute, apirilaren 9an, 11:00etatik aurrera.

Laboratoriumen, artelanak

Martxotik maiatzera arte egongo da aukera Laboratorium museoan *30 emakume ahaztezin* izeneko galeria bisitatzeko, Aste Santuko egun guztietan barne. Elena Ciordia artistak eginiko 30 akuarela dago osatuta erakusketa; zientzialariak, musikariak, margolariak, bertsolariak, politikariak, idazleak, argazkilariek, irakasleak eta kirolariak azaltzen dira artelanean. Emakume euskaldun esanguratsuen eta gertuko historiaren berri jakin nahi dutentzat jarduera aparta da, beraz, museoko egitaraua.

Antzuolako ermitak

Eraikin historiko ugari zutik mantentzen dira oraindik Antzuolan; erlijio kutsukoak, esaterako. Horren froga dira Santa Ageda, San Blas eta Antiguako ermitak, besteak beste. Lehenengoan XVI. mendeko ateburu eta leihoak kontserbatzen dira, eta barruan basurde buruak daude egurrez landuta. Bigarrena Olotz izeneko lur eremuan dago kokatuta, eta otsailaren 3an joaten dira herritarrek bertara opil bereziekin. Antiguakoan Andramari gotikoa dago.



Pelax taldeko gitarra-jolea, kontzertu batean. PELAX



Oñatiko Arrikutz kobetako bisita gidatua. GOIENA

Oñatiren aberastasuna

Bisitariarentzat herri interesgarria da Oñati, daukan ondare historikoagatik, eta Aste Santuak data aproposak dira bertako harribitxiak jakitera emateko. 2019ko udaberri hasieran, esa-

terako, Debagoieneko herririk bisitatuena izan zen. Interesaren jakitun, herriko Turismo Bulegoak *Oñatiko altxorrak* bisita gidatuak antolatu ditu apiril hasierako jaiegunetarako, aurten hilaren 2an den Ostiral San-

Intxortako frontea

Elgetan bisitatzeko txoko ugari dauden arren, turista gehienek interesa pizten duen jarduera 36ko gerrako frontea ezagutzeko bisita gidatua izan liteke. Egitarauan, interpretazio-gunera bisita eta bost kilometroko oinezko ibilbide tematikoa barnebiltzen dira; Intxorta mendiaren magalean sortutako frontearen hainbat xehetasun jakinarazten dira. Elgetamemoria.com webguneak horri eta herriko altxor gehiagori buruzko informazioa dakar.

Tellerixa bidea Aramaion

Familia giroan paisaia eta baserri idilikoak ikusteko lau kilometroko txango polita da Tellerixa erreka albotik igarotzen dena. Gurdibide zaharrek Errotabarri, Arriola eta Arraga auzoak batzen dituzte Ibarrekin. Ibilaldi horren izena teilak egiteko lantegi txikietatik dator. Txokoren bati azpimarra jartzearen, Arriolako Erdikoa eta Bengoa baserriak, herriguneko Santa Cruz Apaizaren plaza, Bizente Goikoetxea plaza eta Santa Ana baseliza aipa daitezke.

Gatzagan Labidea dendako Ixidor Salaberri, *Gatzebike*-ko bizikleta batekin. GOIENA

Pepa eta Kutxo pailazoak, oholtzan. KARKARA

tuan izan ezik. Herriko historiaren eta kulturaren berri ematen duten eraikinak, halanola Sancti Spiritus unibertsitate eta Mikel Goiaingeruaren parrokia, ikusteko aukera egongo da, bi txandatan, 13:00etan

bata eta 17:00etan bestea. Turismo Bulegoak ere zerbitzua eman du goizez eta arratsalde, eta erreserbak egiteko bertaratzetik ez duenak 943 78 34 53 telefonora deitu edo turismoa@onati.eus helbidean egin dezake eskaera.

Txokolateixia, zabalik

Oñatin turistek bisita asko jasotzen dituen beste txoko bat Orbea Txokolategiaren egoitza zaharra da. Eraikina txokolatearen interpretazio gunea da orain, eta Oñatik txokolatearekin izan duen eta gaur egun ere mantentzen duen lotura estua azaltzen du. 50 minutu inguruko bisita gidatua, XVIII. eta XX. mendeen arteko gozogintzara bidaiatuko dute kuriosoek, ontzi zaharrak, ehogailuak, metateak, kakaoa ehotzeko moldeak eta halako piezak ikusita. Produktuen promozioa nola egiten zuten ikasi nahi duenak ere izango du bere jakin-mina asetzeko aukera, kartel, iragarki, grabatu eta argazkiek emango baitiote txokolatearen zabalkundearen berri. Bestalde, bitxikeriak ere ezagutu ahaliko dituzte bisitariak; txokolateak zineman eta kirolean utzitako aztarnak, adibidez.

Erreserbak egiteko bi modu daude: telefono bidez, 605 76 35 95 zenbakira deituta, eta posta elektronikoz, txokolateixia@hotmail.com helbidera idatzita. Interpretazio-gunea 11:00etatik 13:00etara egongo da zabalik, eta bisita gidatuak 17:00etan hasita egin ahaliko dira.

Arantzazun, aukera ugari

Inoiz ez da berandu basilikaren historia edota Oteiza eta Txillida artisten ekarpena zein izan den egiaztatzeko. Horien

inguruko bisita gidatuak jaiegunetako edozein egunetarako erreserbatu ahaliko dira, Mankomunitateko telefonora -943 79 64 63- edota infoturismo@debagoiena.eus postara zuzenduta. Gune espiritualetan euskarazko informazioa jaso nahi duenak 10:30eko hitzordura joan beharko du eta gaztelarazko informazioa jaso nahi duenak, berriz, 12:30ekora.

Basilika ikusi ostean parke txera joatea turista ugariaren planetan sar daitekeen ekintza izan liteke. Aizkorri-Aratz parke naturalaren interpretazio-zentroa ezagutzeaz gain, mendi irteerak antolatzeko zerbitzua ere eskaintzen dute bertan. Parke txera 10:00etatik 14:00etara egongo da zabalik, eta aurrez gehiago jakin nahi izanez gero bi telefonotara dei egin dezake bisitariak: 943 78 28 94ra edo 699 33 51 83. Posta elektronikoz ere jarri daiteke harremanetan, arantzazu@gipuzkoanatura.eus helbidearen bitartez.

Seigarren kontinentea

Horrela deitzen diote Oñati-Arrikruz koban zehar egiten den bidaiari. Gipuzkoako kobazulo sistema zabalenetako bat da, Euskal Herriko paisaia karstikoaren erakusleho paregabea eta ikerkuntza espeleologiko eta paleontologikoetan aitzindarietako bat. Bisitariak hiru ibilbideren artean egin dezake bere hautaketa: *Galeria53*, *Espeleo-Txiki* eta *EspeleoArrikruz* izeneko artean, zehazki. Bertan, errinozero iletuaren, leize hienaren, orein erraldoiaren, leize hartaren eta leize lehoiaren aztarnak eta hezurdurak daude ikusgai. Erreserba egiteko beharrezkoa da 943 08 20 00ra edo arrikruz@onati.eus-era jotzea.

Pottokak eta artzaintza

Naturarekin harremanetan jarraituz, Pottokaleku eta Gomiztegi baserria toki aproposak dira euskal ohiturak barneratzeko. Lehenengoan euskal pottoka behatzeko bisitak egiten dira eta bigarrenetan artzaintzaren historiaren berri jakin eta esnekiak dastatu daitezke. Bieta joateko, aurrez erreserbak egitea komeni da: Pottokalekurako 670 27 44 61 telefonoa eta jelorzarza@hotmail.com helbidea daude eskuragai eta Gomiztegi-rako, info@gomiztegi.com, 943 25 10 08 eta 688 68 97 25.

Gatzagan, gatza eta piperra

Herrien arteko mugen irekierak mesede handia egin dio Gatzaganako turismoaren sektoreari, azken bi asteburuetan igarri egin baitute turista kopuruen gorakada esanguratsua. Kanpotarren curiositatea pizten dute, bereziki, Gatz Museoa, Dorletako santutegiak eta herriaren barrualdeak. Ondare historiko horien nondik norakoez jabetzeko aukera eskaintzen dute bisita gidatuek, leintzatzaga.eus webgunean sartuta.

Horrez gain, Labidea dendako arduradunek *Gatzebike* egitasmoa daukate martxan: bizikleta elektrikoan herriaren inguruko ibilbideetan zehar pedalkada arinak emateko aukera. Izan ere, Leintz Gatzaga bidexkaz betetako paraje ederrean dago kokatuta, eta *Gatzebike* zerbitzuak ibilbide horietan murgiltzeko eskaintza malgua dauka: bi orduz, egun erdiz, egun osoz edota bi egunez ibili daitezke naturazaleak eta kirolzaleak bi erruberako ibilgailu elektrikoaren gainean.

Ibilbide bat aipatzekotan, bertako bizilagunek asko gomentatzen dute Deba ibaiaren sorlekura daraman Hiruerreketako itzuli zirkularra egitea. 13,5 kilometroko ibilbide gorabeheratsua lau ordu ingurutan egin daiteke oinez; bizikletan, beraz, denbora gutxiagoan.

Kanpokoaren inbidiarik ez

Baliteke aurtengo Aste Santuan nahi baino muga gehiago izatea mugikortasunaren aldetik, baina bistakoa da bailaran gelditzen denak aspertzeko aitzakiarik ez duela izango. Betiko parajeak hor egoteaz gainera, eskaintza kultural aberatsa antolatu dute eta tokiko eragileek, beste behin ere.

SEMINARIXOAN IA EGUNERO EGONGO DA ZER IKUSI

OÑATIKO ONDARE ABERATSA EZAGUTZEA HAUTU APROPOSA DA

GATZAGAN BARRENA IBILTZEKO MODU UGARI EGONGO DIRA

Eskoriatzako aukerak

Ibarraundi museoa eta Zubiateko labea irekita egongo dira Pazko astean. Eskoriatza bisitatzen duenak bertako historia ezagutu ahaliko du bi eraikin hauetan barneratuz. Zubiateko labea harribitxizat jotzen dute herrian, kultur intereseko ondasuntzat sailkatua du Eusko Jauriaritzak eta Gipuzkoan gorde den zeramika labe bakarra da.

Eskolore izeneko ibilbideak, bestalde, elizateetan barrena eramaten ditu oinezkoak.

Meatzerrekan barrena

Udalatzeko magalean, Bizkaira bidean dago kokatuta Arrasateko ondare historiko handia gordetzen duen baserriaren auzune hori. San Balerio ermita eta parkea, Urzulo iturburu, San Kristobal ermitaren aztarnak eta Montzongo koba daude bertan, auzoa eta herrigunea batzen dituen oinezkoentzako bide erosoan alboetan. Bertatik pasatzen da herriari bira ematen dion bidea, eta, hain zuzen, *Mondragontourism* atarian agertzen da.

Arkupeko programazioa

Aretxabaletako Udalak kudeatzen duen Arkupe kultur etxean hiru ekitaldi izango dira apiril hasierarako. Hilaren 7tik 30era arte irekiko du goizez eta arratsalde bere pinturen galeria Iraide Garitaonandia artista bizkaitarrak. Bestetik, etxeko txikiaren algarak piztuko dituzte *Pepa eta Kutxo* pailazoek, apirilaren 8ko ikuskizunean. Azkenik, Rosa Martinez ipuin kontalari eta txotxongilo antzerkilariak *Erreka Mari* emanaldia egingo du, hilaren 9an.



ZABALIK

IÑAKI GOITIA

Artea bai, artea ez

Badu sortze-prozesuak xarma berezi bat, pultsio edo instintu basati bat, menpean hartu beharreko zaldi ero baten antzekoa. Tradizionalki arteak edertasuna goretzi izan du, simetriari, harmoniari eta orekari garrantzia emanez. Gerora, ordea, ideia honi kontrajarrita, itsustasunaren kontzeptuak artearen adierazpen berriak zabaltzea ahalbidetu zuen. Muturreko bi errealitate izaki, saihetsezinezko erakrpen bat eragiten dute gizakiarengan; edertasunaren perfekzio hanpatuaren eta itsustasunaren inperfekzio hiperbolikoaren arteko dantza horretan dago estetika joko.

Hala ere, artearen esparruan itsustasuna esperientzia estetiko bat dela baieztatu dezakegu, edo esperientzia antiestetiko bati erantzuten dio? Are gehiago, esperientzia antiestetiko bat artearen eremuan sailkatu daiteke, edo, aitzitik, iragazki bat egon behar da artistikoa ez den

INOIZ EZAGUTZERA EMAN EZ DEN SORKUNTZA BATEK MEREZI AL DU ARTE IZENIK?

edozein esperientzia antiestetiko baztertzeko? Ez dugu arazorik artelan baten aurrean gaudela aitortzeko beronek edertasunaren, simetriaren edota orekaren galbahea pasa badu, baina nork eta

zein irizpideri jarraikiz baieztatu dezake gauza bera itsustasun, asimetriaren edota itxuragabetasunaren aurrean dagoenean?

Azken beltzean, baliteke artelan bat aintzakotzat hartzeko funtsezkoena hartzailearengan emozio bat – positiboa zein negatiboa – sorraraztea izatea. Honen harira, inoiz ezagutzera eman ez den sorkuntza batek, eta honenbestez, hartzaile potentzialarengan zirrarak eragin ez duenak, merezi al du arte izenik? Eta hona hemen azken bi galderak, aurreko guztiak bezala erantzunik ez dutenak: ezagutzera eman arren, hartzailearengan inolako arrastorik utzi ez duen artelanak ba al du izen horretaz jabetzerik? Akaso, ezinezkoa al zaigu artea sortu dugun edo ez jakitea igorle-hartzaile-igorle segidaren galbahea gainditu gabe?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Euskal zeroa

ANDER IZAGIRRE

TTAP-EN ARGITARATUA

Mendian laranja azal bat ere ez botatzen irakatsi ziguten, baina enperatriza pasatzen zen leku guztiak zerri eginda uzten zituzten: plakak, monumentuak, oroitarriak. 1859an Larrun mendira igo zen eta berehala bi metro pasako obeliskoa altxa zuten tontorrean, harrizko arrano eta guzti, *l'ascension de sa majesté l'imperatrice Eugénie* gogoratzeko. [...] Euskal kostaldearen ikusmira bikaina eskaintzen du, gutxi gorabehera 900 metrotik.

Gutxi gorabehera... Larrunen altuera zehatza jakin nahi duenari, hauxe galdetu behar

diogu: zer jartzen du zure nortasun agirian? Izan ere, Frantziak erpin geodesiko bat ezarri zuen gailurrean datu honekin: 900,343 metro itsas mailaren gainetik. Eta Espainiak beste bat: 900,061 metro. Puntu berari buruz ari direnez, beste nonbait dago aldea: itsasoaren mailan.

Espainiak Alacanten ezarri zuen. [...] Batez bestekoa kalkulatu, eta puntu horixe izendatu zuten Espainiako itsasoaren maila ofiziala. Frantsesek, aldiz, Marseillan jarri zuten. Espainiako eta Frantziako zeroak ez datoz bat, gure planeta irregularra delako, grabitatearen indarra pixka bat handiagoa delako hemen eta ahulxeagoa han, itsasoa pittin

bat altuxeagoa delako hemen eta baxuagoa han. Ondorioz, tontor bera 282 milimetro altuagoa da frantsesentzat espainiarrentzat baino. Noizbait euskal estatu bat sortuko balitz, itsasoaren maila zein den erabaki beharko luke. Eta Larruni neurria eman: 899 metro ingurukoa izango litzatekeela esango nuke, Kantauri itsasoa Mediterraneoa baino ia metro bat gorago dagoelako.

Gailurretik itsasora begira, horretaz jabetu gara zeregin seriorik ez dugun ibiltariok, estatuaren ezaugarrietako bat horixe dela: zero propioa daukate.

Post gehiago 14. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailtako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publikitate
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Galeren gaineko pedagogia egin gurako nuke"

EIDER OTXOA DOLU-TERAPEUTA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

COVID-19 garaia, galera garaia izenburupean, berbaldia egingo du Eider Otxoa Dolulaguna zentroko arduradunak, Arrasaten, Kultureteko areto nagusian, astelehenean, hilak 22. 18:00etan hasita, eta Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta. Sarrera "librea" dela aurreratu dute antolatzaileek.

Asko hitz egiten da COVID-19aren ondorio ekonomikoek, osasun ondorioek... Ondorio psikologikoak ere badira?

Oso nabarmenak dira. Garai honetan, beldurrak ugaritu egin dira, depresio kasuak asko igo dira eta lehenagotik geneuzkan arazo osasun-mentalak areagotu egin dira. Gure psikologiaren eta ondorio psikologikoen garrantziaz jabetzeko sasoia ere bada. Ari gara ikasten ez garelako zerbait fisikoa bakarrik.

COVID-19ak 153 hildako utzi ditu Debagoienean urtebetean. Zaila



Eider Otxoa, atzo, Arrasaten. GOIENA

da gertuko baten heriotza asimilatzea; are zailagoa ezin agurrik ematea.

Heriotza traumatikoak bizi izan ditugu. Batez ere, eta argi eta garbi esanda, jarrera gizatiarren faltagatik.

Ospitaleetako arauak gailendu egin dira. Beldurraren ondorioz jarritako arauak izan dira. Ondorioz, hurbiltasuna galdu egin dugu. Heriotza uneetan, eta gaixotasun uneetan,

hurbiltasuna behar-beharrezkoa da. Pandemia sasoiaren diren heriotzen zati handi bat izan dira lagundu bakoak, eta horrek trauma handiak sortu ditu halako egoera jasatea tokatu zaien pertsonen artean. **Nola egiten zaio aurre halako egoera bati?**

Min eta amorru handiz. Momentuan ez gara oso kontziente, shock egoeran gaudelako eta une latz horretan borrokatzea tokatzen zaigulako. Baina hain da traumatikoa halako egoerak bizitzea, gero trauma hori azaleratu egiten da eta terapia bidez landu behar da, beste edozein trauma bezala tratatuta geratzen delako gudan, eta, hain zuzen, askatu beharra dago.

Nola laguntzen diezu halako egoera traumatikoak bizi izan dituztenei?

Trauma une horietara joaten naiz, baina ez naiz han geratzen, gaur egunera ekartzen ditut eta, poliki-poliki, presente berria eraikitzen joaten gara.

Zer da dolu-laguntzaile edo terapeuta zateza?

Dolu prozesu bat bizitzen ari den pertsona bati bidea egiten laguntzea. Trauma izan daiteke heriotza bat, baina beste edozein galerak

sortutakoa ere izan daiteke: banaketa bat, gaixotasun bat, bat-bateko edozein galera... Galeraren gaineko pedagogia eta kontzientzia zabaltzea nahiko nuke. Galerak gure bizitzetan integratzearen garrantzia. Gure bizitzako parte da. **Noiz gaintzen da heriotza mingarri bat? Amaitzen da dolu?**

Dolua edo mina maitasunean eraldatu dugula sentitzen dugunean. Prozesu hau tunel bat izango balitz moduan irudikatzen dugu. Hasieran, tunelaren amaieran argi gutxi ikusten dugu, baina zeharkatu ostean, mina bizi ostean, bukaeran, argia handiagoa da eta itxaropena, maitasuna eta esker ona gailentzen dira.

Beharrezkoa, inportantea da dolu egitea?

Aukera bat da, baina derrigorra dela esango nuke. Denok behar dugu bizi. Bizitzaren parte da. Konpromiso bat, nork bere buruarekin hartzen duena. Landu bako dolu horiek beste nonbaitetik ateratzen dira: antsietatea, depresioa, beste gaixotasun batzuk...

Heriotzak tabu izaten jarraitzen du oraindik?

Pandemiaren ondorioz, heriotza taularatu egin da, plazaratu egin da. Hasi gara heriotzaz berba egiten.

ITURRI ONETIK

Txillidaren Arantzazuko atea, Valentziara

Eduardo Txillidaren eta Jorge Oteizaren gaineko erakusketa egingo dute Valentzian udazkenean. Altuzako Oteiza museoa dauden eskultore oriotarraren pieza batzuk eramango dituzte. Txillidaren artelanik ere izango da; tartean, Arantzazuko basilikako sarrerako burdinazko atea; handik atera eta Valentziara eroango dituzte. 1954an egin zituen lau atea Txillidak. Landu gabeko burdinarekin egindakoak dira eta collage metalikoa osatzen dute: eguzkia, ilargia, gurutze batzuk eta elorriak ageri dira.

ALBISTE IZAN ZEN

2007-03-16

Kulturete inauguratu zuten Arrasaten

Ohiko aurrekuarekin eta zinta moztearekin inauguratu zuten Arrasateko kulturaren ate berria, kultur etxe berria. Inazio Lakuntza alkateak eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak inauguratu zuten, eta herriko bost artistaren lanekin egindako erakusketa ere ireki zuten klaustroan -Arregi, Goikolea, Landaluze, Lopez eta Riviere-. Aste batzuk lehenago ireki zuten frantziskotarren komentua izandako gune berriua.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

AstraZeneca txertoa, hizpide sare sozialetan

@enekogara: "Egoera honetan denbora urrea bada eta Europako Medikamentuen Agentziak #AstraZeneca txertoa segurua dela esan badu, zergatik ez daude txertoak ipintzen?"

@markgasteiztar: "Eta txertoa jaso dugun guztiok bigarren dosia jasoko dugu? Zer gertatuko da? Tronbosiak aztertu behar dituzte..."

@Anagalarraga: "Txertoa hartutakoan (Pfizer, Moderna zein AstraZeneca) izandako albo-ondorioak biltzen ditu Espainiako farmakozaintzaren 3. txostenak. Ondorio nagusia: ez dago kasu kezkarri bakar bat ere".

HANDIK ETA HEMENDIK

Esperantzen itsasoa

MIKEL ELORZA

HTTPS://LABUR.EUS/SYCMC

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Miseriaren barnean *miseriagok* aurkitzea beti da posible gure mundu zoragarri honetan. Duela egun batzuk albistea izan zen sute baten ondorioz laurogeitaka lagun hil zirela Sanan, Yemenen. Hori bakarrik ez da notizia, noski, albistea inor ez hiltzea izango litzateke. Notizia izan da hildakook migratzaileen zentro batean zeudela.

Migratzaileak Yemenen. COVID-19a munduko *trending* (eta ia bakar) *topic* bihurtu aurretik, kolera-izurriren bat edukitakoak ziren, urtetan luzatzen ari den gerra zibil latz batean segitzen dute Saudi Arabiak *gidatutako* erasoan menpe –puntako teknologiak garatzen dituzten *gure* enpresa laudatuek, besteak beste, egindako armekin–, eta hala ere migratzaileak dituzte, milaka. Etiopiarrak gehienak, Persiar Golkoko estatu aberatsetan etorkizun baten bila abiatutakoak. Lur mortua zeharkatuz Djibutira heldu, itsasoa iragan —Itsaso Gorria, alga baten koloreagatik ote den izena... ez dakit ba— eta Yemenen lehorreraten dira. Han, gerra, miseriak eta desertua zeharkatu behar Saudi Arabiara heltzeko. Latza.

Etiopian aurkituak dituzte gizakion arbaso asko, haien hezurak alegia; han ibili ziren, itxuraz, lehen hominidoak. Gaur egun baino

aiseago biziko ahal ziren duela milaka urte *homo* haiek! *Mulier*-ak seguruenik antzera, orduan eta orain. Berriki jakin dugu Tigray eskualdean izandako gatazka armatuaren baitan, Etiopiako Armadak altxamendua hankapean hartu eta gero, bortxaketa eta sexu-eraso asko salatu direla, emakume tigraytarren aurkakoak. Zigorra eta eskarmentua. Burezurraren eta garunaren tamaina, tentetasuna, eskuen abilezia eta bestelako ezaugarri fisikoekin batera, *Homo* genero hori oso aspaldidanik definitzen duen beste ezaugarri bat ere bada: bortxaketa gerra-arma gisa erabiltzea.

Albisteok jakin ditugu; edo ez. Zeren eta AEBetako Kentuckyko edozein konderritako miss sariketaz informatuko gaituzte, bai horixe, baina migratzaile etiopiarrez eta Yemengo gerraz edo Tigrayko gatazkako sexu erasoez... Bada, ze urrun dagoen Kamerun! Bab-al-Mandeb deritzo Djibuti eta Yemen lotzen (edo banatzen, ikuspegi kontua) dituen itsasarteari, migratzaileen ontziek egiten duten horri. Deitorean Atea esan nahi du izenak. Ez da honaino iristen hango negar eta erosten oihartzuna, nonbait.

Baina hori bai, urte batzuk barru kuido handiz aterako ditugu lur azalera hango gezurrak, barka, hezurak. Eta zorrotz aztertu, baita duela milaka urte nola hil ziren esan ahal izateraino!

Orain nola hiltzen diren... Ur azalera, gure kontzientzien zorionerako, hezurak ez dira ateratzen (arrain abisalei galdetu beharko genieke, ez ote den bihurtua zuri-zuri ozeanoetako hondoa, dena hezurrek estalia).

Pintadaren argazkia gordea dut segapotoan: "Posible da beste mundu amaiera bat".

Ez da, zorionez, gazia bakarrik itsasotik iristen zaigun kresala. Gozotik ere ekar dezake. *Aita Mari* ontziko eskifaiaren argazkia ikusi dut egunotan, portua jota hainbat lagun erreskatatu eta gero, eta batzuetan itsasoak ez dakit baina gizakiak izan dezakeela esperantzarik ematen du. Irungo mugan ere ibili badabil jendea, bere xume eta isilean, termo batekin txokolate epela banatzen beste itsasarte bat iraganda datozenei. Bada, norbere erara, zuritze erraldoi honen aurka borrokatzen denik. Agian amaiera bakarrik ez, agian beste mundu bat posible da, edo, besterik gabe, mundu honen beste antolamendu bat, nahiz eta, onartu behar dut, kosta egiten zaidan askotan horren zantzuak topatzea.

(Asteon, historian bilatuko dut *kontsolamendua*: bihar 150 urte Parisen Komuna aldarrikatu zela. Louise Michel ezagutarazteagatik bakarrik merezi duena. *Vive la Commune!*).

! Post gehiago 12. orrialdean.

GUTUNAK

7.200 litro esne, 7.200 laguntzat

MARIA AGIRRE

DEBAGOIENEN ZAPOREAK TALDEA
DEBAGOIENA

Joan den asteburuan, Zaporeak taldeko hainbat boluntariok esne bilketan parte hartu zuten. Debagoiengan, 7.200 litrotik gora batu ziren. Beraz, kanpaina oso arrakastatsua izan dela uste dugu. Aste honetan Lesboserako bidean dira eskualdean eta Gipuzkoan batutako litro guztiak. Kara Tepe errefuxiatuen gunean bizi diren lagunei helaraziko zaie bildutako guzti-guztia, litro bakar bat ere alferrik galdu gabe. Une honetan, 7.200 lagun daude Kara Tepen bizitzen. A ze kasualitatea!

Gutun honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu

kanpaina parte hartu duten herritar guztiei, eta boluntarioei. Eta bereziki eskerrak: Ford Easo Motor taldeari, furgoneta musu-truk uzteagatik; Ulma Packaging kooperatibari, kartoizko kutxak emateagatik; Arrasateko eta Aretxabaletako Eroski supermerkatuetako langileei, bilketa errazteagatik; Aramaioko Kintelena dendari; Antzuolako Amaia dendari, Aixa frutategiari eta Eroskiri; eta Leintz Gatzagan bilketa egin dutenei.

Azken bilketan boluntario sarea handitzea lortu dugu, eta hori etorkizunean antola daitezkeen beste bilketa batzuetarako onuragarria izan daitekeela espero dugu. Horregatik, edonor gurekin lan egiteko prest egongo balitz, jakin pozik hartuko genukeela taldean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna

Eskertza-gutuna

Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna

Aldarrikapen-gutuna

Kexa-gutuna

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





Uribarri auzoan dagoen Gautxori esparruan Uribe Goikoa eta Uribe Behekoa baserriak eraisten hasi da dagoeneko MU. E.A.

Lehen pausoak Gautxori esparrua urbanizatzeko

Uribe Goikoa eta Uribe Behekoa baserriak eraisten hasi da MU, eta beste lau hangar ere botako ditu, "uda inguruan"; ekintzailtza teknologikoa sustatu gura dute esparru horretan, etorkizunean Debagoieneko industria sarea berritzea ahalbidetuko lukeena

Eneko Azurmendi ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak ekintzailtza teknologikoa sustatzeko erabili gura du Uribarri auzoko Gautxori esparrua, garai batean Trefasa enpresa zegoena eta 26.221 metro karratu dituen.

Esparruak, orain gutxira arte, hiru jabe zituen. Mondragon Unibertsitatearena zen zati handiena: %90. Bestalde, Muñoa

familiak jabetzaren %5 zeukan eta Garaia Parke Teknologikoak beste %5. Duela gutxi, halere, bi zati horiek erosi zituen unibertsitateak, eta esparruaren erabateko jabetza harena da.

Arrasateko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean jasota dago Gautxori esparruaren urbanizazioa. Udalak %14ko jabetza dauka –zoru publikoa–, eta

2019ko maiatzeko osoko bilkuran 1.137.000 euroko ekarpena egitea onartu zuen udalbatzak.

Lau hangar ere botako dituzte

Joan den astean hasi zituzten esparruan dauden bi baserriak eraisteko lanak. "Oso gertu daude Aramaio errekatik, eta, balizko uholde arriskuak ekiditeko, botatzea erabaki dugu, Jaur-

laritzaren txosten bati jarraiki", azaldu du Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile Carlos Garciak. Horrez gain, esparru horretako beste lau hangar ere botako dituzte, uda inguruan hasita. "Dena den, ez da erraza izango, askotariko materiala daukagulako hor. Lehenengo, hustu egin behar ditugu hangar horiek, eta oraindik ez daukagu lekuri materiala uzteko".

Gaineratu du eraisten orain hasi diren arren hiruzpalau urte daramatzatela lanean. "Batetik, urbanizazio proiektuak egiteko epeak nahiko luzeak izaten dira, tramite asko egin behar izaten direlako. Bestetik, esparru horretan Trefasa lantegia egonenez, ikerketa bat egin dugu, kutsatuta egon zitezkeen lurak tratatzeko. Ondoan enpresarekin egin dugu ikerketa, eta ia bukatuta dago. Txosten bat prestatzen ari gara, eta, oraindik bukatu gabe dagoen arren, uste dugu ez dugula arazorik izango aurrera egiteko". Txosten horrek Eusko Jaurlaritzaren oniritzia beharko du, eta, gutxienez, sei hilabete pasako dira haren ebazpena jaso arte. "Gure asmoa da txostena lehenbailehen bidaltzea", dio Garciak.

Ekintzailtza erdigunean jarrita

Txostena lantzearekin batera, modu paraleloan, urbanizazio proiektua ere lantzen ari da Mondragon Unibertsitatea, LKS enpresarekin batera. Izan ere, Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaileak nabarmendu duenez, eskolak "ezinbestekoa" du horrelako proiektu bat. "Dagoeneko leku barik geratu gara eta gure jarduerak garatzeko eremu bat behar dugu aurrera begira".

Azaldu du "gizartean dagoen behar bati" erantzuteko asmoa

duela proiektu berriak, eta esparru hori ekintzailtza bultzatzeko erabiltzea gura duela unibertsitateak. "Ondorioz, behin bukatuta, ekintzailtza arloan egiten ditugun jarduera guztiak esparru horretara bideratuko genituzke, baita jardunaldiak eta foroak ere".

Unibertsitateak sortuko duen gune horretan, ikasleen ekintzailtza sustatzearekin batera, enpresek ere lekua edukiko dute euren prototipo industrialak garatu ahal izateko. "Gutxi gorabehera, badakigu zer egin gura dugun, eta aztertzen ari gara nola egituratu. Ze ekintza mota garatuko ditugun esparru horretan? Horretarako, Fagorrek batera kontzeptualizazio prozesu bat egiten ari gara, eta bukatzeaz daukagu. Garbi dagoena da bailarako industria berritu egin behar dugula, inguruarekiko begirada aldatu".

Uda ostean, hasteko moduan

Ondo bidean, uda ostean hasiko dituzte eremua urbanizatzeko lanak. "Errepide berri bat zabalduko da, Garaiatik zuzenean errekaraino eta erreka alboan, ekialdera, zubiraino. Zubian, lehenengo errepidearekin bat egingo du, ibaia zeharkatu eta Ikerlan eta Goi Eskola artean dagoen errepideak jarraituz, bidegorriarekin, zuhaitzekin eta pasealekuekin. Garaia birlan gurea urtea bukatu aurretik hasiko dira egiten, eta horrekin koordinatzea gurako gure".

**CARLOS GARCIA:
"EZINBESTEKOA DA PROIEKTUA GURETZAT, LEKURIK GABE GERATZEN ARI GARA"**



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

Sesenco

Fan zan urtarrillien, Eduardo Alfaro arkeologuaren eskutik, Soriako Tierras Altasen topautako erromatar sasoiko hiltzarren gaineko hitzaldixe egon zan Bergarako Laboratoriumien.

Soria inguruko epigrafiak Lesuridantar, Oandissen, Arancis, Agirsar, Sesenco, Velar-thar eta Udano moduko izenak azaleratu ditu. Honeik aurkikuntzok

zalantzan jarten daue euskara berantiarren teorixia, hau da, Baskoiek, K.a. VI. mendien, Akitania ingurutik euskerie ekarri euen teorixia; Sanchez Albornozeaz 1956an egin zan ezagun, eta harrezkero, jarraitzaile asko izan ditu, EITBk aurkeztu euen *Baskoniako historia bat: euskalduntze berantiarra* kasu.

Kristautasun hasierie eta euskerian jatorrixe lotzen dauden grafituen balixue zalantzan jarri die Iruña-Veleian. Metodo zientifikuek, eta ez epaitegi batek, epaittu biharko littuzke Eliseo Gilek eta Lurmenek egindako lanak. Hoba litzake Sesenco jarrerak alde batera itxi eta Arsgitarrago ibilliko bagebitz.

Erguingo eskolako komunak berritzeko lizitazioa martxan da

Oinarrizko aurrekontua 156.897,11 eurokoa da –BEZik gabe–, eskaintzaren arabera aldatu egin daitekeen arren, eta Udaleren asmoa da obrak esleitu eta zortzi asteko epean amaituta izatea. Uda aprobetxatuko dute berritzelan egiteko, ekainetik abuztura bitartean, "haurrak oporretan eta eskola itxita dagoenean, oztoporik izan ez dezaten".



Lehenengo irudian, Udaleko Euskara Saileko Amaia Arana eta Aintzane Lasa, lehiaketako hitz zerrendarekin; bigarrean, Joxemari Ganboa eta Anabel Ugalde, eurek proposatutako hitz bana erakusten. H.L.

Saiakera herrikoia, Arrasateko hitzak 'itxungi' ez daitezzen

Euskaraldiko herri batzordeak herrian erabili izandako berbak berreskuratzeko lehiaketa jarri zuen abian joan den abenduan, aparteko emaitzarekin: 372 hitz batu zituen Udaleko Euskara Sailak; hurrengo erronka, zabalkunde horri jarraipena ematea

Hasier Larrea ARRASATE

Iraganeko hitzei presentzia emateko egin zuten Arrasateko Hitzak lehiaketa Euskaraldiko herri batzordekoek, herritarren erantzuna zein izan zitekeen imajinatu gabe. Hiru hilabete pasa badira ere, txapelketa horretako ekarpenek "ibilbide luzea" izango dutelakoan daude Amaia Arana eta Aintzane Lasa, Udaleko Euskara Saileko teknikariak. Eurak arduratu dira txapelketan jasotako hitzak aztertu eta sailkatzeaz. "Ordu asko eta asko" eskaini diote horri. Lanaren emaitzak ematen ditu prozesuaren gaineko pistak: onartuak izan diren 372 hitz –horietatik 100 inguru behin baino gehiagotan azaldu dira–, eta baztertutako 37. Azken horiek zergatik alboratu dituzten, horixe Aranek azaldu duena: "Batzuk aldaerak direlako; hau da, beste hitz batzuetatik datozela-

ko; *fan* aditza, esaterako, *joan* aditzetik dator". Baina hori ez da hitzak baztertzeko motibo bakarra, batzuen jatorri "lausoan" ere izan baitute jomugan: "Zenbateraino da berba bat Arrasatekoa? Bizkaian ere erabil dezakete hitz bera, edo Debagoieneko beste herri batean; beraz, non dago muga?". Halakoetan, erabileran jarri dute erabakiaren galbahea. "Laster esateko, *aurki* erabili izan da hemen, baina baita Goierrin ere; ondorioz, batez ere, gutxi erabiltzen delako eta ahanzturan ez erortzeko erabaki dugu hitz hori jasotzea", zehaztu du Lasak.

Transmisio falta

Espero zuten bezala, berba batzuk behin eta berriz irakurri dituzte herritarrek aurkeztutako txantilo desberdinetan: *ixotu*, *tril egin*, *amarratza*, *ostarkue*, *lekaixoka*, *afonue*, *ariñeketan*,

atartie, *garbatu*, *askarrix*, *inkernue*, *itxufiña*, *itxungi*, *larue*, *moltzue*, *takarraran*... Gaur egun gertatzen ez den bezala, Arrasateko kaleetan sarri entzuten ziren, duela ez hamarkada asko, espresio horiek eta gehiago, adin guztietako jendearen ahotik. Hizkuntza ohitura horien galera ekarri duten arrazoiak zeintzuk diren, zalantzak dituzte Lasak eta Aranek, baina azken horrek argi dauka kontu bat: "Nire etxean, orain dela 15-20 urte, *moltzua* izenez eza gutzen genuenari *sukaldeko trapu* deitzen hasi ginen".

Gai horri buruz itzulinguruka ibili barik hitz egin dute Anabel Ugaldek eta Joxemari Ganboak. Euskalkien defendatzaile sutsuak eta irakasleak izanik, ez zuten euren jakintza lehiaketaren bidez zabaltzeko aukera alferrik galdu. Beste hainbatek bezala, euren aman-

dreengandik eta aitajaunengandik ikasitako dozenaka aditz, objektu, espresio, izen eta izenondo proposatu zituzten biek, tokiko hizkerari "duintasuna eta zabalkundea" emateko asmoz.

Azken urteetan herrian izandako euskararen bilakaerak "txundituta" utzi ditu bi arrasatearrak. "Alabaren lagunek esana didate ez nautela ulertzen", dio Ganboak; Ugaldek, berriz, *euskalgaizto* kontzeptua dakar mahai gainera: "Euskaraz gaizki egiten duen bati, hau da, *euskalgaizto* bati, euskaraz ondo egiten zuen batengatik *kaxero* hitz egiten zuela aditu nion, nire atsekaberako. Pentsa zer gertatu den hemen: *balinda* eta *zogun* esaten dutenak nagusitu dira eta ondo hitz egiten dutenak, aldiz, gutxietsi".

Beste espresio batzuek ofizialki okerreko esanahia hartu dutela ere izan dute hizpide; *betiere* lokailua aipatu dute adibide modura: "Espresio horrek, jatorriz, *noizean behin* esan nahi du, eta, gaur egun, *betidanik*, *oraindik* edo *edonola* ere hitzen sinonimo bezala dago onartuta".

Belaunaldien artean euskalkia etetearen kausak irakaskuntzan eta euskara batuaren sustapenean kokatu dituzte, batez ere.

GAZTEEI ARROTZ EGITEN ZAIKIE DUELA GUTXI ARTE KALEAN SARRI ENTZUTEN ZIREN BERBAK

Euskalkien interpretazio "pobre" egin dela uste dute, eta euskara batuak euskalkiari tarte gehiago eskaini beharko liokeela iradoki: "Gauzak izendatzeko modu ofizial bat inposatu du euskara batuak, gauza hori modu askotan izendatu daitekeela kontuan hartu gabe". Eskolan gertatzen dena jarri dute joera horren lekuko: "Irakasleak ikasle bati esaten diotenean 'hori ez da horrela esaten', ikaslea lotsarazi egiten du, eta ideia horrekin joaten da etxera. Ostean, aitona-amonei esango die euren hizkera oker dagoela".

Hitzen antzinasuna

Egungo ikuspegitik harrigarria dirudi euskara batua asmatu baino mende batzuk lehenago Euskal Herriko txoko desberdinetako herritarrek elkar ulertzeko hizkuntza komuna zeukatela pentsatzea, baina historia-lari eta filologoen susmo hori daukate, Anabel Ugaldek azaldu duenez: "Blanca Urgelli entzun nion XVI. mendean euskaldunek antzera hitz egiten zutela toki batean zein bestean; horrekin bat eginek, Arantzazun aurkitutako 1510eko poema bat irakurri nuen aurreko batean, Azkoitiko eskribau batek idatzitakoa, eta konturatu nintzen ezagutzen nituen hitz dezente agertzen zirela bertan". Froga horietan oinarrituz ausartzen dira esatera, bai Ugalde eta bai Ganboa, euskarazko hitzak zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta ohikoagoa dela euskalki

desberdinetan erabiltzea. "Baina euskalkiek euren bidea egin dute belaunaldiz belaunaldi, eta horregatik hitz egiten dugu Leintz bailaran modu batera, Oñatin beste batera eta Bergara aldean beste batera".

Esaren ehiztari

Etxe eta baserri askotan ohiko ariketa da mahaiaren bueltan batu eta senitarteko zaharrek egunerokotasunean erabiltzen zituzten berbak gogoratzea. Hala hasi ziren Ugaldereen etxean Arrasateko hitzak gogoratzen, lehiaketa bera hasi baino lehenago. Ganboak, berriz, koaderno bat darama beti alboan, eta karta-joko bat nahikoa zaio kideak botatuko komentario bati balio erantsia emateko: "Aurrekoan, batek *kostau haz* esan zuen, *kostau jatzu* edo *or due zuan* esan zezakeenean. Buelta hori zoragarria iruditu zitzaidan; apuntatu egin nuen". Bistakoa da aldaketa horiek gustuko dituela, zuzentasunaren gainetik: "Hemen euskaltzain asko eta euskaldun peto gutxi daude, bertako berba erabiltzen

duenak euskara petoan hitz egiten ez duela sinisteraino. Jarrera malguagoa izan behar-ko genuke, batuak eta euskalkiak, biek aberasten baitute elkar".

Eurek bertako hitzak ondo jakin arren, katea ez etetea, hau da, hitzek kalean jarraitzea nahi dute. Ez da erronka makala, baina orain arte egindako saiakerak eta gaur egungo komunikabideak bidelagun izan daitezke transmisio lan horretan. Euskara Saileko teknikariek eman dituzte pista batzuk: "Hor daukagu Badihardugu elkarteak sortutako *ahotsak.eus* webgunea, jende nagusiaren hizkuntza ohituren artxibo erraldoia dena; denon artean jarrai dezakegu artxibo hori elikatzen. Bestalde, Instagramek eta halako sare sozialek eman diezaiekete iraganeko hitzei freskotasun bat". Ikusten da gogo faltagatik ez dela izango; agian, globalizazioak kalte egingo die tokiko esanei, eta baliteke horregatik etortzea Ugaldereen azken gogoeta: "Dena behar-ko dugu euskararen egoera hobetzeko".

372 berben lagin txiki bat, esanahiekin

Euskaraldiaren lehiaketara aurkeztutako hitz batzuen azalpenak, sailkatuta:

Aditzak

- *Enpazu*: parra egin
- *Garbatu*: damutu
- *Tiril egin*: topo egin
- *Urkuldu*: artaburuari aleak kendu
- *Garmindu*: janariak erre usaina eta zaporea hartu
- *Pipertu*: haserretu

Tokiak:

- *Eskatza*: sukaldea
- *Kamarie*: ganbara
- *Zirkin-zulue*: gordelekua
- *Ittubie*: ukuilua

Espressoak:

- *Beinke*: bai horixe!
- *Barrixen barri*: berriro
- *Beti be*: noizean behin
- *Zartarie*: harrikada
- *Trikili-trakala*: estropezuka
- *Enda*: eta

Animaliak:

- *Txirtxille*: kilkerra
- *Apue*: txerri arra
- *Txindurixie*: inurria
- *Ugarixue*: igela
- *Katamixarra*: katagorria
- *Ogitegaztai*: erbinudea
- *Amarratza*: armiarma

Jakiak:

- *Zikili-mokolue*: janari askoren nahasketa
- *Urdentzakixe*: urdaiazpikoa
- *Azkarria*: legamia

Eguraldia:

- *Afrontu*: euria haizearekin
- *Horeixe*: ekaitza
- *Idolas*: euri-jasa sendoa

Adjektiboak:

- *Papartente*: harroxko
- *Bargasta*: emakume gaiztoa, errebeldea
- *Mondrongo*: atso zakarra
- *Pikutero*: kontakatilu
- *Gelbeixu*: gizon makala
- *Demaseko*: neurritz gaineko
- *Farde*: arlote



AZ VISUAL MEDIA

Bideoklipa labean du AGAKOK

1991ko apirilean sortu zuten Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua (AGAKO), eta 30. urteurrena ate jota dute, beraz. Urtemuga borobil hori ospatzeko prestatzen ari diren abestiaren bideokliparen momentuetako bat da goiko irudian ikusten dena, eta, horrez gain, dokumental bat eta liburu bat ere aurkeztuko dituzte datozen asteetan.



GOIENA

Euskalkiarekin lotutako anekdotak

Zenbatu ezin diren bitxikeriak datozkie burura Anabel Ugaldere eta Joxemari Ganboari ahoan darabilten hizkera dela eta. Azken horrek ondo gogoan du behin gertatu zitzaiona: "Elgetako lagun batekin joan nintzen bere herriko taberna batera; hotz egiten zuenez, salda beroa nahi genuen. Lagunari gustatzen zitzaizkion Arrasateko berbak, eta esan zion tabernariari: 'Saldixe badaukotzue?'. Eta besteak erantzun: 'Saldixe, larrean'. Azkenean, bi kafesne hartu genituen". Pattarra eskatzen duenean ere ez omen diote zerbitzariak mezua ulertzen: "Patxarana, anisa... Denetik atera izan didate kafearekin pattarra eskatu izan dudanean, koñaka izan ezik. Eta neuk koñaka eskatzen nien!".

Bestalde, atzizkia esateko eragatik arrasatear bat erdiguneko edo periferiako dela jakitea erraza zaio Anabel Ugaldere: "Txarrixa kaletarrek esaten dute eta *txarrixue*, ostera, baserri ingurukoek". Eta hitz berak esanahi desberdina izan dezake auzo batean edo bestean. "San Andres aldean *puxeta egin* esaten zen arropa garbitzerakoan", dio Ugaldere; Ganboak, kontrara, beste modu batean ulertzen du hitz hori: "Musakolan, errekatik *malatura* – errotaren ubidera– zihon ur kantitatea neurtzeko biltegiari deitzen genion *puxeta* edo *antepara*".

Gainera, testuinguruaren arabera hitz batek esanahi desberdina hartzen duela ere aipatu dute, eta *afõña* jarri dute adibide: "Berez, simaurra egiterakoan ateratzen den lurrinari deitzen zaio *afõña*, baina kiratsa dagoela esateko ere erabiltzen da".

Tabernen eta jatetxeen izenak

Ostarku, Txixinpe eta Larrinetxe toki-izenak ere Arrasateko hitzetatik datoz: lehenak *ostadarra* esan nahi du; bigarrenak, *teilatutik kanpora doan zatia*; eta azkena *larriñe* hitzetik dator. Hau da, etxaurreko lautada edo belardia izendatzeko modutik.

Idoia Asurmendiri elkarrizketa

Goiena telebistako *Galdegazte* saioaren zazpigarren denboraldiaren baitan, Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneko Uxue Arregi, Itxaso Plaza, Sara Yan Azkarate eta Malen Gonzalez ikasleek Idoia Asurmendi musikari aramaioarra elkarrizketatu dute. Saioak hainbat sorpresa izango ditu, gazteak protagonista izanik. Martxoaren 24an, 21:30ean eta 23:30ean.

OHARRAK

Margo taldearen erakusketa, gaurtik irekita

19:00etan inauguratuko dute, Kultureteko klaustroan.

Karapaixoa protagonista biharko azokan

Hainbat ekoizle izango dira 10:00etatik 14:00etara karapaixoa saltzen: Askasibar, Errasti, Ainara Abasolo eta Urkimendi.

'Euskara eta immigrazioa' martxoaren 24an

Gorka Moreno EHUKo irakaslearen hitzaldia Kulturaten izango da, 18:00etan, "informazioa eta hausnarketa" zabaltzeko asmoz.

Zinegoak jaialdiko film-laburrak ikusgai

Martxoaren 25ean, Kultureteko areto nagusian, 19:00etan.

'Parkour' parkea eta murala, herritarren esku

Bi parte-hartze prozesu abiatu ditu Udal Gobernuak asteon: batetik, Obenerrekako frontoian egingo duten 'parkour' parkerako hiru diseinuren artean aukeratu beharko dute herritarrek; eta, bestetik, Toki Argi pareko muralarentzako ere hiru aukera daude

X.G./E.A. ARRASATE

Obenerrekako parkeari dago-kionez, Lotzen Gipuzkoako Parkour Elkartearen aholkuak jarraituz egin dituzte hiru diseinuak, eta gaurtik apirilaren 11ra eman ahalko dute botoa Arrasaten erroldatutako 16 urtetik gorakoek, *Arrasate.eus* webgunean, BAZen nahiz Kulturaten.

Parkour parkea egitea bi eskarirekin lotuta dagoela azaldu du Maria Ubarretxena alkateak: "Lehenik eta behin, haurren kontseiluaren eskari bat zen herrian *parkour* gune bat jartzearena. Aldai parke inguruan jartzeko eskatu ziguten, gaur egun eremu horretan aritzen



Lotzen elkarteko Dani Sampayo, Ubarretxena eta Fuentes, hiru diseinuekin. X.G.

baitira diziplina hori praktikatzen. Bestalde, 2019ko aurrekontu parte hartzaileetako aukera irabazleetako bat izan zen Santa Marina auzoa txukuntzearena; proiektua hor kokatzen da".

Parkearen erabiltzaile izango diren askok botoa emateko adin nahikoa ez dutela jakitun, gurasoen edo bestelako pertsona batzuen bitartez botoa ematera animatu ditu Obrak, Zerbitzuak eta Mantentze Lanak Saileko buru Victoriano Fuentesek.

Parkea egiteko 200.000 aurrekontua izango du Udalak, eta, prozesu administratibo guztiak gaindituta, 2022 hasierarako erabilgarri egotea aurreikusten dute. Parkea egiteaz gain, iturri bat eta aparkaleku batzuk jartzea ere jasotzen du proiektuak.

Muralak ere hiru aukera ditu

Bestalde, auzotarrek aukeratuko dute Toki Argi erretiratuen etxe aurrean egingo duten murala zein izango den. Pook taldeko Joana Manzidor eta Lexuri Doyague artistek hiru mural diseinatu dituzte eta martxoaren 26ra bitartean egongo da botoa emateko aukera,

auzoko ludotekan eta elkartean jarri dituzten kutxetan.

Iaz, azpiko zatian ere mural bat egin zuten ludotekatik, eta erretiratuei ideia gustatu zitzaizen. Hori dela eta, haiek ere mural bat egingo dute. "Pareta biluzia da, nahiko tristea, eta bizitasun apur bat behar du", azaldu du Ramon Hildagok, batzordeko kideak. Maitane Muñoz Gizarte Ongizateko zinegotziak ere berretsi egin du hori: "Espazio honi bizi berri bat emateko asmotan bultzatu dute ekimena, Udal Gobernuak estrategikotzat duen herriaren zaharberritzean ale txiki bat jarritz".

Santa Teresa, Santa Marina, Agerre, Galizia, Doneztebe Portuko, Obenerreka eta Makatzeko auzotarrek edukiko dute bozkatzeko aukera -2.000 herritar inguru-. Izen-abizenak eman beharko dituzte bozkatzera, eta ondoren Udalak baieztatuko du haien botoak balio duen ala ez, erroldaren arabera.

Eguraldiak laguntzen badu, behintzat, apirilaren 1etik 5era bitartean margotuko dute.

Aukera guztiak *Goiena.eus* webgunean daude ikusgai.

HAU EZ DA NIRETZAT

Beste guztiontzat den websaila.



APIRILAREN 16TIK
AURRERA
'TAP' ALDIZKARI
DIGITALEAN

tap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: **tap.eus**

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Ibilbideen sareko bideak garbitu egingo dituzte

Udalak Natur Ibilbideen Sareko 49 kilometro mantenduko ditu, sareak biltzen dituen bide eta bidezidorrak "behar bezala" bermatzeko asmoz, eta lanen esleipena abiatu du, 12.213,50 euroko aurrekontuarekin –BEZik gabe–; ekainean hasia da asmoa

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bideak hartzen dituzten sasiak eta beste landaredi mota batzuk kenduko dituzte, ibiltarien eta txirrindularien segurtasuna bermatzeko helburuarekin. "Gainera, jatorri antropikoa daukaten hondakinak kenduko dira, plastikoak edota bestelako hondakinak". Era berean, 1.500 metro karratuko sastrakak moztuko dituzte, iturriak eta ibilbidean interesa duten beste elementu batzuk gaitzeko; informazio-panelak eta seinaleak, esaterako.

Udalak nabarmendu duenez, Udalatzeko gailurrera igotzeko hainbat aukera daude, hala nola landa-auzoetako ibilbideak, Uda-

latx mendiko bidezidorrak eta homologatutako hainbat ibilbide, guztiak ere Natur Ibilbideen Sarearen baitan jasota daudenak, "eta guztiak dira egokiak udalerriri eskaintzen duen balioaz eta paisaia naturalaz gozatzeko". Hain zuzen ere, "balio natural" hori bultzatzeko egingo dituzte mantentze-lanak.

PR-GI 91 ibilbidean, aldaketak

Bestalde, Besaide Mendizale Elkartek PR-GI 91 Erregebidea-Bedoña ibilbidea aldatzea proposatu zuen, "Etxezarreta parkea ezagutzera emateko eta bertako biodibertsitate aberatsa herri-tarren esku jarritz", Kortaburu-

ko tontorretik, Udalatz, Anboto eta Murugain tontorra eta Atxorrotx, Kurtzebarri eta Aloña mendia ikusteko talaia "ezin hobea" baita. Udalak ontzat eman du aldaketa, "ibilbideari ematen dion balio erantsia kontuan hartuta". Era horretan, ibilbidearen erakargarritasuna handitzea lortu gura dute, ondarea ezagutarazi eta indartzeaz gain.

Aldaketa hori egin ahal izateko, Udalak bere gain hartuko ditu panelak ikuskatu, diseinatu, editatu eta ordeztuko lanak, eta 6.060,81 euroko aurrekontua erabiliko du horretarako. Gipuzkoako Mendi Federazioak egingo ditu lan horiek.

Elkarlanean hasi dira Zuntza2021 plataforma eta Ibai-arte elkarteak

Zuntz optikoaren aldarrikapenarekin bat egiten dute bi eragileek. "Ezinbestekotzat jotzen dugu erdiguneko langile eta bizilagunok daukagun premia larri honi erantzun bateratua ematea, eta oinarritzko eskakizunetan aho batez berba egitea; gure etorkizuneko bizi eta lan baldintzak direlako jokoan daudenak", adierazi dute.

Hori dela eta, aurrerantzean, Zuntza2021 plataformak eta Ibai-arte zuntz optikoa 2021eko irailerako jartzeko eskakizuna batera jorratuko dute. Modu horretan, bai Ibai-arte bai hainbat bizilagunek aldarrikapen horri "urte luzez eman dioten bultzada" biziberritu egingo dela uste dute, ekimen bateratuari esker. "Ezbairik gabe, aurrera begirako lankidetzak haur berri ona izango da alde zahararentzat".

Udalaren berririk ez dutela diote, eta nabarmendu dute ekimen berriak abiaraziko dituztela, "gaiari dagokion ikusgarritasuna emateko".

Ibilketa nordikoko hastapen ikastaroa datorren astean

Ikastaro osoa lau ordukoa izango da eta bi egunean banatuko dute: hilaren 24an, eguaztena, 17:00etatik 18:30era; eta 25ean, eguena, 17:00etatik 19:30era. Izenematea Musakola kiroldegiko harreran egin beharko da. Bestalde, Musakolan bertan helduei zuzendutako igeriketa ikastaroak abiaraziko dituztela aurreratu dute Kirol Zerbitzuek.

'Estatu Batuak, Herriar Banatuak' solasaldia, martxoaren 23an

AEDk antolatutako saioan, Ainhoa Vitoria kazetari arrasatearrak Mikel Reparaz ETBko korrespondentsal ohia elkarrizketatuko du, nafarrak Ameriketako Estatu Batuetako gizarte hausturaz idatzitako *Ameriketako arrakalak* kronika hizpide hartuta. Kulturateko areto nagusian izango da saioa, martxoaren 23an, 19:00etan.



DEBAGOIENENKO GREMIOAK



AROTZEGIAK	AZKARATE AROZTEGIA BERGARA / Telleria 19 B02-B03 Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20 blogak.golena.net/azkarate	OYANGUREN ITURGINTZA	ESKORIATZA / Aranburuzabala 15 Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69 f.oyanguren@ctv.es
HONDEAKETAK	EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL ARRASATE / Meatzerreka 30 Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87 e.arrasate@gmail.com	URKO MANTENIMIENTO SL	ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3 Tel.: 943 77 19 88 Faxa: 943 79 59 97
ITURGINTZA	EGIA ITURGINTZA ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea Tel.: 943 77 01 85	LOREZAINZA	MAKAI KOOP. ELKARTEA ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1 Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98 Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Eguneko Zentroko langileak, zentroko sarreran. ARTXIBOA

Txertatu dituzte Eguneko Zentroko erabiltzaileak

Aramaioko zentroan zortzi nagusi daude gaur egun; horietatik seik jaso zuten Pfizer etxeko txertoa, atzo, eguena. Zentroko langileak ere txertatuta daude. "Pozik" hartu dute txertoa, eta euren itxaropena da aurrerantzean harremanak lasaiagoak izatea

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Aramaioko Eguneko Zentroko erabiltzaileak atzo txertatu zituzten: Arabako Foru Aldundi-ko profesionalak etorri ziren, eta Pfizer txertoa jarri zieten sei erabiltzaileari.

Modu honetan, lehenengo dosia jasota, bigarrena noiz jasoko zain geratu dira Aramaioko Eguneko Zentroan.

Sei txerto

Eguneko Zentroko arduradun Karmele Barrutiak azaldu du atzo sei izan zirela txertatuak: "Eguneko Zentroak zortzi erabiltzaile ditu gaur egun; baina horietatik batek pasa du COVID-19 gaixotasuna eta beste bat dagoeneko txertatuta dago". Gainera, kontuan hartu behar da Pfizer etxeko txertoa sei do-

siko potetxoetan datorrela; hau da, pote bakoitzetik sei txerto ateratzen dira. Txertoa jasoko duten sei pertsona egon behar dira potea zabaldu ahal izateko; ez badaude txertoa jasoko duten sei pertsona, ez dute poterik zabalitzen.

Eguneko Zentroko langileak aurrez txertatuta daude, Aztra-Zeneca txertoarekin.

Itxaropena txertoan

Orain dela bi edo hiru aste bidali zuten Eguneko Zentroko langileek dokumentazio guztia Aldundira: "Erabiltzaileek baimena sinatu behar dute txertoa jaso ahal izateko". Horrez gain, bete beharreko protokolo bat ere badago: "Erabiltzaileen datuak jasotzen dituzte, euren osasun egoera zein den, alergia-rik duten.. Protokoloak eskatzen duen informazio guztia jaso, eta Aldundira bidali genuen".

Bai langileak eta baita erabiltzaileak ere pozik daude txertaketarekin: "Bai, esperoan daude, pozik!". Barrutiak nabarmendu du txertoan daukatela itxaropena jarrita eta espero dutela poliki-poliki egoerari buelta eman eta lehenera itzultzen joatea. "Hor dugu esperantza jarrita: egoerari buelta eman eta, behintzat, beldurra kendu gurako genuke".

Beldurra kentzeaz gain, Eguneko Zentroko erabiltzaileek dituzten harremanetan ere eragingo duela uste dute: "Bai, buruan daukaguna da ea erlaxatzen garen, euren arteko harremanetan eta familiarekin duten harremanetan ere eragina izango du horrek". Izan ere, orain arte, harreman horiek kontu handiarekin izan dituzte, elkar zaintzen... eta, aurrerantzean, erlazio horiek goxoagoak izatea espero dute.

Urteko balorazioa

Orain urtebete, atek itxi behar izan zituen Aramaioko Eguneko Zentroak –beste guztiak bezala, egoerak behartuta–: "Zentroa itxi genuen, baina zerbitzua ematen jarraitu genuen". Langileak eta erabiltzaileak kalean elkartzen ziren, eta bisitak egin zituzten.

Ekain erdialdera hasi ziren berriro ere %100ean zerbitzua eskaintzen zentroan. "Orduetik, ez dugu beste itxierarik izan. Zabalik izan dugu zentroa, eta zerbitzua eskaini dugu", dio Barrutiak. Egunerokoan, baina, izan dituzte aldaketak. Segurtasun eta higie arauak bete behar izan dituzte, protokoloak eskatzen duen moduan: "Mahaien arteko distantziak zaindu behar izan ditugu, eskuak garbitu, erabilitako material guztia garbitu, komunak erabilerara bakoitzeko garbitu...". Horrez gain, adinekoekin egiten dituzten jarduerak ere indibidualagoak dira.

Beste itxierarik ez izatea onuragarria izan da bai lan dinamikarako eta baita nagusien euren egoera emozionalerako ere. Gainera, erabiltzaile bakoitzak pasa du COVID-19 gaitza, azaroan, hain zuzen: ondo pasatu zuten, eta berriro bueltan da egoitzan. "Sei hilabete baino gutxiago pasa direnez, ez dute txertatuko; hori da protokoloa", dio Barrutiak.

Lan egiteko beste modu batera egokitu behar izan dute Eguneko Zentroan; baina lanean jardun dute betiko gogo eta ilusioarekin.

Euren kabuz baliatzen direnak

Aramaioko Eguneko Zentroak pertsona autonomoak hartzen ditu, edo lehenengo graduko dependentsia maila dutenak. Egun, zortzi plaza ditu, eta guztiak beteta daude.

EKAIN ERDIALDEAN HASI ZIREN BERRIRO ERE ZERBITZUA %100EAN ESKAINTZEN

Merkataritza sektoreari bideratutako laguntza deialdia

Arabako Foru Aldundiak ezohiko dirulaguntza argitaratu du 2021eko jarduera gastuei aurre egiteko

A.E. ARAMAIO

Arabako Diputazioak merkatariei bideratutako ezohiko laguntza deialdia argitaratu du, 2021ean sortutako jarduera gastuei aurre egiteko. Deialdiaren helburua Arabako merkataritza sektore-

ko autonomoei eta enpresei laguntzea da. Dirulaguntzak bi lerrotan emango dituzte: batetik, gastu arruntak ordaintzeko; eta, bestetik, inbertsioetarako. Era-kunde onuradunak izan daitezke: langile autonomoak, baldin

eta gehienez ere zortzi enplegatut badituzte; sozietate zibilak edo ondasun erkidegoak, gehienez ere bederatzi autonomoz osatuak; eta merkataritza sozietateak, baldin eta enpresan dituzten partaidetzak autonomoen araubide berezian kotizatzen duten gehienez ere bederatzi langileri badagozkie. Eskaerak aurkezteko epea 2021eko apirilaren 9an amaituko da, 14:00etan. Eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira, Aldundiaren erregistro elektronikoa.

Landaguneetako plan bereziak ikusgai daude maiatzera arte

Otsaileko osoko bilkuran onartu zuten planei hasiera ematea; eta martxoaren 8an argitaratu zuten Arabako Aldizkari Ofizialean horren berri; hala, dagoeneko zabalik dago alegazioak jartzeko epea. Hain zuzen, maiatzaren 17ra arte ikusgai egongo dira planak udaletxean, eta beharrezkoak diren alegazioak jartzeko aukera egongo da.

Aramaion dauden hamaika landaguneak arautu nahi dituzte plan bereziekin. Bi fasetan egingo dute: lehenengo honetan, Arexola, Arriola, Barajuen, Uribarri, Suña eta Zabola auzoak arautuko dituzte. Gainerako bostak aurrerago egingo dituzte –dagoeneko lanean dihardute–.

Zalantzen bat duenak arkitektoarekin egin dezake kontsulta, arkitektoa@aramaio.eus helbidera idatzita edo martitzetan aurrez aurreko hitzordua hartuta.

Izena aldatu edo ez erabakiko dute gaur

Ikasle ordezkariak eta Elkarbizitza batzordeko kideek antolatuta, bozketa egingo dute gaur, eguena, San Martin herri eskolaren izena aldatu edo ez erabakitzeak. Bi zergati nagusi daude proposamenaren atzean. Emaitza gaur bertan jakitea espero dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO San Martin herri eskolaren izena aldatu edo ez erabakiko dute gaur eskolako eragile ezberdinek. Orain dela bi urte, eskolako guraso elkarteak eskolaren izena aldatzeko proposamena egin zuen; eta, aurtengo ikasturtean, Elkarbizitza batzordetik ikasleen ordezkariari proposamenaren berri eman zaie. Ikasleek gaiaren inguruan hausnartu dute, eta, behin hori eginda, Eskola Komunitateari helarazi diote proposamena.

Izena aldatzeko arrazoiak

Bi arrazoi nagusi daude izena aldatzeko: lehenengoa da txarto ulertuak egoten direla izenarekin. San Martin izeneko beste eskola bat ere badago, eta gertatu izan da erositako materiala edo ordezkariak Aramaiokoa ez den beste eskolara joatea; bestetik, kontuan hartu dute San Martin santu izena dela, eta, gaur egun, santuarena ez den beste izen bat

aproposago ikusten dute, batez ere, ikasleek.

Bi arrazoi horiek aintzat hartuta bozkatu beharko dute izena aldatu nahi duten edo ez.

Komunitatea

Eskolako komunitatea osatzen duten guztiak izango dute bozkatzeko aukera. "Langile guztiak, ikasleek, gurasoek eta baita udal ordezkariak ere", azaldu du eskolako zuzendari Saioa Uriartek.

Gaur, eguena, egingo dute bozketa. Ikasleek eta langileek eskolako gimnasioan bozkatu beharko dute, 10:30etik 12:00ak bitartean. "Bestalde, eskolara etorri ezin direnek inprimaki bat bete beharko dute. Guraso Elkarteak bideratu dute in-

primakia: horiek ere gaur bozkatu beharko dute, 14:00ak arteko tartearrekin", dio Uriartek. Izan ere, euren nahia da gaur arratsalderako bozketa emaitzaren berri ematea.

Erabakiaren ondoren, zer?

Gaur erantzun beharko duten galdera da: *Nahi al duzu eskolako izena aldatu?* Eta erantzunak izan daitezke hiru: *Bai, nahi dut; Berdin zait;* eta *Ez, ez dut nahi.*

Behin emaitza jakinda, eman beharreko hurrengo pausoak erabaki beharko dituzte: "Lehenengo, erabaki, eta ondoren, adostu egin beharko da ze irizpide izango ditugun kontuan izenak proposatzeko orduan".

Eskolako izena aldatzeko prozesuan parte hartzeko dei egin dute eskolako ordezkariak. Izan ere, komunitatea osatzen duten guztien ahotsa entzun nahi dute erabaki horretan. Izena aldatu edo ez, herri eskolaren izenak bera izaten jarraituko du. Hori ez da aldatuko.



CRISTINA ETXENAUSA

450 litro esne batu dituzte

Greziako kanpalekuek errefuxiatuei laguntzeko kanpainaren barruan, esne bilketa egin zuten hainbat herritan joan den aste bukaeran; tartean, Aramaion. Eta, argazkian ikusten denez, herritarren erantzuna ona izan zen. Antolatzaileek azaldu dute "oso pozik" daudela; gutxi gorabehera, 450 litro esne batu zituzten Aramaion.

'Ama-alu-lur sorgin baten ametsak' antzezlan gaur

Gaur, eguena, egingo du emanaldia Intujai Teatro taldeak, Martxoaren 8aren harira antolatutako egitarauaren barruan. Antzezlanak bi espeleologok egin duten aurkikuntzaz dihardu: alu erraldoi bat aurkituko dute haitzulo batean barruan. Emanaldia 19:00etan izango da eta aurrez erreserbatu beha dira sarrerak, Interneten.



Larrañaga eta Saenz de Ojer.

Bilera irekia egingo du Gazte Asanbladak kultura etxean

Zapatuan, martxoaren 20an, asanblada irekia egingo dute ATGAko kideek kultura etxean, 12:00etan. Besteak beste, gazte eguna antolatu eta beste gai batzuk lantzeko aprobetxatuko dute aukera. Gazte Asanbladako kideek sare sozialen bitartez zabaldu duten mezuan, gazteak animatu nahi dituzte bileran parte hartzera.

'Mendian hil, hirian hil' domekan, eta baita apirilean ere

Dokumentalaren bigarren emanaldia domekan eskainiko dute, 19:00etan. Bigarren aldi horretarako ere sarrera guztiak agortu dira. Hori horrela, Udalak erabaki du beste emanaldi bat egitea, apirilean. Emanaldi hori apirilaren 18an izango da, domeka. Sarrerak aurrez erreserbatu beharko dira, Internet bitartez.



San Martin herri eskola. IGOÑE OSINAGA

Santa Kurtz kalearen lanei aurten ekingo diete

Proiektua jaso berri du Udalak eta asmoa da maiatz eta ekain artean ateratzea lizitaziora, irailean hasteko. Proiektu estrategikoa da Udal Gobernuarentzat, eta aurreikusitako aurrekontua 2,3 milioi eurotik gorakoa da

Mirari Altube ARETXABALETA

Santa Kurtz kaleko hornidura eta saneamendu plan bereziaren proiektua gertu dauka Udalak. Sare horiek berritzearekin batera, kalea berrurbanizatu egingo dute, irisgarritasun irizpideak kontuan hartuta. Irailean hasi gura dituzte horiek eta urtebeteko exekuzio-epea zehaztu dute.

Proiektu estrategikoa

Xabi Otxoa Hirigintza zinegotziak eman ditu lanen gaineko nondik norakoak. Maiatz eta ekain artean lizitatzea da asmoa, irailean hasteko: "Kuartelaren alboko erdi-biribilgunean hasiko dira, Kurtzbarri eskolako noranzkoan, eta zatika egingo dituzte, bost fasetan. Gure asmoa da eskola inguruko lanak 2022ko opor sasoiaren egitea, ahalik eta kalte gutxien eragiteko".

Udalarendako proiektu estrategikoa da eta "lehenetasuna" eman gura izan diote: "Helburua da espazio publikoak hobetzen jarraitzea eta oinezkoentzat atsegina izatea, irisgarritasuna eta bide segurtasuna irabaziz. Eta, aldi berean, bidegorriari jarraipena ematea".

Aurreikusitako kostua 2,3 milioi eurotik gorakoa da, baina behin betiko zenbatekoa obrak esleitutakoan zehaztuko dute. Hori finantzatzeko dute 2021eko udal aurrekontuarekin –aurten 1.508.900 euro bideratu dituzte– eta gainerakoa 2022koarekin.

Ur eta argiteria sareak berritu

Asmatu Ingeniaritzak diseinatu du proiektua. Lanei dagokienez, batetik, lur azpiko sareari dagokionak egingo dira, eta, bestetik, berrurbanizatzeko lanak. Hornidura eta saneamendu sareak ordezkatuko dituzte; saneamendu urak eta drainatze urak bereziko dira, putzu berriak eta kanalizazio berria eraikiz. Eda-teko uraren hornidura sareari dagokionez, gaur egungo hodian



Xabi Otxoa zinegotzia eta Saioa Llodio teknikaria, kalean bertan. MIRARI ALTUBE

BIDEGORRIAK BERE IBILBIDEA JARRAITUKO DU KUARTELEKO ERDI-BIRIBILGUNEARAINO

(fibrozementua) ordez galdaketa harikorrek sare berri bat jarriko da, diametro handiagoa duena. Eta etxebizitzetarako hartu-neak lotuko dira polietilenoazko hodi txikiagoen bidez.

Argiteria sareak ere eguneratu egingo dituzte led argi berriak jarrita, baita telekomunikazioak ere –airetik igarotzen diren zatiak kendu egingo dira–.

Irisgarritasuna bermatu

Proiektuaren abiapuntua izan da iaz Udalak egin zuen parte-hartze prozesuan Santa Kurtz eta inguruetako bizilagunek gehien bozkatutako alternatiba. Aparkaleku gehien –150, guztira– eskaintzen zuen aukeraren alde egin zuten bizilagunek; betiere, ziurtatuta "oinetakoentzako eremu zabalak eta nahikoak", horrela irisgarritasun araudia betetzeko.

Ildo horretatik, oinezkoen eremuak eta ibilgailuen zirkulazioa mugatuko dituzte, hainbat material erabiliz. Espaloiak bi metro zabal izango dira, gutxienez, eta txorkoak egokituko dira zuhaitzak landatu ahal izateko. Bidegorriak ere bere ibilbidea jarraituko du kuarteleko erdi-biribilguneraino, eta galtzadaren zabalera txikituko da –kalearen amaieraraino jaisten den eskuinteko aldeko espaloia zabaltzean–, ibilgailuen abiadura murrizten laguntzeko.

Obra borobilduko dute altzari berriak jarrita: bankuak, farolak eta zakarrontziak.

Aparkalekua, Tubosen


Bestalde, obrak egiten diren bitartean kenduko diren aparkalekuak konpentsatzeko, behin-behineko aparkaleku bat egokituko da Tubos enpresa izandako lursailean. Ortuzal enpresak, lurraren jabeak, utziko dio espazio hori Udalari eta 76 toki egongo dira. Otxoa zinegotziak pazientzia eskatu die bizilagunei: "Lanek ahalik eta eragin txikiena izateko neurriak hartuko ditu Udalak. Baina pazientzia, merezi izango du eta".

Deba ibaian izandako isurketekin kezkatuta agertu da EH Bildu

Planoak eguneratzea, Ur Agentziarekin protokolo bat ezartzea eta hodian egoera aztertzea eskatu du

M.A. ARETXABALETA

Joan den egubakoitzean, hilaren 12an, Deba ibaiko ura zuritu egin zen, une batez, Loramendi kalearen ingurutik pasatzen den tartean. Hori horrela, EH Bildu kezkatuta agertu da, azken hilabeteetan "gutxienez hiru isurketaren berri" izan dutelako: "2020ko urrian, Pausoka haur eskola parean dagoen hodiak izandakoa; 2021eko martxoan, mojen komentuari ostean, Txarapea ibilbidetik datorren hodi batetik metal-urarena; eta azkena, joan den egubakoitzekoa".



Deba ibaiko ura, zurituta. EH BILDU

Lau eskaera

"Jakinen gainean gaude Ur Agentzia horien gainean dagoela eta behar diren ikerketak egiteko prozedura zabaldu duela", adierazi dute prentsa-ohar bidez, baina Udalari hainbat eskaera egin gura dizkiote, "gertatutakoak ez errepikatzen" eta gertatuz gero "ahalik eta bizkorren neurriak hartzeko".

Lehenengo eskaera da euri-uren hodian planoak eguneratzea eta ibairako irteera bakoitzean zein enpresa egon daitezkeen zerrendatzea, baita udaltzainen esku uztea hori ere. Ur Agen-

tzirekin protokolo bat zehaztea ere proposatu dute, "udaltzainek uraren lagin bat lehenbailehen har dezaten". Komentu ostean dagoen metal-uraren hodiaren egoera aztertzea ere eskatu dute. Bukatzeko, isurketak gertatuz gero, gura dute Udalak salaketa jartzea Bergarako epaitegian.

Herritarrei ere egin diete eskaera: "Halakorik sumatuz gero, 112ra edo udaltzainei lehenbailehen deitzeko". Eta arduraz jokatzeko dei egin diete horiei guztiei zein enpresei, "azken urteetan kostata lortu den ibaiaren kalitatea kolokan ez jartzeko".

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Pintaketak herriko hainbat gunetan

Herritar batek salatu du herriko hainbat gunetan "herria itsusten duten" pintaketak egin zituztela aste bukaeran; besteak beste, Ibarra futbol zelaian, batzokian eta udaletxean.

Ekintza askorekin dator udaberria Loramendira

Maddi Loiti elorriarrak 'Posible al da kea kateatzea?' liburua aurkeztuko du, eta tailerra eskaini bihar; martitzenean, ostera, Kolonbiako ipuin bat kontatuko du Auzokoko kide batek, eta hilaren 30ean 'Erdaldun berrien kluba' antzezlanaz izango da

Mirari Altube ARETXABALETA

Udaberrirako egitaraua gertatu gura izan du Loramendi elkarteak, eta hiru ekitaldi zehaztu ditu datozen egunetarako. Hain zuzen, herritarrei egindako galdeketatik jasotako erantzunak eta eskaerak hartu dituzte kontuan horretarako.

Eskatuena, tailerrak

"Galdeketa esandakoak hartu ditugu kontuan; izan ere, horren bitartez, herrian landu gura diren ekitaldiak jaso ditugu. Hortik abiatuta hasi gara lanean eta zehaztu dugu martxoko egitaraua", adierazi du Ainhoa Sanchez teknikariak, eta gaineratu: "Herriko kultura eskaintza aberastea da gure asmoa".

Tailerrak eta ikastaroak nabarmendu dituzte herritarrek galdeketa horren bidez: "Horiek izan dira gehien eskatutakoak, eta, horrez gain, ohiko egitarau baten falta ere agertu da; hau da, kontzertuak, dokumentalen emanaldiak eta antzekoak jasotzen dituen egitarau bat". Eta, oraingoz, horri heltzea erabaki dute.

Erotismoa langai

Posible al da kea kateatzea? liburua aurkeztuko du Maddi Loiti elorriarrak bihar, egubakoitza (10:30): "Egileak berak egindako ikerketa baten ondoren sortutako liburua edo fanzinea da. Erotismoaren eta sexualitatearen gaineko kontuak jaso ditu bertan, eta horiek tailer bidez landuko ditu", azaldu du Sanchezek.

Datorren martitzenean, hilaren 23an, ostera, *Ipuin internazionalak* proiektua abiaraziko dute: "Auzoko egitasmoaren bueltan sortutako proiektua da, eta, hilean behin, herrialde ezberdin bateko ipuin bat kontatuko du jatorri hartako kide batek. Horien ama hizkuntza eta euskara uzartzeko ahalegin bat egingo



Maddi Loiti elorriarra, liburua esku artean duela. ANBOTO

da, biei lekua eginda". Lehenengo ipuin kontaketa saioa kolonbiar jatorriko kide batek egingo du, eta *Egurgilea eta urrezko aizkora* ipuina eskainiko die ludotekako, hizkuntza errefortzuko zein herriko gainerako neska-mutikoei.

Martxoko egitaraua ixteko, hilaren 30ean (19:00), *Erdaldun berrien kluba* antzezlanaz izango da: "Euskara ikasten dabilzanein keinu egin, eta haiei lekua egiteko asmoarekin ekarriko dugu". Idoia Etxeberriak idatzitako lana da eta Olatz Pagalday es-

koriatzarrak erdaldun berrien kluba zer den azalduko die Loramendin elkartzen direnei.

Izena aurrez eman behar da

Ekitaldi guztiak Durana kalean Loramendi elkarteak egoitza duen atarian izango dira eta parte hartzeko aurrez eman behar da izena, edukiera zaintze aldera; hona hemen bideak: posta elektronikoz: euskara@loramendielkartea.eus; telefonoz: 685 75 67 29; Instagram bidez: [@loramendieuskara](https://www.instagram.com/loramendieuskara); eta Facebook bidez: *Loramendi Elkartea*.

Marrazki lehiaketa, gaur arte

Koloreztatu udaberrixa izenarekin marrazki lehiaketa deitu dute Loratu ekimeneko kideek. "Udaberria gainean daukagula aprobetxatuta, marraztu kolorez betetako zure udaberria!"; hori esanez, 6 eta 12 urte bitarteko herriko neska-mutiko guztiak gonbidatu dituzte horretara, eta ikastetxeen bitartez ere jaso dute gonbidapena.

Lanen tamaina eta formatua libre utzi dizkiete antolatzaileek artista gazteei. Lanak aurkezteko azken eguna da gaur, martxoak 18, eta Loramendiren egoitzako atarian jarritako kutxan sartu behar dituzte –ezizena duen kartazal baten barruan sartuta–. Jasotako marrazki guztiak erakutsi egingo dituzte, gero, Loramendiko atarian bertan egingo duten erakusketan.



Paul San Martin, emanaldi batean. GERARD GOUYOU

Blues, boogie eta jazz doinuak ekarriko ditu Paul San Martinek

Leizarra musika eskolako piano irakasleak kontzertua eskainiko du domekan, Arkupen; sarrerak agortuta daude

M.A. ARETXABALETA

Paul San Martin (Donostia, 1979) piano-jole eta irakasleak *Blues, boogie eta jazz* izeneko kontzertua eskainiko du domekan (19:00), Arkupen –sarrerak agortuta daude–. Pianoaren bitartez eta ahotsak lagun eginda abesti askotan, jazz estilo ezberdinekin beteko du Zeraia aretoa.

Pianoa eta ahotsa

"Musikaren bitartez bidaiatuko dugu Amerikako doinueta. Bereziki, *boogie woogie*-a, rock-and-rollaren aitzindaria dena, izango dut oinarri, eta jazz estilo ezberdinak balioan jarriko ditut, sarritan gutxietsi egiten direla uste dudalako", azaldu du San Martinek.

Piano kontzertua izango da, baina abestu ere egingo du: "Oso gustuko dut abestea; musika beltza, bereziki. Nire estiloa horixe dela esango nuke".

Bost disko grabatuta

Iruñean egin zituen piano-jazz ikasketak bukatu orduko hasi zen lanean Leizarra musika eskolan; 2009an, hain zuzen ere. Horregatik, aparteko ilusioa egiten dio Aretxabaleako emanaldiak; lehenengoa izango da, gainera: "Urte mordo daramatzat hemen, baina sekula ez da suertatu halako aukerarik. Hortaz, ilusioa egiten dit eta jendea ere entzuteko gogoz dagoela uste dut. Blues doinuak, gainera, oso samur entzuten dira, edozeinek atsegin ditu; hortaz, kontzertua edonorentzat da aproposa".

Bost disko ditu argitaratuta: batzuk, Stay Blues taldearekin; eta beste batzuk, bakarka. Azkenekoa, *A French Session*, Frantzia ekoiztu zuen, 2019an, nazioarteko musikariak lagun izanik. Horiez gainera, kolaborazio-lan asko egin ditu hainbat musikarirekin.

Euspot lehiaketarako trebakuntza saioa eskuragai dago

Euskarazko spot lehiaketaren iazko irabazle eta ikus-entzuzko sormenean aditu den Julen Urtzegik sormenaren gaineko trebakuntza saioa eskaini du, online, Euspoten Youtubeko kanalaren bidez. Lehiaketa zer den azaldu du, aurreko urteetako spot irabazleak aztertu ditu eta aholkuak eman, emaitza onak lortu ahal izateko.



Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Eskoriatzako ikastetxeetako haur batzuk, herrian zehar azterketa prozesuan. IBARRAUNDI MUSEOA

Herri jasangarriago egiteko azterketa fasean

Eskoriatzako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako haurrak Eskoriatzako zenbait aspektu ari dira aztertzen: espazio publiko zabalak, mugikortasuna... Azterketa sakona egin ostean, ondorioak atera eta udalbatzako kideei aurkeztuko diete egindakoa

Imanol Beloki ESKORIATZA

Herriko ikastetxeetako haurrak, Ibarraundiko teknikariak bide-lagun dituztela, Eskola Agenda 2030 ari dira lantzen. Egitasmo honen xedea Garapen Iraunkorreko helburuak ikasleekin lantzea da, beraiei protagonismoa emanez. Bertan, helburu ekologikoak –plastikoa, zaborra, erreka garbiketa, mugikortasun astea, zuhaitz landaketak...– lantzen jarraituko dute, baina arlo soziala uztartuz, Garapen Iraunkorreko Helburuekin egingo den loturaren bitartez.

Nazio Batuen Erakundeak argitaratutako garapen jasangarriaren hamazazpi helburuetatik, hiri eta komunitate jasangarriak ari dira aztertzen Eskoriatzako haurrak. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzeko helburuarekin. Zenbait helmuga planteatu dituzte lan honetarako, pertsonentzat eta planeta-erentzat garrantzi kritikoa duten

bost aspektu bilduz: pertsonala, planeta, bakea, ongizatea eta lankidetzeta.

Herriko aspektuak aztertzen

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako haurrak honako lanketa hau egiten ari dira: "Lehen zikloko bigarren mailako ikasleak herriko espazio publiko irekiak aztertzen ari dira, egokitasuna, erosotasuna eta aniztasuna kontuan izanda. Bigarren zikloko laugarren mailako ikasleak, aldiz, mugikortasuna aztertzen ari dira, ingurumenarekin eta osasunarekin lotuta. Azkenik, hirugarren zikloko seigarren mailako ikasleak elikadura ari dira aztertzen, osasuna eta eros ahalmenearekin lotuta", adierazi

ESPazio PUBLIKOAK, MUGIKORTASUNA ETA ELIKADURA AZTERTZEN ARI DIRA ESKORIATZAN

du Arrate Landak, Ibarraundi museoko langileak.

17 helburu, 17 hegazti

Agenda 2030ek batzen dituen helburuei beste aspektu batzuk gaineratu die SEO BirdLife gobernuz kanpoko erakundeak: garapen jasangarriaren hamazazpi helburuetako bakoitza hegazti batekin lotu dute. Hala, Eskoriatzako haurrak hamazazpi helburu horietatik hamaikagarren puntua lantzen ari direnez –hiri eta komunitate jasangarriak–, elizatorria egokitu zaie, eta lanketa hau ere ezarri nahi dute Agenda 2030 egitasmoan. Honako gogoeta hau egiten du SEO BirdLife: "Elizatorria edozein bizilekutarra moldatzen da, baina bere jana gizakiarengandik ateratzen du, bizirauteko bere beharra sentituz. Hegazti honen kopurua asko jaisten ari da hiri askotan, eta tendentzia negatibo horrek hiriak ingurune seguru eta jasangarri izatetik urrun daudela islatzen du".



NIRE USTEZ

HARITZ ZUBIA

Pantologia

"Nik Sálvame zapping egitean bakarrik ikusten dut". Baieztapen hau ohikoa izaten da. Zapping gogogabetu horrek duintasun geruza batez babestuko gaituelakoan. Beste esaldi hau ere entzun dezakegu: "Kotileoak ikusi ditut, baina kasu handirik egin gabe". Egia izango al da oharkabean ikusi dutela? Agian, erdi gezur edo erdi egia izango da... Dena dela, tele-errealitatea unetxo batez besterik ez dugula ikusi frogatu beharrean aurkitzen dugu geure burua. Besteari ziurtatu behar diogu dosi txikian kontsumitu dugula produktu lotsagarri hori. Hala ere, ez nuke esango gakoa dosian dagoenik, baizik eta dosi hori kontsumitzeko moduan. Isabel Pantojaren eta beste askoren gorabeherak izugarri erakarri gaitzake. Berdin dio zein neurritan irensten dugun. Nola barneratzen dugun moduan dago giltza. Orduan, nola ikusi eta irentsi beharko genuke informazio mota hori? Lehenik eta behin, ikusten ari garenaren kontzientzia hartuta. Ideia hau bistakoa dela dirudi, baina ezin dugu ahaztu denbora-pasa baten ikusleak garela. Honi, gauzengandik distantzia hartzea deitzen diogu. Bigarren une batean ikuspuntu ezberdin batez lortuko dugu ikusitakoa barneratzea. Jasotako informazioa zalantzan jarri dezakegu horrela, baina hala egiten ez badugu? Bada, ohikoa gertatuko da: informazioa aintzakotzat hartuko dugu, guztia sinetsiz. Telebistan ikusi eta entzundako edukiek izugarritzko sinesgarritasun boterea dute. Hor dago arriskua. Ez dugu dena sinistu behar. Bestela, batek esan zuen bezala: "Daukagun telebista merezi dugu".

OHARRAK

Udal webgunearen zerbitzaria

OVH enpresaren *datacenter*-en gertatutako sutearen ondorioz, milaka zerbitzari erori ziren martxoaren 11n, eta ordutik ez dago erabilgarri Eskoriatzako udal webgunea.

Ikurrinak eta Nafarroako banderak salgai

Apirilaren 4an Aberri Eguna izango da, eta, egun horri begira, leihoak eta balkoiak apaintzeko ikurrinak eta Nafarroako banderak salgai jarri dituzte Inkernu tabernan, 15 eurotan.

Gaztelekuko udaberriko ekintzak

Hilaren 29rako, 30erako eta 31rako askotariko ekintzak antolatu dituzte. Martxoaren 21era arte dago izena emateko aukera.



Ipuruako gimnastak, Valentzian, Espainiakoan

Espainiako Txapelketan lehiatuko dira, gaur, Ipurua Gimnasia Erritmikoko Taldeko gimnastak, Valentzian. Tartean da Nahia Arguiz eskoriatzarra, eta Espainiako Koparako eta Espainiako Txapelketako emaitzarako balioko du egiten duten lanak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Astelehenetik zapatuta arte dira jokatzekoak 2020ko denboraldiari dagozkion Gimnasia Erritmikoko Espainiako Txapelketak, eta Ipurua klubeko hamasei gimnasta Valentzian daude taldeko entrenatzaileekin batera, Alfafarko zentro kolonialean lehiatzeko gertu. Senior mailakoek gaur izango dituzte ariketak, bata goizean eta bestea arratsaldean. Horietan arituko da Nahia Arguiz gimnasta eskoriatzarra.

Seniorren ariketak, gaur

Federatuen artean gazteenak, kadeteen mailako bostekoa izan zen lehenengoa lehiatzen. Astelehenean izan zuten hitzordua, hain zuzen, orain dela urtebete prestatzen hasi ziren muntaia defendatzeko.

Senior taldeei dagokienez, berri, Ipuruako Gimnasia Erritmikoko bi talde lehiatuko dira, eta horietako batean hartuko du parte Nahia Arguiz gimnasta eskoriatzarrak, June Heredero, Arrate Baroja, Indira del Pino, Enara Bilbao eta Sara Aranguren taldekideekin batera. Bost pilotako ariketa egingo dute gimnastek tapizaren gainean, gaur, eguena, 10:24an eta 17:01ean.



Ipuruako seniorrak, EuskalGym-eko lehiaketan zilarra irabazi ostean. FRIXI ERAIKUNTZAK

Bi bider atzeratuta

Txapelketa 2020ko denboraldiari dagokio, eta COVID-19aren egoera dela-eta bi aldiz atzeratuta izan da. Bere garaian, Ipuruako Gimnasia Erritmikoko taldea sailkatua izan zen Espainiako Koparako, baina bertan behera geratu zen, pandemia egoera tarteko. Orain, aste honetan, Valentzian egingo duten txapelketa horretan, ariketen puntuazioak Espainiako Kopako eta Espainiako Txapelketako emaitzarako balioko du. Eta Ipurua Gimnasia Erritmikoko Taldeak

adierazi dutenez, "aukera asko dituzte dominaren bat eskuratzeko, urduritasunak ez badie kalterik egiten".

Online lehiaketak

Lehiaketa horretaz gain, denboraldi honetan lau txapelketa izan dituzte, sasoiari eusteko; guztiak online formatuan egin dituzte. Horietako bitan hirugarren sailkatu ziren, eta Euskal Gimnasia Federazioak antolatutako beste batean bigarren postuan sailkatu ziren; zilarrezko domina eskuratu zuten.

Western kutsuko emanaldia izanda, pelikula esanguratsuetako zenbait soinu-banda eskainiko dituzte.

Sarrerak Beheko Errota musika eskolan hartzeko daude eta bertatik pasa daitezke herritarrek horiek jasotzeko. Kontzertua arratsaldeko zazpitan Manuel Muñoz kiroldagian izango da, eta ateak 18:00etan zabalduko dituzte. Antolatzaileek gaineratu dute kiroldegira gerturatzen diren haurrak mozorrotuta joan daitezkeela.

ren gidaritzapean, mozorrotuta igoko dira oholtza gainera bandako musikari guztiak, eta, eramango dituzten jantzien gai bera ardatz, western doinuak izango dituzte gozagarri bertara gerturatu diren ikus-entzuleek.

Western doinuak landuko ditu musika eskolako bandak, gaur

Beheko Errota musika eskolako bandaren emanaldia Manuel Muñoz kiroldegian izango da, 19:00etan

I.B. ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, western kontzertua eskainiko du Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolako bandak Manuel Muñoz kiroldegian. Jesus Urrutia musika bandako zuzendaria-



Juan Luis Zabala, Gatz Museoko produktuei argazkiak ateratzen. GATZ MUSEOA

Gatz Museoko produktuen katalogoa osatzeko, erretratuak

Gatz Museoko produktu ezberdinei erretratuak ateratzen aritu da Juan Luis Zabala 'Mallabi'

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatz Museoko produktuen argazkiak berritzeko asmoz, argazkiak ateratzen izan da Juan Luis Zabala *Mallabi* gatzagarra. Aurrera begira katalogoa berritzeko asmoa ere badutela adierazi dute Gatz Museoko arduradunek, eta, horrekin batera, ondo legokeela sare sozialetan horiek txertatzea, museoko zein herriko beste zenbait argazki berriturekin batera.

Nikon D3500 argazki kamarekin eta 15-55 milimetroko objektiboarekin aritu da produktuei argazkiak ateratzen *Mallabi*.

Hondoa, zuria eta beltza

"Tela beltz bat erabili dut argazkien hondorako, eta baita argiakaxa bat. Hala, produktuak hondo beltzean eta zurian atera ditut. Horrekin batera, palet txiki bat jarri dut produktuak gainean jartzeko, eta, erretratutako produktuak bakarrik ateratzeaz batera, multzoan ere atera ditut. Lana amaitzean, museoko kanpoaldean ere aritu nintzen argazkiak ateratzen; hauek, akaso, artistikoagoak, errota martxan dagoela. Mugimendu sentsazioa sentiarazten duten erretratuak".



INDAI TALDEA

Ozen abestu, eta aldarrikatu

Martxoaren 8aren baitan, Bergarako Indai taldearen emanaldi akustikoa izan zen joan den egubakoitzean. Emakumeen ahotsak geroz eta ozenagoak diren arren aurretik bide luzea dagoela adieraziz, emakumeen presentzia handitu egin nahi dutela ozen abestu eta aldarrikatu zuten Leire Moñux, June Nogueiras, Nerea Aginagalde eta Leire Ugarte musikariek.

Aste Santuko oporraldia kulturaz janzteko gonbita

Udalak eta Kultura Mahaia elkarlanean antolatu dute Aste Santurako eskaintza; mahaiko kideek adierazi dutenez, herritarren partaidetza, elkarlana eta 'zero kilometro' filosofia sustatu nahi dute "etorkizuneko kultura ekimen indartsuei begira"

Jokin Bereziartua BERGARA

Egoera epidemiologikoa nabarmen okertzen ez bada, aurtengo Aste Santuko oporraldia iazkoa baino hobea izango dela ondoriozta daiteke, ezin da ahaztu eta 2020ko Aste Santuan eta Pazko astean erabateko konfinamendua zela protagonista. Horregatik, betiere, pandemiak eskatzen dituen neurrietara egokituta, Udalak eta Kultura Mahaia elkarlanean, "eskaintza oparoa" prestatu dute. "Asteko Santuko jaiegunak ere, azken urtea bezala, ezohiko egoeran pasatu beharko ditugu. Bergararrek kultura eskaintza oparoa eta herrian bertan izan dezaten apustu egin du Udalak, pandemia garaian egiten ari den moduan, herri bizia eta sortzailea delako gurea", esan zuen martitzeneko agerraldian Kultura zinegotzi Kristina Markinak.

Kultura Mahaian ere, '0 kilometro' Udalaren eta Kultura Mahaia arteko lankidetzaren eraginean, eta esker on hitzak izan ditu mahai horretan egin den lanarentzat: "Izugarrizko ekarpena egiten dute, eta ekarpen horren emaitza da herrian dagoen kultura egitarau oparoa". Kultura Mahaiko kide Maitane Arizabaletak azaldu zuen herrian



Aste Santurako egitarauaren berri emateko agerraldia, martitzenean. AITOR MARTINEZ

ZINEMA ALBORATUTA, ASTE SANTURAKO ESKAINTZAK 8.884 EUROKO KOSTUA DAUKA, BEZ-A BARNE

bizirik dagoen kulturari ikusgarritasuna ematea dela helburuetako bat: "Plaza eman nahi diegu herriko kultura sortzaileei eta elkarlana sustatzea da gure lantresna. Herritarrek gugana hurbildu nahi ditugu, eta alde-

rantziz". Arizabaletak *zero kilometro*-aren kontzeptua kultura arlorra ere ekarri behar dela aldarrikatu du: "Gertuko kultura sortzaileak ezagutzera ematea gure helburuen artean dago, eta baita elkar ezagutzea ere. Izan ere, askotan gertatzen zaigu ez dakigula ondokoa zertan ari den; elkar ezagutzen badugu, ekimen indartsuagoak antolatu ahalgo ditugu. Gainera, kultura emanaldietan emakumeen presentzia bermatzeko ere ari gara lanean; betiere, euskara ardatz edo oinarri moduan hartuta".

Zuzeneko musika, dantza eta eskulanak

- **Apirilak 1** Dupla musika taldea, Seminarixoa (19:00).
- **Apirilak 2** *Atzerian lurra garratz* antzerkia, Seminarixoa (19:00).
- **Apirilak 3** Pelax musika taldea, Seminarixoa (19:00).
- **Apirilak 4** Zinema umeentzat (16:00) eta helduentzat (18:30).
- **Apirilak 5** Zinema helduentzat (18:30).
- **Apirilak 7** *Hiriko dantzak* ikastaroa Camden Town-en

- eskutik, seminarioko patioan. Bi saio: 6-11 urte artekoentzat, 11:00etatik 12:00etara; 11-16 urte artekoentzat, 12:00etatik 13:00etara. Doakoa da, eta alde zuzenetik eman behar da izena.
- **Apirilak 8** *Noa uy, uy, uy* txotxongilo saioa umeentzat, Seminarixoa (18:00).
- **Apirilak 9** Eskulan tailerrak 6-16 urte artekoentzat. Doakoa, eta alde zuzenetik

- eman behar da izena. Bi talde egingo dira.
- **Apirilak 10** Ibil Bedi musika taldea, Seminarixoa (19:00).
- **Apirilak 11** Zinema umeentzat (16:00) eta helduentzat (18:30). Sarrerak martxoaren 18an jarriko dira salgai, 18:00etan. Argibide guztiak: www.seminarixoa.eus. Zinema eskaintza alboratuta, egitarau honen kostua da 8.884 eurokoa, BEZa barne.

2020an hilero 400 pertsonak jaso zuten Caritasen laguntza

Udalak hitzarmena berri du eta aurten 10.000 euroko dirulaguntza bideratuko du elkartearantz, besteak beste

J.B. BERGARA

Caritas elkarteak Europatik zetorren janari soberakina gordetzeko lekua behar zuela eta, Martokoa kaleko 8. zenbakian dagoen eskola zaharreko eskatuzion Udalari, eta Udalak, 2014ko martxoaren 31n udalbatzak egindako osoko bilkuran, hitzarmena onartu zuen.

Orain, Caritasen lokala erabiltzen jarraitzeko premia du, baina bertatik ematen duen zerbitzuak eragindako gastuei aurre egiteko dirulaguntza bat eskatu zion Udalari, eta baita janariak Elikagaien Bankutik ekartzeko laguntza. Bi aldeek 2014an sinatutako hitzarmena berri egin behar izan dute, beraz. Lagapenak lau urte iraungo du eta urtez urte bi alde oniritziarekin luzatu ahal izango da, gehieze ere sei urte osatu arte.

Janarirako beharra hazten doa

Lokal horretan ematen den zerbitzuaren gastuei aurre egiteko, Udalak 10.000 euroko dirulaguntza emango dio Caritasi, eta udal brigadako langileen bidez lagunduko diete Elikagai Bankutik Martoko lokalera janaria eramaten. Caritasen badu beste lokal bat Labegarietan; bertan, azken orduko elikagaien banaketa egiten dute, elikagai freskoekin eta eszedenteekin.

Datu batzuk ematearren: 2019an, batez beste, 112,5 saski banatu zituen Caritasen hilean Bergaran. 2020an, berriz, 158. Beraz, 45,5 saski gehiago izan dira, hilero. Bestetik, 2019an, batez beste, hilero 322 pertsonak jaso zuten janaria eta 2020an 400 pertsonak -78 pertsona gehiago hilero-. Hilero batez besteko 400 pertsona horietatik, 140 adin txikikoak izan dira.

Udalaren "ezohiko dirulaguntza deialdian" eskaera egin daiteke

Ostalaritzarako 70.000 euroko partida bideratu dute eta eskaerak martxoaren 31 baino lehen egin behar dira

J.B. BERGARA

Herriko ostalaritzaren, ostatu eta janari-edari banatzaileen enpleguari eta jarduerari eusteko Udalaren ezohiko dirulaguntzen deialdia zabalik dago. Eskaera egiteko honako baldintza hauek bete behar dira: ostalaritzakoa edo ostaturakoa bada, jarduera ekonomikoa Bergaran dagoen negozio-lokal batean garatzea eta lokal hori norbanakoei edo kontsumitzaileei zuzendutako produktuak edo zerbitzuak saltzeko helburuarekin erabiltzea; eta janari edo edari banatzaile sektorekoa bada, biltegia Bergaran izatea.

Gehieze, hamar lagun taldean Bigarren deialdia COVID-19ak eragindako egoerara moldatzeko egindako inbertsioak laguntzeko da. Baldintzen artean daude honako hauek: lan-jardun



Jatetxe bateko terraza, Irala kalean. I.B.

osoan hamar langile izatea gehieze eta jardueraren gaineko zergan alta emanda egotea 2020ko martxoaren 14a baino lehen. Bi deialdietarako martxoaren 31ra arteko epea dago; Bergararren Arreta Zerbitzura joanda edo Udalaren webgunean.



Kaleko katu bat Cristo Obrero inguruan, martitzenean; Miaukakoen arabera, hori da katu asko dauden gunetako bat. XABI URZELAI

Esterilizatu eta askatzea, Miaukaren "lehentasuna"

Kaleko katuen "kontrolrik gabeko ugalketaren arazoa" konpontzeko, Miauka elkarteak katuok harrapatu, antzutu eta berriro askatzea proposatu du soluzio moduan; asteen egin dute lehen bilera, herritarrek taldera erakarri eta Udalarekin elkarlana sustatzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergaran kaleko katu "gehiegi" daudela iritzita, martitzen arratsalderako bilera irekia deitu zuten zenbait herritarrek, kaleko katuen arazoari irtenbidea eman nahian dabilzalako. "Kaleko katuen egoera hobetu beharra dago, arazoak eta kalteak sortzen dituztelako. Kaleko ka-

tuen koloniak kontrolrik gabe ari dira hazten Bergaran, eta neurriak hartu behar dira", azaldu du sortzearen duten Miauka elkartearen kide Mamen Muelak. Beste herri edota hiri batzuetan gauzatu izan den CES izeneko programa Bergaran ere aplikatzea nahi dute; CES programarekin, kaleko katuak ha-

rrapatu, esterilizatu edo antzutu –eta beharrezko txertoak jarri– eta berriro ere askatuko lituzkete, eta hori guztia Udalaren babesarekin egitea nahi dute. "Hainbat herri eta hiritan ezarri dira CES programak, eta hori da hona ekartzea nahi duguna. Udalaren babesarekin uste dugu lortuko dugula kaleko

katuen arazoa konpontzea". Martitzen arratsalderako egin zuten bilera ireki baterako lehen deialdia eta hogeitaherritar elkar-tu zituzten Irizar jauregian.

"Kontrolrik gabe ugaltzen ari dira"

Martitzeneko bileran nabarmendu zuten, Miauka elkarteak uste dute kaleko katuen egoera hobetzeko ere balioko duela haien ugalketa kontrolatzea. Diote herriko kaleak ez direla leku egokia katuak bizi izateko, eta helburua izan beharko litzatekeela etorkizunean kaleko katurik ez izatea: "Katuak oso animalia garbiak badira ere, kontrolrik gabe ugaltzen ari dira eta aspalditik sortzen dituzte arazoak". Horrez gain, Mamen Muelak dio lokalizatuta dituztela herrian katuek arazo gehien sortzen dituzten gunek zeintzuk diren: "Bilera deitu dugu, bada-kigulako katuei jaten ematen dien jendea dagoela... Jaten ematen dieten horiekin ere egon nahi dugu, guztion artean arazoari irtenbidea emateko".

Udalari laguntzeko gertu daude

Miauka elkarteak Udalaren babesa badute, baina diote oraindik badirela zehaztu beharreko "hainbat gai". Adibidez, kaleko katuen "arazoa" konpontzeko bideratuko den diru partida zehaztu gabe dago: "Gu laguntzeko gertu gaude, baina Udalari dagokio arazoa konpontzea. Hori bai, partida bereziak bide-

ratuko dituzte? Hori guztia oraindik zehazteke dago, prozesuaren hasieran gaude". Miauka elkarteak ofizialki sortu barik dago, gaur-gaurkoz, eta izena Orereta-ko elkartetik hartu dute; Arrasateko Kaonbirekin ere badute harremana: "Lanean hasten garenean legalizatuko dugu dena". Esaterako, elkarteak kideek txartel bat erotea aurreikusten dute. Zertarako? Adibidez, kaleko katuei jaten eman behar badiete, arazorik ez izateko.

Herritarren keak ez dira berriak

Kaleko katuen afera ez da berria. 2020ko urrian, Matxiategiko eta Artzamendiko bizilagun batzuek kea bidali zuten GOIENARA, eta arazoaren jatorria jaten ematen dieten bizilagunengan dagoela ziorten bizilagun horiek, eta Artzamendiko egoera "berezik larria" zela adierazi zuten: "Katuek beste arazo bat ere sortu dute: arratoiak. Alboko portalean hiru aldiz sartu dira arratoiak aurten eta tinbreetako kableak jatera ere heldu dira". Udalak, besteak beste, bandoak jarri zituen orduan etxe atari batzuetan, katuei jaten ez emateko eskatzen.

ELKARTEA OFIZIALKI SORTZEKE BADUTE ERE, UDALAREN BABESA BADUTELA DIOTE MIAUKAKOEK

Intxaurrendoa, dolurako gune

Aratusteetako Amaren intxaurren ikuskizunaren ostean landatu zuten intxaurrendoa bisitatzera joan ziren domekan, Bizipozaren Jaia bukatu ostean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Laboratorium ondora. Intxaurrendoa dolurako gune izatea nahi dute, umeei begira: "Joan direnen balio eta bizipenak oroitu dituzue, muxu, olerki eta marrazkiekin, gugan daudelako".



B.U.

OHARRAK

Azoka indartzeko partaidetza prozesua, abian

Helburua da azokaren gaineko hausnarketa konpartitua egitea, ekoizleen eta kontsumitzaileen behar eta interesak kontuan hartuta. Oxirondoko azokaren diagnostikoa egiteko galdetegi bat prestatu dute, eta www.bergara.eus-en bete daiteke.

Olaso dorreko bisitak: erreserbak, ekainerako

Pandemiara egokitutako edukierak eraginda, maiatzera arteko bisita gidatuak beteta daude. Itzarote-zerrendan izena eman nahi duenak Turismo Bulegora deitu beharko du: 943 76 90 03.

St. Patrick's eguna gogoratzeko, kontzertua

Shane Curley eta Azkaiter Pelox taldeak zuzeneko eskainiko du gaur Seminarixuan (19:00). Sarrera gutxi batzuk geratzen dira.

Pilota: Gipuzkoako lau eta erdiko txapelketa

Kadete eta senior mailetako pilota partiduak jokatu dira domekan, 10:30ean hasita, udal pilotalekuan –publikorik gabe–.

Merkatua eta merkatu txikia: tasen kobrantza

2021eko lehen hiruhilekoko ordainagiriak ordaintzeko epea gaur hasi eta maiatzaren 18ra artekoa izango da: www.bergara.eus.

Pandemia hasi zenetik, lehen aldiz taula gainera

COVID-19a agertu zenetik lehen kontzertua emango dute Bergarako Musika Eskolako gazte bandak eta Big Bandak martxoaren 24an, San Pedro elizan (19:00); bestalde, Beñat Askargorta eta Alazne Suinaga ikasleek Euskal Ikasleen Orkestra txikian joko dute aurten

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiak arrasto handia utzi du Bergarako Musika Eskolan ere. Horren adibide da, bestek beste, pandemia hasi zenetik gazte bandak eta Big Bandak ez dutela kontzerturik eman. Urtebete luze kontzerturik eman gabe egon ostean, martxoaren 24an bueltatuko dira agertokietara; San Pedro elizan emango dute kontzertua, 19:00etan hasita. Musika Eskolako arduradunek aurreratu dute sarrera doakoa dela, baina edukiera kontuak direla eta sarrerak gonbidapen bidez banatuko direla. Gonbidapena jasotzeko, Musika Eskolara deitu beharra dago: 943 76 57 80.

Launa kantu, eta azkena batera

Musika Eskolako Big Bandako zuzendaria Angel Agiriano da, eta haren gidaritzapean ari dira 13 urtetik gorako bederatzi musikari. Lau pieza joko dituzte hilaren 24ko San Pedro elizako kontzertuan: Henry Manciniren *Peter Gunn Theme*, Michæl Swee-

ney-ren *Brezin*; Steve Winwood, Spencer Davis eta Muff Winwood-en *Gimme some Lovin*; eta Ozzy Osbourneren *Crazy train*.

Bestetik, Musika Eskolako gazte banda 10 eta 17 urte arteko 37 musikaririk osatzen dute eta zuzendaria Alberto Laskurain da. Bost pieza interpretatuko dituzte hilaren 24an, guztiak bertso originalen moldaketak izango direnak: Michael Brown-en *One direction in concert*, Jose Mari Iparragirrereren *Glu, glu, glu*, L. Henryren *Do you want* -Alazne Suinaga eta Ion Agiriano bakarlarri moduan arituko dira- eta herrikoia den *La bamb*. Eta kontzertua bi bandek batera bukatuko dute, Alberto Laskurainen gidaritzapean, Mark

DOAKOA IZAN ARREN, GONBIDAPENA ESKATU BEHAR DA, BERGARAKO MUSIKA ESKOLARA DEITUTA: 943 76 57 80

Ronsonek Bruno Mars-ekin batera ezagun ezin zuen *Uptown Funk* pieza jotzeko. Azken pieza hori ere bertso originalaren moldaketa bat izango da.

EIO txiki: Askargorta eta Suinaga

Bestalde, esan beharra dago pandemiak ez duela Bergarako Musika Eskolako harrobia opa-roa eten. Izan ere, iazko ikasturtean biolin-ikasle izan ziren Beñat Askargortak eta Alazne Suinagak Euskal Ikasleen Orkestra (EIO) txikian parte hartzeko probak gainditu arren, egoera pandemiakoak ez ziren esperentziak gozatzeko utzi. Iaz ez zen posible izan, baina aurten bai: "Iazko albiste txarraren ostean ez zuten amorerik eman eta lanean gogor jarraitu dute ikasturte honetan EIO txikiko partaide izateko; asteburuan egin zituzten probak eta biek lortu dute orkestran sartzea. Zorionak bi ikasleei eta haien irakasle Josune Enari!", adierazi du Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek.



Martxoaren 20ko omenaldia iragartzeko agerraldia, Olaso dorreko lorategian. A.B.

Telesforo Monzon omentzeko jaialdia egingo dute zapatuan

Brigade Loco, La Basu, Chill Mafia, dantzariak eta bertsolariak izango dira frontoiko oholtzan, besteak beste

J.B. BERGARA

Begarako Ahaztu Barik taldeak Telesforo Monzon omentzeko ekitaldia antolatu du zapatarako, martxoak 20, udal pilotalekuan (17:00). Monzonen *El jarrón roto* idazlanetik tiraka, *Lorontzia berreraikiz* omenaldi jaialdia antolatu dute. Ipar eta Hego Euskal Herriko kultura sortzaileak izango dira, "epizentroa" Bergaran jarrita: "Herriko kultura sortzaileen protagonismoa handia izango da".

"Askotariko adierazpideak"

Antolatzaileek diote Monzon hil zenetik 40 urte pasatu direla eta euskal kultura biziberrituz eta eraldatuz joan dela, kultura bizirik dagoen seinale: "Askotariko adierazpideen diziplinak batuko ditugu taula gainean. Telesforo Monzonen letra eta abestietatik abiatuz, ikuspegi kulturaletik hamaika

adierazpide taularatuko ditugu, klasikoak eta modernoak; iraganekoak, gaur egungoak eta etorkizunekoak". Honako artista hauek hartuko dute parte omenaldi-jaialdian: Moises Azpiazu Dantza Taldeko eta Bergarako Musika Eskolako dantzariak, Bergarako marrazkilarri eta grafiti-egileak, Brigade Loco musika taldea, La Basu eta Chill Mafia (Ikus Chill Mafiari elkarrizketa 40. orrialdean). Jaialdia borobiltzeaz, berriz, Maddi Ane Txoperena eta Sus-trai Colina arduratuko dira.

Sarrerak agortu egin dira

Pandemiak eraginda, 350 lagunendako lekua egongo da zapatuko omenaldian, baina sarrerak agortuta daude dagoeneko. Sarreretatik lortutako diru guztia "euskal kultura sustatzera" bideratuko dutela aurreratu dute Ahaztu Barik taldekoek.



Begarako Musika Eskolako gazte bandaren kontzertu bat udal pilotalekuan, pandemia hasi aurretik. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Maskaren gaineko uestezko iruzur baten berri eman du Udalak

Udaltzaingoak jakin duenez, ezezagun batzuk herritar batzuen etxeetara telefono deiak egiten ari dira maskara moten eta horien erabileraren inguruko bilerak adosteko: "Udalaren izenean egiten dituzte eta bilera-deiak herritarren etxeetan egitea eskatzen dute, eta bertan, maskara moten azalpena eta horien erabilera egokia nola

egin behar den adierazten omen diete. Telefonoz galdetegi bati erantzun ostean eta adina, arazo medikuak, etxean nortzuk bizi diren... ezagutu ondoren, egun zehatz eta ordu tarte batean pasako direla adosten dute".

Hori horrela, Udalak bergararekin jakinarazi die ez dela halako kanpainarik egiten ari, eta uestezko iruzurra dela. Hortaz, herritarrei eskatu nahi die ez dezatela eskatutako informaziorik eman, ezta haiekin etxean hitzordurik egin ere.



Urteroko hitzordua izanda, txirrindularitza-zaleen eta bailarako herritarren artean ikusmin handia eragin ohi du probak . I.S.

Gorlako Igoeran arduraz jokatzeko deia herritarrei

Txirrindularitzarentzat urte "aldrebasa" izan ostean, martxoaren 28rako antolatu du Lokatzak Gorlako Igoeraren 46. aldia. Lasterketaren irteera, helmuga eta sari banaketa moldatuta, segurtasun neurriak zorrotz bete eta ez pilatzeko dei egin dute

Jone Olabarria BERGARA

Martxoaren 28rako, domeka, antolatu du Lokatzak 2021ko Gorlako txirrindularitza igoera. 46. aldia izango da aurtengoa, eta Lokatzarendako proba "garrantzitsuenetakoa" izaten denak moldaketa ugari izango ditu aurtan, "segurtasuna bermatzeko asmoz". Probaren formatuari dagokionez, azken urteetako

ohiko egitura izango du: 121,3 kilometroko proba, Gorlara bi igoera eginda.

Pilaketak saihestea helburu

Antolaketa lanetan buru-belarri murgilduta daude Lokatzan, eta, azaldu dutenez, "indar handia" ari dira jartzen jende pilaketak saihesteko lanean: "Denboraldi aldrebasa izan da eta lasterketa

asko bertan behera geratu edo atzeratu egin dira. Guk tinko jarraituko dugu lasterketarekin, azken unera arte".

Hala ere, aitortu dute oraindik egun dezente geratzen direla martxoaren 28rako, eta COVID-19ari dagokionez osasun egoerak okerrera egiten badu proba kolokan egoteko aukera ere kontuan hartu behar dela azaldu du Lo-

katzako lehendakariak, Ion Unamunok.

Neurri zehatzak, gertu

Lokatzatik zehaztu dutenez, jende gehien pilatzen diren une eta gunek kontrolatuta izatea aurreikusten dute. Hala, irteera, helmuga eta sari banaketa "publikorik gabe eta era oso azkarean" egingo dituzte.

Errepidean, baina, zaintza hori egitea "oso zaila" dela azaldu dute, eta herritarrei arduraz jokatzeko eskatu diete: "Ez pilatu denak gunerean, beti maskara jantzita izan, eta, posible bada, taldetxoak mantendu, jende askorik ez nahasteko".

Lokatzak jakitun da ikusmin handia sortzen duen proba dela Gorlako, eta zale guztiei zein txirrindularien senideei neurriak zorrotz bete eta zentzuz jokatzeko dei egin diete.

Aurretik egindako lanaren fruituak

Joan den asteburuan jokatuak lasterketetan emaitza "politak" lortu zituzten Bolintxo okindegia-Lana taldeko ziklistek. Emakumezko kadeteak Jose Ignacio Urdaniz memorialean aritu ziren zapatuan, Atarrabian. Bertan lehiatu ziren taldeko Itxaso Plaza eta Edurne Ormaetxea hamargarren eta hogeita bigarren helmugaratu ziren, hurrenez hurren. Gizonezko kadetei dagokionez, zapatuan Beasainen jokatu zen Usurbe proban hirugarren postua eskuratu zuen Unax Errastik, eta 26. iritsi zen helmugara Karlos Ugarte. Lokatza taldeko lehendakari Ion Unamunok azaldukoaren arabera, lan "txukuna" egiten ari dira taldeko txirrindulariak: "Aurretik egindako lanaren fruituak dira: denboraldi-aurrean ondo aritu dira lanean, eta horrek bere isla du lasterketetako emaitzetan ere".



Errasti, Beasaingo podiumean. I.Z.

Taldean aurkezpena, zapatuan

Taldearen babesle den Bolintxo okindegiak San Juan auzoan duen egoitzan egingo dute taldeen aurkezpena –eta argazkiak– zapatuan, 11:00etan. Eskola mailako txirrindulariak, kadete mailakoak, gazteak eta afizionatuak izango dira. Denboraldi honetan Aloña Mendi taldean dabilzan ziklista bergararrak ere izango dira. Era berean, taldearen babeslea ere baden Lana Koop. enpresako ordezkarriak izango dira bertan. Ahalik eta jende gutxien gerturatzeko eskatu du Lokatzak.

"LASTERKETA ASKO GERATU DIRA BERTAN BEHERA; GUK TINKO JARRAITUKO DUGU, AZKEN UNERA ARTE"

Transexualitate zikloaren baitan, ekintza ugari asteburuan

'Mi pequeño gran samurai' dokumentala izango da bihar eta 'Transitos' liburuaren aurkezpena zapatuan

J.O. BERGARA

Kartzela zaharreko zineklubak –Dynamo zinekluba– eta Angiolillo liburutegiak elkarlanean antolatuta ekintza ugari egiten ari dira martxoan zehar, Transexualitate zikloaren baitan.

Lehen bi proiektzioak eginda, asteburu honetarako hitzordu bikoitza antolatu dute.

2018ko otsailean bere buruaz beste egin zuen Ekai Lersundi 16 urteko gaztearen istorioa ardatz duen *Mi pequeño gran sa-*

murai, Arantza Ibarrek egindako dokumentala, egongo da bihar ikusgai, 18:30ean. Proiektzioaren ostean, gurasoekin solasaldia izango da: "Dokumentalaren helburua Ekai gogoratzea eta trans pertsonen borroka aldarrikatzea da". Horretarako, Elaxar Lersundiren eta Ana Martinezen testigantzak bildu ditu, baita Naizen elkarteko eta Ondarroako hainbat bizilagunen adierazpenak ere.

Zapatuan, *Transitos* liburuaren aurkezpena egingo dute,

19:00etan. Liburuak haurren eta gazteen transexualitate historiak plazaratzen ditu, gurasoen testigantzetatik abiatuta. Aingeru Mayor liburuaren egilearekin batera, Ekaitz Goikoetxea bertsolari eta poeta ere izango da kartzela zaharrean, bien artean egingo duten jolasaldi eta solasaldian.

Zikloari amaiera emateko, hurrengo asteburuan, martxoaren 26an, *The Death and Life of Marsha P. Johnson* filma izango da ikusgai, David France zuzen-

dariak 2017. urtean egindakoa: "Marsha P. Johnsonen eta Sylvia Riveraren bizitzaren kronika da, 1960ko hamarkadatik 1990era arte. New Yorkeko gay askapenaren eta transgeneroen eskubideen mugimenduan paper garrantzitsua izan zuten, eta *Street Travestite Action Revolutionaries*-en sortzaileak dira".

Osasun segurtasuna bermatzeko neurriak hartuko direla gogorarazi dute kartzela zaharreko kideek. Hala, edukiera 35 pertsonara mugatuta egongo da.

"Muralek bizia ematen diete herriko kaleei"

IONE LARRAÑAGA GORROTXATEGI MURALGILEA

Udazkena oinarri hartuta, murala margotu berri du Zurrategi plazatik Eguzki auzora bidean dagoen horma batean Ione Larrañaga Gorrotxategi artista antzuolarrak

Maidar Arregi ANTZUOLA

27 urteko antzuolarrak Arte Ederrak ikasi zituen Madrilan, eta ondoren, Ilustrazioa eta Komikigintza ikasketak egin zituen Bartzelonan. Orain, etxera bueltatu da, eta bere arrastoa jada utzi du herriko kaleetan.

Zergatik egin zenuen murala?

Iaz, berrogeialdia hasi zen aste-buruan bertan nintzen murala margotzen hastekoa Bartzelonan. Pintura eresia neukan. Bat-batean, COVID-19a etorri zen eta ezin izan nuen burutu. Joan den irailean, Antzuolara bueltatu nintzen, eta Udalarri proposatu nion pintura aprobetxatu eta ea murala egin nezakeen.

Zein mezu darama?

Nire lanek denboraz eta naturaz hitz egiten dute, eta lan honekin udazkena irudikatu nahi nuen. Urtaroen baitan, ziklikoki naturan gauzak nola aldatzen diren oso erraz ikusten da.

Zer sentiarazten dizute muralek?

Herri askok toki hil asko dute la ueste dut, pareta huts asko, eta muralek bizitasuna ematen die kaleei. Baina ingurua txukundu eta bizitasuna emateaz gain, maiz, ikuslearen eta muralaren arteko elkarrizketa sortzen da. Espazio horretatik pasatzen den pertsonaren eta lanaren inguruko solasaldia. Oso



Larrañaga, Zurrategiko murala margotzen. I.L.

"IKUSLEAREN ETA MURALAREN ARTEAN SORTZEN DEN ELKARRIZKETA OSO INTERESGARRIA DA"

interesgarri deritzot; akaso, muralaren alderdi garrantzitsuena dela esango nuke.

Zein harrera izan du?

Bada, horrelako herri txiki batean ez nekien zein izango zen erantzuna, eta horrek larritzen

ninduen, batez ere, horrelako lanik ez dagoelako. Baina egiten ari nintzen bitartean bertatik pasatzen zirenekin izandako elkarrizketak eta proposamenak oso positiboak izan dira. Herri-tarrak gustura geratu direla esango nuke.

Udalak badu muralgintza proiektua aurtengo aurrekontuetan jasoa.

Bai; proiektu bezala badago jasoa muralgintzarena. Herriko puntu desberdinetan mural desberdinak egiteko proiektua da; baina oraindik xehetasunak lotzeko daude.



NIRE USTEZ

ALAITZ JAUREGI

8 urteko baten ikuspuntutik

Kaixo! 8 urteko neska bat naiz eta behin eta berriz konfinatuta nago. Oso gogorra da derrigortuta egotea etxean, baina oraindik gogorragoa da nire lagunak eskolara sartzen ikustea edo kalean jolasten ikustea nire etxeko balkoitik.

Eta gogorragoa, oraindik, eskolako etxeko lanak egin beharra etxean, zailagoak baitira eta nire amak ez dakielako esplikatzen.

Ume guztiak denbora guztian gaude konfinatuta, eta eskatu eta eskatu egiten diguzue. Nahikoa da, ezta?

Batuketa: 1.000 egun etxean + 100 makilatxo sudurretik + 3.000 etxeko lan + 5.800 haserre = Estresatuta gaude!

Kaixo! Ni 8 urtekoaren ama naiz, eta konturatu naiz zenbat exijitu didan nire alabei, batez ere, konfinatuta egon direnean: ariketak egin, hau jaso, laga nire lanak egiten... behin eta berriro.

Konturatu gara zelako meritua daukaten? Zuek bai zaretela mundialak!



Esne bilketa Olarango etxe aurrean. ANELKAR

658 litro esne joango dira Antzuolatik Lesboseraino

Antzuolarrek, beste behin, sentiberak direla erakutsi dute, eta eskainitako laguntza eskertu gura dugu

Goiena komunitatea

Anelkar / ANTZUOLA

Zaporeak gobernuz kanpoko erakundeak Lesbos uhartera bidaltzeko esne bilketa antolatuta du azken egunotan. Bilketa Euskal Herrira zabaldu dute; Antzuolan ere bat egin dugu ekimen horrekin.

Ezaguna da bertako errefuxiatuak jasaten ari diren egoera larria; are gehiago, neguan bizi dutena. Horregatik, kanpainaren helburua, 7.200 laguni oinarriko elikagaiak helaraztea izan da. Esan moduan, bat egin dugu, eta martxoaren 12tik 13ra bitar-

tean, 658 litro esne bildu ditugu herrian jarritako hainbat guneri esker.

Gainera, herritar askok diruz ere lagundu dute, Lesbosko errefuxiatuei laguntzeko kanpainarekin bat eginez.

Antzuolarrek berriz ere demostratu dute sentiberak direla eta prest daudela egoera zailetan daudenei beren elkartasuna adierazteko. Horregatik, oraingoan ere eskerrak eman nahi dizkiegu: mila esker, bihotz-bihotzez, esne bilketa sustatu duen Antzuolako talde antolatzaillearen partetik.

Zer kontatu erabakitzean...

Pintura plastikoa darabil Ione Larrañaga Gorrotxategik bere horma-irudiak sortzeko garaian. Argazkian, iaz uztailean Kataluniako Sant Vicenç dels Horts herrian egindako murala dago. "Egingo dudanaren bitartez zer kontatuko dudan erabakitzen dut; eta, behin euskarria edo espazioa aukeratutakoan, sortze prozesua hasten dut".



Sant Vicenç dels Horts-en egindako murala 2020ko uztailean. I.O



Iazko irabazle Beñat Carbayeda, Nicolas Alustizarekin, Uzarragako Igoeran. GOIENA

Uzarragako Igoera, atzeratuta, adostasunez

Egutegian domeka gorriz markatuta zuten bailarako txirrindulari-zaleek; baina koronabirusak herrian duen bilakaera ikusita, "zuhurtziaz jokatzea" eta Uzarragako igoera "ez egitea" erabaki dute Antzuolako Udalak eta Aiastui Txirrindularitza Elkarteak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Pandemia betean ezegonkortasuna nagusi den honetan, Euskal Herriko Txirrindularitza Federazioak egutegia osatuta zuen, taldeek, behinik behin, antolatzeak aukera eta erreferentzia izan zezaten 2021ean. Baina hasi dira aldaketak jada. Hala, domekan, martxoak 20, lehiatzekoa zen Uzarragako igoera atzeratu egin behar izan dute. Joan den egubakoitzean, Antzuolako intzidentzia-tasa zein zen ikusita hartu zuten proba bertan behera uzteko erabakia Antzuolako Udalak eta Aiastui elkarteak. "Herrian dagoen osasun-egoera dela-eta Aiastui elkarteak eta Udalak adostu dugu Uzarragako Igoera atzeratzea. Zuhurtziaz hartutako erabakia izan da, horrelakoetan kanpotik jende asko etortzen delako. Iaz ere atzeratu behar izan zen, iraila arte. Aurten oraindik ez daukagu lasterketa egiteko data berririk, baina egoerak baimentzen due-

nean eta egutegian tarteren bat dagoenean Aiastui elkarteak antolatuko du berrito", jakinarazi du Udalak, asteon, ohar baten bidez.

Osasun neurriak

Iaz egin zen moduan, osasun neurriak bermatuko dituen kontingentzia-plana egina du Aiastui elkarteak, eta aldaketaren bat edo beste izango luke aurten ere lasterketak. "Koronabirusaren aurrean hartu beharreko neurriek zenbait aldaketa eragin dituzte. Hala, lasterketako irteera puntua herrian beharrean Goizperko aparkalekuan izango da. Helburua da jende pilaketak saihestea. Izan ere, 200 bat ziklistak parte hartzen badute, horien bueltan

IÑAKI LETEREN OROIMENEZKO LASTERKETAK UZTAILAREN 11RI EUSTEN DIO

batzen diren senitarteko, lagun, zuzendari edo laguntzaileak asko izan daitezke eta jendetza batu daitezke", azaldu du Joseba Lezetak, Aiastui elkarteko kideak.

Federazioak egutegian lekua eginda, eta osasun egoerak hobera eginda, Uzarragako 47. edizioa izango da. Ibilbideari dagokionez, iazko berbera izango da -ia 60 kilometro, 16:00etan hasita-: Antzuolatik neutralizatu jaitziko dira Bergarara, eta han, saihebidetako tunela igarota, martxan jarriko da proba.

Lehendakari txapelketa

Euskal Herriko Txirrindularitza Federazioaren egutegiaren arabera, uztailaren 11n, Lehendakari txapelketako 23 urtez azpiko Iñaki Leteren oroimenezko lasterketa egingo litzateke -herriko jai nagusiak egingo balira, aurreko asteburuan izango litzateke lasterketa-. Uztailaren 11n, gainera, Euskadi Open BTT proba egingo litzateke, dena ondo bidean.

'Love & Hate', Patxi Luque musikariaren single berria

Diskoko kantuak aukeratzeko zaleen laguntza eskatu du Luquek, eta kantuak sare sozialetan partekatuko ditu

Maidar Arregi ANTZUOLA

Patxi Luque Cifuentes musikari antzuolarrak *Love & Hate* single berria kaleratu eta zabaldu du sare sozialen bitartez. Disko berria prestatzen ari da, eta, bien bitartean, metal doinuen aurrerapena egin du, zaleen gozamenarako.

Elkarlanean zaleekin

Diskoko kantuen aukeraketa prozesua zaleekin elkarlanean egingo duela aitortu du: "Nire asmoa disko berria kaleratzea da zaleen iritziak jasota, eta horretan dihardut buru-belarri". Luquek zaleei diskoa kaleratzen laguntzeko dei egin die eta www.patreon.com/patxiluluque webgunearen bitartez norbanakoak bere aletxoak jarri dezake: "Patreon webguneari esker, laguntza ematen dutenek diskoaren inguruko iritzia ere eman de-



Patxi Luque, ebeko balkoian. M.A.

zakete. Bertan argazkiak, letrak... dena partekatzen dut eurekin, eta elkarlan interesgarria dela esango nuke. Gainera, diskoa osatuko duten kantuen aukeraketa parte hartzeko aukera ere eskainiko diet", adierazi du musikariak.

Mikel Garitano eskiatzailea, Euskadiko txapeldun

Eslalom modalitatean, Mikel Garitano eskiatzaileak eskuratu du Euskadiko txapelketako garaipena, Astunen. 18 urtez azpikoen kategorian lehiatu den arren, antzuolarrarena izan da txapelketako parte hartzaile guztien artean lortutako denborarik onena: minutu bat, 36 segundo eta 33 ehunen. -bigarrenarekiko 65 ehuneneko aldea-

Hontza Extrem parkera irteera egingo dute

Gaske txokoak antolatuta, Hontza Extrem (Otxandio) parkera irteera egingo dute martxoaren 28an. "Eguna pasatzera joango gara eta bertan, ibilbidea, arku tiraketa eta orientazio probak egingo ditugu", dio dinamizatzaileak. Liburutegian eman behar da izena. Prezioa 15 euro da. Izena emateko azken eguna hilaren 23a da.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Lan eta harreman dinamika berriak jomuga

Partaidetza prozesuan irtendako proposamenak dira elkarbizitza eta elkarlan dinamikak, bizitza aktiboa, herritar sareak, energia berdeak, etxebizitza plan bat, euskara, lan munduarekiko zubiak, inguruko herrien potentzialitatea...

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Sei arlo izan zituen gogoeta gai *Danon Artian Elgeta 2030* parte hartze prozesuak. Kirola eta kultura izan ziren horietako bi (Ikus aurreko asteko zenbakia). Lerroetan, gainerako laurak daude jasota.

Enplegua eta lana

Datu bilketa egitea proposatu zuten herritarrek, jakiteko zenbat langilek diharduen Elgetan beharrean eta zenbat diren herritik kanpora joaten direnak. "Argazki bat izateko nola mugitzen den jendea", esan zuten.

Herriko enpresei formulario bat bidaltzea ere proposatu zuten. Alde batetik, datuak jasotzeko, eta, bestetik, galdetzeko ze profiletako langileak behar dituzten edota bestelako ze behar dituzten. Enpresen eta Udalaren arteko elkarlana iradoki zuten.

Mankomunitatearekin lan integraziorako aukerak aztertzea eta ikastaro proposamenak lantzea ere planteatu zuten.

Industria lanarekin batera digitalizazioaren garrantziaz ohartarazi zuten, eta esparru horretan sor daitezkeen aukerak aztertzea iradoki zuten, etorkizuneko aukerak izan daitezkeelako. "Ze lokal egon daiteke herrian halako jardueretarako?".



Partaidetza prozesuaren bigarren eta azken saioa. L.Z.L.

Herriko komertzioekin eta ostalaritzarekin elkarlana bultzatu beharra ikusten dute, esaterako, kanpainak egiteko, bonuak bultzatzeko... "Foro bat sortzea izan daiteke elkarlan hori bultzatzeko erreminta bat". Azkenik, inguruko herriek duten potentzialitate handiaz jardun zuten; izan ere, "150.000 bat biztanle daude ondoko herrietan".

Zaintza lanek ere aipamen berezia merezi izan zuten. Zaintza lanetan zenbat langilek eta zein egoeratan diharduten aztertzea proposatu zuten. "Lan

baldintzak aztertzeke eta duintzeke", esan zuten.

Osasuna eta zaintza

Etxebizitza proiektuak bultzatzea proposatu zuten alor horretan. Etxebizitzak, non nagusien eta gazteen elkarbizitza sustatuko litzatekeen. Askotariko formulak egon daitezkeela azaldu zuten lantalde horretako kideek, eta Legazpiko esperientziaren adibidea eman zuten, non erabilitzaile bakoitza bere espazioan bizi den, baina zerbitzu bateratu batzuk partekatzen dituzten.

Herritarren arteko bizitza aktiboa sustatzeko ahaleginari buruz ere jardun zuten. *Bergara Oinez*, Legazpiko *Tipi Tapa* eta Ordiziako *Ordizia Oinez* eman zituzten adibide gisa, non herrian zehar ibilbideak egiteko aukera eskaintzen zaien nagusiei eta hain nagusiak ez direnei, kanpora irtetea bultzatuz eta harremanak zein herritar sareak sortzeko aukerak areagotuz.

Harreman digitalak alboratzeko eta aurrez aurrekoak bultzatzeko estrategiak bultzatu beharra ere agertu zuten.

Lurraldea eta azpiegiturak

Alor horretan hiru erronka nagusi identifikatu zituzten. Lehenengo izan zen gazteek herrian bizitzen jarraitzeko azpiegiturak bermatzea, eta gazteek herrian jarraituko dutela ziurtatzeko etxebizitza plan bat lantzea proposatu zuten. Arauetan etxebizitza plan bat jasotzea, alegia.

Energia berdeen kontsumoan burujabetza urratsak egitea ere garrantzizkotzat jo zuten, eta bide horretan eman daitezkeen aurrerapausoei adi egon behar dela azaldu zuten. Alde horretatik, proposamenetako bat izan zen aliantza interesgarria izan daitekeela esparru horretan bailara mailan bere bidea egiten ari den D2030 proiektua.

Azkenik, garraio, naturagune zein irisgarritasun kontuetan dauden baliabideak mantentzea ezinbestekotzat jo zuten. Irisgarritasuna, ez soilik alor arkitektonikoan, baizik eta maila guztietan: kognitiboan, ulerkortasunean, informazioa zabaltzeko bideetan...

Herri identitatea eta oinarriak

"Orain arteko dinamikak aldatu behar dira", azaldu zuten. Azter-

keta sakona egin eta soluzio bat topatu behar dela azaldu zuten. "Garrantzitsua da Elgetaren izaera zaintzea. Herri txikia izanik, bere handitasunak ditu: elkar ezagutzeak laguntza sareak erakitzeke aukera ematen du".

Euskara eta bertako euskalkia zaintzea ere ezinbestekotzat jo zuten, eta gehiago sustatu behar direla azaldu zuten.

Gazteak herriko partaidetza nola murgildu ere izan zen beste aztergaietako bat. "Aktibatuz egin behar dira gazteak", esan zuten. "Bergaran auzoetako gazteekin egindako dinamika izan daiteke adibideetako bat (...) Helduagoak diren gazteak bideratzaile izan daitezke gazteagoak direnen energiak asetzeko eta horretarako erremintak emanez —ekonomikoak, lokala, harremanak eskaini...—. Elgetako Gazteen Eguna egiteko proposamena egin zuten, esaterako.

Udalaren eta herriko elkarteen arteko kohesioa lantzeko dagoe la ere esan zuten, eta komunikazio eta adostasun gehiago iradoki zituzten. "Elgeta ez da bakarria arazo hauek dituen, eta soluzioak, akaso, asmatuta daude. Aztertu beharko litzateke hori, eta, horrekin batera, ze laguntza jaso daitezkeen kanpoko entitateetatik; esaterako Diputaziotik, Landa Garapenetik...".

Herritarrek egin dituzte proposamenak. Elgetako Udalak, orain, bertatik abiatuko du hurrengo Plan Estrategiakoaren idazketa.

"GARRANTZITSUA DA ELGETAREN IZAERA ZAINTZA; HERRI TXIKIA IZANIK, BERE HANDITASUNAK DITU"

"Eraikina okupatzea pentsatu genuen; pentsatu, eta egin!"

Martitzenean, hilaren 22an, beteko dira hogeita bost urte Gazte Asanbladak gaztetxea okupatu zuela

L.Z.L. ELGETA

Haur eskola izandako frontoi ondoko eraikina okupatu zuten. Horrela azaldu zuten okupazioa urtemugako aldizkarian: "Lokal propio baten falta ikaragarria zela ikusi genuen, eta, Udalak

gure eskaerei paso egiten zenez, (...) eraikina okupatzea pentsatu genuen; pentsatu, eta egin!".

Orduan ez zekiten, baina 22 urteko ibilbidea —1996-2018— izango zuten gaztetxeak, eta makina bat ikastaro, hitzaldi, kontzertu,

bertso saio, eta abar egin zuten bertan. Herriko mugetatik kanpo ere izena hartu zuen Elgetako gaztetxeak.

Urtemuga oharkabean pasako da herritar gehienendako, baina ez horrela eraikina okupatzeko eta gaztetxea martxan jartzeko erabakia hartu zuten elgetarren artean.

Bada ekitaldirik antolatzeke gogoz ibili denik ere, baina COVID-19 egoerak dezente zailtzen ditu halakoak, eta, oraingoz, ez dago halakorik aurreikusita.



Bazkaria, 2018an, Elgetako gaztetxean. ARTXIBOA

la mende batez izan ziren mikeleteak Elgetan

Segurtasuna bermatzea, Aurrezki Kutxa Probintzialaren sukurtsala zaintzea eta, batez ere, arbitrioak edo zerga probintzialak kobratzea ziren Aldundiko agente horien egitekoak. 'Kataian' izan zuten azken kuartela, eta 36ko gerrarekin desagertu ziren

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Aurretik bestelako saiakerak egon baziren ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1841eko abuztuan sortu zuen Mikelete Taldea. Lurraldeko sei puntutan kokatu zituzten kuartelak; tartean, Elgetan. Agente haien hasierako funtzioak izan ziren "segurtasuna eta bakea" bermatzea. Landa eremua eta kontrabandoa zaintzen zituzten.

Gorabehera batzuk izan ondoren, 1848an egonkortu egin zen unitatea, eta zeregin berriak ipini zitzaizkion: *arbitrioak* edo zerga probintzialak zein ibilgailu astunen garraioa kobratzea, batez ere. Jorge Cabanellasek *Los últimos miqueletes de Guipúzcoa* liburuan jasotzen duenez, Aurrezki Kutxa Probintzialaren sukurtsalen zaintza ere mikeleteen egiteko bihurtu zen 1896an, eta Elgetan foruzainen postuan zabaldu zuten sukurtsala.

Elgeta probintzia arteko muga izanik, arku-etxea ordainpeko igarobidea izan zen. Ez hori bakarrik. "30eko hamarkada hasieran, Elgeta zen probintzia-tik bota nahi ziren pertsonak kanporatzeko ohiko guneetako bat", dio Cabanellasek. "Gaizkileak eta gipuzkoarrak ez ziren eskaleak kanporatzen ziren, gehienbat".



Elgetako postuko mikeleteak txantxetan. T. JAUREGI - BERGARAKO UDAL ARTXIBOA

Mikelete izateko Gipuzkoan jaiotakoa, ezkongabea eta euskal hiztuna izan behar zen. "Plaza lortu eta bi urtera arte ezkongabe jarraitu behar zuten", eta euskal hiztunak ez baziren "konpromisoa agertu behar zuten foru kontrataziotik bost urteren buruan euskara ikasteko".

36ko gerra, mikeleteen amaiera
Gerra hasi aurreko egunetan lau mikelete zeuden Elgetan, eta bi Kanpanzarko postuan. Errepublikaren alde egin zuten mikelete gehienek, eta une har-

tan garrantzi handia hartu zuen Elgetako postuak. Frontea ezarri zenean, Eduardo Urtizbera komandante mikeletea jarri zuten Elgetako sektoreko buru.

1937ko udaberriko erasoak hasi bitartean, eutsi egin zioten. Urtizbera, orduan, arku-etxe mikeleteen kuartelean kokatu zuen agente-postua, baina leihotik sartutako obus batek larri zauritu zuen, eta maiatzaren 4an hil zen, Bilbon.

Herria bonbardatu ostean, 1937ko apirilaren 24an hartu zuten postua frankistek, eta



Mikeleteak Elgetako kuartela zen Kataian. T. JAUREGI - BERGARAKO UDAL ARTXIBOA

Elgetako kuartela, arku-etxean

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1928an erosi zuen Elgetako arku-etxea. Bertan kokatu zen, urteetan, foru-kuartela, eta eraikina *Kataia* izenez egingo zen ezaguna. Mikeleteek kate bat gurutzatzen zuten errepide gainean. Helburua zen dagokion zerga ordaindu ezean salgairik, gurdirik edo ibilgailurik ez pasatzea probintzia arteko muga zen igarobide horretatik. Aurrezki Kutxa Probintzialaren bulegoa eta telefono bulegoa ere hartu zituen arku-etxeak urteetan. Telefono zenbakia zen: 14-277.

Gaur egun, oraindik ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa da arku-etxea, eta Elgetako Udalarri lagata dauka haren erabilera. 1986an onartu zen lehenengoz eraikina Udalarri uzteko erabakia. Ordutik hona, hamar urtean behin berritzen den akordio-kontratu batek zinpetzen du lagapena.

eraikina tropa mairuen zaintzapean geratu zen. Gainerako soldadu guztiek bezala, bizirik irtendako mikeleteek ihes egin zuten. Horrela desagertu zen Gipuzkoatik sasoi hartako Mikelete Taldea. Francok abuztuan desegin zuen unitatea ofizialki.

ELGETA PROBINTZIA ARTEKO MUGA IZANIK, ARKU-ETXEA ORDAINPEKO IGAROBIDE IZAN ZEN

Kanpanzarko postua

1919ko agiriekin diote Kanpanzarren bazela mikelete postu bat. Eugenio Legaristi zen arduraduna. "Legaristik eta haren emazteak oinarrizko hezkuntza eman zieten Elgetako eta Arrasateko 55 bat neska-mutikori. Hamasei bat ikasle hartzen zituzten zaintza postuko gela txiki batean. Eskola mistoa zen, eta gauetan zein domeketan alfabetatu gabeko helduei ere eskolak ematen zizkieten", azaltzen du Cabanellasek.



NIRE USTEZ

IKER IRAZABAL ARANTZETA

Herrigintzaz

Gehiegitan gertatu da herri honetan ekintza edo ekitaldi batera joaterakoan *tronpeta* nork jotzen duen begiratzea eta ez ekintzarekin ados gauden edo ekitaldia gustuko izan dezakegun.

Gehiegitan *herrigintza* kontzeptua darabilgunean desberdinen arteko batura beharrean besteak gure erretenera ekartzeko asmoa daukagu buruan.

Gehiegitan mantentzen gara bakoitza gure lubakian burua altxatzeko intentzio barik pertsona eta pentsamolde desberdinei bizkarra emanda.

Gehiegitan egin dugu eztabaida arrazoia edukitzeko beharretik.

Gehiegitan aurreiritziekin osatzen dute ezezagunaren irudia.

Gutxiegitan egiten dugu bestearen lekuan jarri eta bere ikuspegia ulertzeko esfortzurik edo enpatia lantzeko ariketarik.

Herrigintza izango bada, eredu zaharrak desikastetik etorriko da, eredu berriei atea irekitzetik, bestearengandik gauzak ikasi ditzakegun konbentzimendutik, eredu aldatzeko batera norbera ere aldatzeko prest egoteko asmotik.

OHARRAK

Plastiko bilketa

Baserrian sortutako plastiko bilketa martitzenean izango da, hilak 23. Eskatera egiteko, deitu 943 76 25 47 zenbakira. Apirilean ez da zerbitzurik egongo.

Garbigune ibiltaria

Mankomunitateak eguaztenean ipiniko du garbigunea Salvador kalean, 10:00etatik 21:00etara.



Juan Valls musikari oñatiarra. J.V.

Hiru oñatiar izango ditu ondoan Valls-ek Beratun

Juan Valls oñatiarrak talde formatuan joko du zapatu arratsaldean, Santa Anan, eta Kataluniatik etorriko diren bi musikari ere izango dira kontzertu horretan. Domekan, Verde Pratos-ek gaztetxean joko du, eta hura entzuteko sarrerak agortuta daude

Oihana Elortza OÑATI

Egungo egoera ez da erabat normala, baina bai joan den urtekoa baino hobea, eta bere jatorrizko sasoiaren izango da aurtengo Beratun musika jaialdia. Asteburu honetan egingo da, eta joko duten musikarien artean etxeko bat ere bada, Juan Valls.

Ugarte, Marco eta Etxaniz

Pozik dago Valls. Pozik, eta egingo duen emanaldia nola aterako den ikusteko gogoz, taldearekin joko du eta. "Bakarlarari ibili naiz urte askoan, baina, duela hiru bat urte, bide hori uztea eta beste bat probatzea erabaki nuen. Hirukotean ere jo izan dut harrezkero, baina, asteburu honetan, Beratun, taldearekin joko dut".

Taldeakideak, baina, oso gertukoak ditu Vallsek, eta musikan esperientzia handia dute: Iñigo Ugarte (gitarra), Ander Etxaniz (baxua) eta Mikel Marco (bateria). "Ugarterekin egin ditut kontzertuak aurretik ere. Mar-

co duela urte pare bat-edo gehitu zitzaigun, eta duela urtebete eskas, Etxaniz; kuadrillakoa dut Etxaniz. Ondo ulertzen dugu elkar, eta deseaten nago kontzertua egiteko, gozatu egingo dugula iruditzen zait eta". Formatua ez ezik, abestiak eta musika estiloa ere berriak ekarriko ditu artista oñatiarrak. Rock estilo handiagoa dute kantu berri hauek; berak egin ditu letrak eta kantuen konposaketak.

Dokumental batekin hasi

Kataluniako Anna Andreu musikariarekin batera joko du Vallsek zapatuan, Santa Anan, 18:30ean: "Sekulako ilusioa egiten dit hara joateak. Pena handia dugu, joan-etorri azkarra

AITOR ETXEBARRIAK SANTA ANAN JOKO DU, AZKENEAN, ETA SARRERA GEHIAGO DAUDE SALGAI

egin beharko dugulako; kontzertua dugu bezperan San Cugatén, eta biharamunean, Bartzelonan beste bat". Marina Arrufat musikariarekin etorriko da Andreu.

Beratu jaialdia, baina, bihar, egubakoitza, hasiko da: *Markak*, Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena oroitzeko Hannot Mintegiak zuzendutako dokumentala, batetik, eta Iparraldeko Habian hari eta hots hirukotea, bestetik. Santa Anan izango dira, 18:00etan.

Aitor Etxebarriaren kontzertua antzokira aldatu dute antolatzaileek Lazarragatik, entzule gehiago sartzeko direlako han, eta eguraldiaren aurreikuspena zein den ikusita. Beraz, hasierako sarrerak berehala agortu baziren ere, sarrera gehiago daude orain salgai, ohiko tokietan. 13:00etan izango da kontzertu hori, eta 18:00etan, gaztetxean, Verde Prato, Ana Arsuagaren proiektua, musika eta pintura moduko diziplinetan zehar dabilen artista.

Eskatu daitezke gazteen emantzipaziorako laguntzak

18 eta 35 urte bitarteko gazteendako dirulaguntza da, alokairua ordaintzeko; 65.000 euro bideratuko dira

O.E. OÑATI

Joan den urtean baino 15.000 euro gehiago, 65.000 euro, bideratuko dira aurtengo gazteen emantzipaziorako. 18 eta 35 urte artekoek eskatu ahal izango dute, alokairurako. Etxebizitza Oñatin egon behar da eta bizigarritasun baimena izan behar du. Urtebeteko kontratua izan behar dute gazteek, eta urtebeteko dirulaguntza izango da; 250 euro jaso ahal izango dituzte hilean, gehienez. Eskaerak egiteko epea zabalik dago eta HAZ bulegora joanda bete daitezke orriak.

Aurtengo, gainera, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzetara aurkeztu beharreko orriak ere Oñatiko Udalaren bitartez tramitatu daitezke. "Bakoitzaren egoera ikusita aztertuko da, gero, zein laguntza eskatzea datorkion ondo gazte bakoitzari. Emantzipaziorako dirulaguntza bermatzea da, azken finean, gura duguna", dio Iker Oñatek, Gazteria zinegotziak. Jaurlaritzari egingo zaizkion eskaeren orriak Udaletik bidaliko dituzte Gasteizera, gazteari esanda.

Martutenera irteera egingo dute zapatuan, Arregi gogoan

Joseba Arregik 75 urte beteko ditu hilaren 27an eta haren egoera eta etxeko bizipenak azaltzeko tertulia egingo dute senitartekoekin bihar, 20:00etan, gaztetxean. Zapatuan, berriz, Martutenera egingo dute irteera; 08:30ean Bizipozen bizikletan edo 10:30ean Eltzian autoz joateko. Arregik 29 urte beteko ditu aurtengo espertxean.

Igerilekuak eta gimnasioa martxan dira berriz

Garbitasuneko langileek greba egin dute azken hiru egun hauetan, eta, ondorioz, ezin izan dira igerilekuak eta gimnasioa erabili. Baina bihartik aurrera zabalik izango dira berriz. Igerilekuetako erreserba sistema ere indarrean dago, eta <https://zubikoakiroldegia.oñati.eus> helbidean sartuta har daitezke kaleak.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Gorria

Gorriak ikusi dituzte askok azkeneko urtebetean bizitza eta osasuna mantentzeko borrokan, eta horietatik asko izan dira borroka galdu dutenak. Beste batzuei arimarik ez, baina kolorea daukaten zenbakiek hartu diete gorriaren tonalitate guztiak. Tabernak itxiarazi eta kirola taldeetan egitea galarazten zigan eremu gorria ezagutu dugu, epaile batek erabaki zuen arte gorriak eta beste edozein koloretako edariak tabernetan edateak ez zuela eragiten herriei ematen zitzaizkien koloreen. Bitartean, gorria den planetara iritsi dira gizakiok eraikitako tramankuluak, noizbait lurrean bizitzeko argi gorriak pizten badira balizko ihesbide izan ote daitekeen aztertzeraz.

Eguzkia urrutiegi, ordea, Marten. Eguzkiaren berotasuna gertuago sentitu nahi dugu eta berotasun horri esker espero dut gorri-gorri ikustea orain ereindako haziek emango dituzten fruituak. Eta ez dut esperantza galduko ordurako herri honetako kirol taldeen gorria ikusteko hango eta hemengo kirol-guneetan eta ezta ere orain ezkatututa dauden zuen ezpainen gorria ikusteko, eta sentitzeko.

Elkarren osagarri izango dira herriko jolasguneak

Estruktura altu eta garden batekin babestu dute euritik Ugarkaldeko jolasgunea, eta hurrengo lana San Martingoan egingo dute. Asmoa da gune bakoitzean aztertutako lanak edo konponketak egitea, herriko jolasguneak elkarren osagarri izan daitezen

Oihana Elortza OÑATI

2018ko aurrekontu parte-hartzaileetan bigarren proiektu bozkatuena izan zen hori. 2020an ziren egitekoak, baina 2021aren lehen hiruhilekoan burutu dituzte estaltze lanak. Kokapena ikusita, proiektua definitzeko lana luzatu gura izan dute, tokiara propio egokitutako diseinu egokia lantzeko. "Aisialdirako gune bat da, jendea eguzkitan goxo egoten den toki bat, baina, era berean, euritik babestu gura dena", azaldu du alkateak, Izaro Elorzak.

Argiteria estruktura barruan

Eta hori guztia kontuan hartuta diseinatu dute proiektua: "Taperstudio-rekin jarri ginen harremanetan. Ingurua aztertu genuen eta hauxe proposatu ziguten. Altura handia duen estruktura bat da, eta gardenak; hau da, eguzkia sartu bai, baina, era berean, euritik babesten gaituena. Altuera honek ematen diguna da haizea ere ondo banatzea, bero egiten duen eguntan berotegi efektua murrizteko. Uste dut proiektuak betetzen dituela guk jasota genituen puntuak, eta gustura gaude eginda-koarekin".

Taperstudiok egin du proiektuaren diseinua eta obren zu-



Izaro Elorza eta Anik Zubizarreta, astelehenean, Ugarkaldeko ziburuetan. O.E.

zendaritza; exekuzioa, Carpas Zaragozak. Aurrekontua 144.000 euro izan da, BEZA barne.

Hasierako asmoa ez bazen ere, azkenean, argiteria jarri dute. Hamabi LED foku daude estruktura barruan. Argiteria publikoarekin batera funtzionatuko dute orain, hasieran, baina asmoa da, gero, pizteko eta itzaltzeko programatzea, gau osoan piztuta egon ez daitezen.

San Martingo itsasontzia

Ugarkaldekoan bezala, Errekaldeko jolaslekuan ere aldaketak

egin dituzte azken urtean; zaharrak kendu eta sokak dituen kupula bat jarri dute han. Asmoa da, poliki-poliki, herriko jolasgune guztiak konpondu beharra izan ahala, adin edo jolas mota diferente batera egokitzea eta guztiak bata bestearen osagarri izatea. Hurrengo esku-sartzea San Martin auzoko gunean egingo dute; itsasontzi forma duen jolas elementua berrituko dute; 15.000 euro daude aurrekontuetan gordeta horretarako. Herriko jolasguneen mantentze-lanak 30.000 bat euro izaten dira urtean.

"Espazio komunik ez dago eta guk elkarlaguntza behar dugu"

KOLDO TELLERIA ANDUEZA IRAKASLEA

Hilaren 24ko hirigintza-hitzaldian hartuko du parte

O.E. OÑATI

Megahirien garaian, hirirako eskubidea eta pertsonengan oinarritutako hirigintza hitzaldia egongo da eguaztenean, Santa Anan, 18:30ean, Oñatiko EH Bilduk antolatuta. Han izango da, Amaia Alvarezekin batera, Dunak taldeko Koldo Telleria. Iker Eizagirre –Hiritik At kooperatibako kidea– eta Unai Fernandez de Betoño –arkitektoa eta legebiltzarkidea– izango dira beste gonbidatuak.

Pertsonengan oinarritutako hirigintza. Zertan oinarritutakoa egin da orain arte?

Gizartearen garapen ekonomikoa egon da erdigunean orain arte. 1930eko industrializazioak hiriak makinak bezala eraikitzea ekarri zuen, gizonezko zuri aberatsa erdigunean zuena. Baina ez dira kontuan hartu zaintza lanak, ingurugiroa, osasuna eta halako arloak.

Ez-ekonomikoak gura duzu esan?

Harremanak, konfiantza kolektiboak eta halako balioak behar ditugu. Feminismotik egindako ekarpena izan da, adibidez, orain arte beti emakumeen gain egon diren lanak egiteko, zaintza edo erosketak, esaterako, oso desproporzionalizatuta daudela kaleak, %80 bat autoendako eta %20 bakarrik oinezkoendako. Berdinuagoa egon beharko luke aldeak, orain arteko rolap paretiduz eta lantegira zein zaintza lanak egitera doanek erosotasun berak izan ditzan.

Horrela ikusten duzu Oñati ere?



Koldo Telleria Andueza. K.T.A.

Hirietako erdiguneetan bereziki zaindu behar da hori. Oñatin, esaterako, herri barruan ibiltzeko ez da autorik behar, oinez ondo molda zaitezke.

Gauza bera gertatzen da etxebizitzetan ere?

Etxeak handiak izan daitezke, baina atariak eta inguruak oso estuak dira, adibidez. Gaur egun, ez dago espazio komunik eta pertsonok elkarlaguntza behar dugu, eta, hirigintzatik ikusita, ezagutzen dugun eredu orokor honek ez du zentzurik. Badaude adibideak, hala ere, etxebizitza kooperatibetan, esaterako.

Noiz hasiko da hau guztia aplikatzen?

Hirigintza legea da; 1980ko hamarkadan irisgarritasun legea sartu zen eta ordutik ari dira kaleak moldatzen. Orain, generoaren, hizkuntzaren, ingurugiroaren azterketa egiteko eskaera ari da zabaltzen.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Ezkerretik eskuinera, Endika Ruiz, Ioritz Agiriano eta Aitor Ugarte, kirol taldeetako entrenatzaileak. MIREIA BIKUÑA

Herriko hiru kirol ezberdinek bat egin dute erabaki bakarrean

Osasun egoera zertxobait hobetu eta ligari berrekiteko unea iritsi arren, jokatzeari uko egitea erabaki dute herriko eskubalo, saskibalo eta futbol talde gorenak. Talde horietako entrenatzaileekin izan da GOIENA, erabakia nola hartu duten jasotzeko

Maialen Santos OÑATI

Urteko sasoi honetan, asteburuetan ligako norgehiagokak jokatzeko beharko lukete Oñatiko Aloña Mendi klubeko talde nagusiek. Osasun krisiak, baina, kirol txapelketa oro etetera behartu zituen taldeak, eta, hilabete batzuk geroago, egoerak zertxobait hobera egin duenean, liga jokatzeari uko egin diote eskubaloiko, saskibaloiko eta futboleko talde gorenak.

Oñatiko egoera salbuespeneko da; izan ere, Gipuzkoan ez dago hiru kirol horietan erabakian bat etorri eta txapelketa ez jokatzearen aldeko hautua egin duen beste klubik.

Ildo horretatik, herriko hiru kirol horietako talde nagusietako entrenatzaileekin izan da GOIENA, egoera nola bizi duten galdetu eta erabakiaren nondik norakoak jasotzeko.

IORITZ AGIRIANO

ESKUBALOIKO ENTRENATZAILEA

"Bizpahiruk erakutsi zuten jokatzeko gogo; ez zuten erabakia ulertzen"

Eskubaloiak kategoria gorenean dituen bi ordezkariak, gizonetako eta emakumezkoak, erabaki dute aurtengo ligari ez berrekitea: Fagor Industrial-Aloña Mendik eta Construcciones Aloña Mendik.

Gizonetako taldeko entrenatzaile Ioritz Agiriano adierazi du "erabaki zaila" izan zela, baina, era berean, "hartu beharrekoa". Eta gehitu du denboraldia hasiera "xelebrea" izan zutela, jokalarien artean izandako positibo bat tarteko. Gero, konfinatuta ere egon ziren taldekide batzuk, eta horrek ere

izan du eraginik azken erabaki horretan.

Jokalaria ia guztiak ados azaldu ziren txapelketa bertan behar uztearekin: "Egia da bizpahiruk erakutsi zutela jokatzeko gogo; ez zuten erabakia ulertzen.

Halere, eurekin berba eginda, ulertu egin zuten egoera".

Horrek ekar ditzakeen ondorioei buruz galdetuta, Agiriano azaldu du Eskubalo Federazioaren menpe dagoela txapelketa, eta egun ez dutela argi zein diren izan ditzaketen ondorioak. Edozelan ere, "denboraldia galdutzat" eman dute eskubaloiko gizonetakoak.

AITOR UGARTE

SASKIBALOIKO ENTRENATZAILEA

"Ez dugu isunik edo maila jaitsierarik izango, kirola izango da galtzaile bakarra"

Mekalki-Aloña Mendi taldeak aho batez erabaki zuen aurtengo denboraldia ez jokatzeko, eta jokalariekin bilera egin zuten horretarako. "Konfinamenduak

saihestea izan da arrazoi nagusia, osasun zein lehiaketa aldetik bermerik ez genuelako". aitortu du Aitor Ugartek, taldeko entrenatzaileak. Are gehiago, uste du jokalaria bakoitzaren egoera pertsonalak sostengatzen duela erabakia: "Bakoitzak bere bizitza du: lanean, familiari dagokionez... eta osasunean pentsatzeko unea da orain".

Euren kasuan, Federazioak taldeei eman zien jokatu ala ez erabakitzeko aukera, hautuaren arabera ondorioz barik: "Ezezkoa eman duten taldeek ez dute isunik izango, ez eta maila jaitsierarik izango. Beraz, ez du inork galduko; kirola izango da galtzaile bakarra".

"Une honetan ez gara entrenatzen ari, datuei erreparatuta aste txarrak pasa ditugulako Oñatin. Hala eta guztiz ere, aurrerantzean ikusiko dugu entrenamenduak nola egin: baloierekin erritmoa hartu zein teknika indibidualak lantzeko", zehaztu du Ugartek.

ENDIKA RUIZ

FUTBOLEKO ENTRENATZAILEA

"Gozamena eta sufrimendua parez pare jarrita, ez dakit irabazlea zein den"

Futbolean, Ohorezko Erregional Mailan ere guztien arteko erabakia izan zen txapelketari uko egitearena. Endika Ruiz entrenatzailearen hitzetan, txapelketa jokatzeko "ilusioa" zuten guztiek, baina errealtateak eraman zituen erabakia hartzerara: "Aurtengo kategoria berreskuratuta, penaz hartu zuten erabakia. Igoeratik geroztan lanean hastean, eta kategoria berrian lehiatzeko gogo genuen". Hala ere, adierazi du lehen hilabeteak gogorrak izan zirela, entrenatzen ari ziren arren baldintzek eta egunerokotasuneko arazoek ez zutelako laguntzen. "Gozamena eta sufrimendua parez pare jarrita, ez dakit zein den irabazlea", aitortu du.

Federazioaren aldetik zigorrik jaso ez izateak "lasaitasuna" dakarkio Ruizi, eta dio, besterik barik, boluntario den lehiaketa bati uko egin diotela.

Entrenatzeari ez diote guztiz utzi, eta bakoitza bere kontura ari da: bizikletan, korrika, mendian... Edozein modutan, Azkoain itzultzeko gogoz daude.

Denboraldi berrirako itxaropentsu

Aurtengo denboraldia galdutzat eman eta hurrengo denboraldira begira jarrita daude taldeak, "hobea" izango delakoan.

Ioritz Agiriano azaldu du egoerak nabarmen hobera egin dezan espero duela: "Nahiz eta irailean nola egongo garen jakitea oraindik ezinezkoa den". Hala, egoeraren eboluzioari erreparatuta hartuko dituzte aurrera begirako erabakiak, eskubaloien kasuan.

Aitor Ugartek uste du txertoak berri onak ekarriko dituela irailera begira. "Bi urte dira mailaz igo ginenetik, eta ordutik, ezin izan dugu denboraldi oso bat jokatu", gehitu du.

Endika Ruizek hurrengo denboraldi-aurrera "ahalik eta ondoen" iristea du helburu: "Orain ezin badugu jokatu, hurrengorako prestatu beharko dugu".

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU

ASTE SANTUAN BERTATIK BERTARA EZAGUTU DEBAGOIENA

'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOAN

MARTITZENETIK EGUBAKOITZERA, 18:00 / 20:00 / 22:00



goiena[™]

Zu hemen zaude.

"Gola ez da ezinbesteko partidu borobila egiteko"

JULEN ZAITEGI ARETXABALETAKO JOKALARIA

FUTBOLA Jardunaldiko protagonista bilakatu da, derbian Mondrari lau gol sartu eta gero. UDAko aurrelari arrasatearra gozatzen dabil Aretxabaletan

Xabier Urzelai ARRASATE

Julen Zaitegik (Arrasate, 1985) pasioz bizi du futbola. Bestela, ezin da ulertu eskuin belauna birritan apurtu ondoren –lotailu gurutzatua birritan eta meniskoa behin– futboleko jokatzeko jarraitzea. Dagoeneko kategoriako beterano bilakatu da, eta beste patxada batekin bizi du dena, baita herrikideei, arrasatearrei, lau gol sartuta derbia irabazi izana ere (5-0). Aste normala egin du, nahiz eta zorion mezuek eta adar-jotzek betetakoa izan den. Lau zutabeko elkarriketa duzue hau, gol bakoitzeko bat.

Ez dut gogoan Ohorezko Erregionalan, Debagoieneko derbi batean, jokalariek lau gol sartu izana...

Ez, nik ere ez, egia esan.

Eta bosgarrena egiteko aukera izan zenuen, baina taldekide bati, Martin Azurmendiri, eman zenien penaltia jaurtitzeko aukera. Bost egitea zenbaterako borobila izango zatekeen...

Bai, hori ere esan didate, aukera ederra galdu nuela bost gol sartzeko. Beno, ez nion aparteko garrantzirik eman; kontua ez da nik zenbat gol sartzen ditudan, baizik eta taldeak zer egiten duen. Sartu nituen lau golak ere taldekideei esker izan ziren, ondo defendatu genuelako,



Julen Zaitegi, zapatuan, Ibarran sartutako goletako bat ospatzen. JOKIN BEREZIARTUA

jokaldia ondo hasi genuelako, erdiraketa on bat egin zutelako... Denon meritua izan zen.

Aitor ezazu: eskuzabaltasuna izan zen ala Mondrari bosgarrena sartzeko bertigo apur bat eman zizun? [Barre] Ez pentsa, lau sartzeko ere nahiko bertigo ematen du. **Lastima Ibarrako harmailak hutsik egotea, zuzendaritzeko ordezkaririk baino ez zeuden han. Jendearen berotasunarekin derbiek beste kolore bat dute.**

Bai, ez dago zalantzarik, giro oso polita egoten da derbietan. Baina, auskalo... Akaso, jendea

egon izan balitz harmailetan, ez nituen lau gol sartuko.

Denboraldi amaieran futbola uzteko tentaldia bazenuen... kolpean uxatuko zenuen ideia, ala?

Ez diot biharkoari horrenbeste erreparatzen. Ez dakit datorren denboraldian zer egingo dudana, oraingoaz gozatzen ahalegintzen naiz. Azken urteotan urtez urte hartzen ditut halako erabakiak; ikusiko dugu...

Eta non dago sekretua? Izan ere, aurtengo 36 urte egin behar dituzu, eta, azken partiduak ikusita, bigarren gatzaroan zaudela dirudi.

Ondo sentitzen naiz, egia esan. Azken boladan egia da gehiago zaintzen nabilela. Etxean nutrizionista daukat eta horrek elikadurari dagokionez beti laguntzen du [Barre]. Nahiz eta ez naizen gauzak muturrera eramaten dituen horietakoa. Baina egia da iazko udaberriko itxialdian etxean ariketak egiten hasi nintzela, luzapenak... Eta ohitura horri eutsi egin diot, lehen baino gehiago zaintzen naiz, eta igartzen nabil alde. Lastima lehenago hasi ez izana [Barre].

Ohitura on horiek gaztetan izan bazenu, akaso, goragoko kategorietan erreferentziatzeko aurrelari bat izango genuke.

Ez dakit gehiago zaindu izan banintz ze ibilbide egingo nukeen futboleko, baina bai, beti gertatuko zait zalantza hori.

Jokatu duzun partidu gogoangarriena izan da?

Ez pentsa, ez nintzen sentsazio horrekin geratu. Hau da, aurrelari batendako golak garrantzitsuak dira, baina baditut gogoan beste partidu batzuk askoz hobeto ibili naizena, eta, akaso, ez dut golik sartu. Baina ni moduko aurrelari bati eskatzen zaion hori egin izanaren sentsazioa izan dut beste partidu batzuetan. Golik ez sartu arren, halako partiduek izugarri asetzen zaituzte. Gola ez da ezinbesteko partidu borobila egiteko.

Gogoan dut Unbera joan izana zu Eibarrekin jokatzeko ikustera. Orduetik hona, denbora luzea pasa da. Ze ibilbide egin duzu futboleko?

Realean hasi nintzen futboleko, eta kadete mailara arte jokatu nuen. Ondoren, Mondrara etorri nintzen, eta gazte mailan Eibarreko joan nintzen. Eibarrekin izan nuen Hirugarren Mailan debuta egiteko aukera, bi urtez

jokatu nuen han, eta ondoren etorri ziren Cultural de Durango, Leioa, Amurrio, Lagun Onak... Azpeitian sei hilabete baino ez nituen egin, eta Mondrara etorri nintzen orduan.

Garbi zenuen Mondrara etorri behar zenuela?

Bai; arrasatearra naiz, anaia ere Mondrako klubean zebilen... Garbi neukan han jokatu behar nuela. Ez nuen zalantzarik izan.

Eta UDARA joateko erabakia hartu zenuen 29 urterekin.

Bai; ez nekien zenbat urte gertatzen zitzaizkidan futboleko, baina uste nuen nire ezaugarrienatik UDAn zoriontsuago izan behar nuela. Bizitzera ere Aretxabaletara etorri nintzen, eta erabaki zaila izan zen, baina ez naiz damutzen.

Azken urtean Arrasatera itzuli zara bizitzera; kontrako bidea egitea pasa zaizu burutik?

[Barre] Ez, ez... Egia esan, oso gustura nago Aretxabaletan eta urte hauetan oso ondo portatu dira nirekin.

Jokalariek beterano zarenen enpatia gehiago izaten da entrenatzaileekin?

Zalantza barik; hori ere ikasi egiten da. Entrenatzaileekin, taldekideekin, epaileekin, kontrarioekin... Konturatzen zara futbolera ez zatozela jendearekin haserretzera. Hogeita bi lagun gara taldean, eta ez bazaude amaikakoan galdetu zeure buruari zergatik den, eta saiatu zaitzez hori aldatzeko lan egiten.

"MONDRATIK UDA-RA JOATEA EZ ZEN ERABAKI ERRAZA IZAN, BAINA EZ NAIZ DAMUTZEN"

Aloñako Igoera udazkenean egiteko esperantza dute

MENDI LASTERKETAK Antolatzaileek ez dute amorerik eman eta urriaren 17an egin nahi dute 2021eko edizioa

Xabier Urzelai ARRASATE

Joan den asteko GOIENA aldizkarian, Aloñako Igoerako antolatzaileek aitortu zuten zail ikusten zutela apirilean Aloñako Igoera normaltasunez egin ahal izatea, eta Arrasate-Udala

txeko antolatzaileek proba bertan behera uzteko erabakiak azkartu egin du oñatiarren erabakia: ez da lasterketarik izango; udaberriaren ez, behintzat.

Txantxikuek, baina, ez dute amorerik eman, eta, iaz egin

zuten moduan, urrira atzeratu dute lasterketa eguna: urriaren 17ra, hain zuzen. "Urtebete igaro da eta COVID-19 delako birusak gurekin jarraitzen du. Egoera zein den ikusirik, aurtengo Aloñako Igoera ohiko datan ez egitea erabaki dugu. Baina aurtengo ere ez dugu etsiko, eta, egoera hobetu egingo delakoan, 2021ean Aloñako Igoera egingo dugula sinetsi gura dugu", adierazi dute sare sozialetan.

Izan ere, antolatzaileen itxaropena da, batetik, pandemiaren



Lasterketa hasierako irudia. GOIENA

egoerak udazkeneako hobera egitea eta, horrekin batera, kirol probetako antolatzaileek halako probak antolatu behar dituztenean garbi izatea zein den jarraitu beharreko ibilbide orria. "Izan ere, hori da arazo handienetako bat. Antolatzaile batzuk badabilta hau eta beste antolatzen, baina ziurgabetasun handiarekin, inork ez digu esaten zer den egin dezakeguna, eta zelan egin behar den hori. Ea hori argitzen diguten", adierazi dute antolatzaileek.

Fase berrian, bailarakoak igoera gosez daude

Debagoieneko areto futbol taldeek igoera faseak hasiko dituzte. Eskoriatzak Bigarren B Mailara igotzeko zortzi jardunaldiko lehiaketa du aurretik. Mondratek eta UDA Aretxabaletak, berriz, Maila Nazionalera salto egitea dute helburu

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Maila Nazionalen ari den Eskoriatza areto futbol taldea Bigarren B Mailara salto egiteko igoera fasea jokatzen hasiko da asteburu honetan. Zortzi jardunaldiko lehiaketa izango dute aurretik, eta asteburuan izango dute lehenengo lehia, etxetik kanpora. Hain zuzen ere, Pasaia Afantxo Pescados Ferreres taldea izango dute aurkari, 18:00etan.

Igoera fasera begira, asteburu honetako Afantxo Pescados Ferreres taldeaz gain, Antiguoko, Alipendi Zalditxo Araia eta Mahastiak Labastida taldeak izango dira eskoriatzarren multzo berean. Iker Molinaren mutilak ondo prestatuta daude igoera fasea hasteko, eta horixe demostratu dute denboraldi osoan zehar. Orain arteko bidean 25 puntu batu dituzte, eta horiei ahal dituzten guztiak gehitu nahi dizkiete, fase honen amaieran ere lidergoa mantentzeko. Lesioen bat edo beste tarteko, taldea sendo dagoela adierazi du Aratz Kortazar Eskoriatza areto futbol taldeko kapitainak, eta beraien asmoa "partiduz partidu" joatea dela adierazi du, hankak lurrean dituztela. "Amets bat litzateke Bigarren B Mailara igotzea, baina, auke-



Eskoriatza areto futbol taldea, denboraldi honetako partidu batean. IMANOL SORIANO

raren bat izateko, lider bukatu behar dugu fase honetan, eta gero, etorriko den erronka berriari aurre egin".

Maila Nazionalera begira

Mondratek eta UDA Aretxabaletak ere igoera fasea jokatuko dute, baina Euskal Ligatik Maila Nazionalera igotzea izango

dute jokoan fase honetan. Mondrate liderra da 34 punturekin eta Jaixkiareto taldea bigarren postuan geratu da, 28 punturekin. Arrasatearrek lider amaitu duten arren, ezohiko moduan galdu zuten, azken jardunaldian, beraien atzetik amaitu duten Jaixkiareto lezoarren aurka. 3-0 irabazten joan arren, 3-4 galdu




ARATZ KORTAZAR
ESKORIATZAKO KAPITAINA

"Liderrak izaten jarraitu behar dugu"

"Fase hau izugarri zaila izango da. Zortzi jardunaldi ditugu Maila Nazionaleko beste multzoko lehenengo lau sailkatuen aurka. Joaneko eta itzulerako partiduak jokatu beharko ditugu, eta bigarren B Mailara pasa aurretik, bai edo bai sailkapeneko lehenengo postuan geratu behar dugu".


Batez bestekoa

"Gure mailan, beste multzokoak baino bi partidu gutxiago jokatu ditugu; beraz, berrikuntza gisa, batez besteko kalkulu bat eginda, puntuatze sistema berdindu egin dute; ulertzeko ez da samurra... Hala ere, horretan pentsatu barik, aurrera egin behar dugu".



OIER URRUTIA
UDA-KO KAPITAINA

"Kostata bada ere, lortu dugu fase berrirako txartela. Denboraldiaren hasieran ondo aritu ginen, baina larri samar aritu gara azkenaldian. Fase berrian ea nolako taldeak ditugun aurkari, eta ea igoera lortzen dugun".



JON ZABALA MONDRATEKO
ENTRENATZAILEA

"Gure helburua sailkapeneko lehenengo lau postuetan geratzea zen, eta lortu dugu; orain, bidea gure ametsa den Hirugarren Maila Nazionalera iristea da, eta gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu".

zuten sailkapeneko bigarrenaren aurka, baina, joan den asteburuan egindakoak ahaztuta, eta fase berriaren aurrean lidergoan izanda, bigarren faseari ekiteko gogoz daude.

Aretxabaletaren kasuan, berriz, laugarrenak dira sailkapenean, eta puntu berdinketa hirukoitza lortu dute (26) etapa berri honen

aurrean. Hain zuzen ere, Goierri, UDA eta Zirauntza taldeak daude berdinduta, eta hiru talde horietatik bik soilik jokatuko dute igoera: UDAk eta Zirauntzak.

Mondrateren eta UDAREN mailan, igoera fasean, sailkapenean geratzen diren lehen bi taldeak igoko dira Hirugarren Mailara. Hastear da erronka berria.

Barrainkuak eta Garaik erorikoa izan zuten Atarrabiako debutean

Jose Antonio Urdaniz 'Cachorna' lasterketan 23. postuan sailkatu zen Garazi Estevez aretxabaletarra

I.B. DEBAGOIENA

Laboral Kutxa taldeko Ainhize Barrainkua, Garazi Estevez eta Xubane Garai txirrindulariek debut gogorra izan dute UCI Women's Continental Tour mailan, Atarrabiako Jose Antonio

Urdaniz *Cachorna* lasterketan. Izan ere, Xubane Garaik eta Ainhize Barrainkuak erorikoa izan zuten, lasterketako beste hainbat parte-hartzailek bezala. Estevez, aldiz, 23. postuan sailkatu zen 23 urteko azpikoan

sailean, eta debuta "gogorra" izan dela adierazi du: "Sei gradu, euria, erritmo gogorra, errepidea ez zen egokia... Hala ere, helmugara aurreneko tropelean iristea lortu nuen. Xubane eta Ainhizek ez zuten egun ona izan, baina ez ziren eroriko larriak izan, eta hori pozteko albiste da", adierazi du Garazi Estevez txirrindulari aretxabaletarrak.

Hurrengo lasterketaren zain, hilaren 27an bilera eta kontzentrazioa izango dute Aretxabaletako txirrindulariek.



Atarrabiako lasterketan. MARTIN EARLY

Igoera jokatzeke lau partiduren faltan, atsedendia MUK

Mondragon Unibertsitateak garaipena lortu zuen joan den astean, Tabirako taldearen aurka (66-57). Zilarrezko LEB Mailara igotzeko fasea jokatzeke lau partida besterik ez da falta, baina asteburu honetan atsedendia izango dute. Hurrengo jardunaldian, berriz, Santurtziren aurka jokatuko dute, Iturripen.

"Kultura eta tradizioa mugitu egin behar dira"

BEÑAT RODRIGO 'KILIKI FRESKO' CHILL MAFIA TALDEKO KIDEA

Bergarako Ahaztu Barik taldeak antolatuta, Telesforo Monzon omentzeko 'Loreontzia berreraikiz' jaialdian izango da Nafarroako talde gaztea; sarrerak agortuta daude

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Hamaika adierazpide taularatu dituzte zapatuko jaialdian (Ikus 28. orria), klasikoak eta modernoak; lehengoak, egungoak eta etorkizunekoak; horien artean izango da Chill Mafia taldea. Orain dela bi urte sortutako Arrotxapeko taldea zeresana ematen ari da, Euskal Herrian ezohikoak diren musikarekin eta estetikarekin.

Gazte kuadrilla nafarraren begietatik ikusita, zer iruditzen zaizue Loreontzia berreraikiz ekitaldia?

Niri la ostia iruditzen zait, eta, are gehiago, ekitaldia nola planteatu duten ikusita. Deitu zigitenean, sekulako emozioa sortu zidan. Nolabait, erakusten du Euskal Herri osoari begira dardela eta ez dagoela adin zehatz bati begira eginga, gazteongan jartzen duela onespren hori; izan ere, gure herriaren geroa gara! **Onspena diozu; orain arte, hala-korik sentitu duzue rapa, reggaea eta reggaetona estiloetakoak euskaraz abesteagatik?**

Egia esan, bai; lauzpabost persona kenduta, orokorrean, euskal entzuleek oso ondo hartu gaituzte, eta eskertzekoa da. **Aurkeztu egiguzu zure kuadrilla. Musikaria zara zu, kontserbatorioan ikasten duzu. Arte eta bestelako sorkuntzetakoak ere badaude...**



Kiliki Fresko da Chill Mafia taldeko abeslarietako bat. TTAP ALDIZKARIA

Asko gara: ekoizleak, DJak, soinu teknikariak, grafitigileak, abeslariak... Parranda batean elkar ezagutu genuen eta entzuteaz gainera, musika ekoiztea erabaki genuen.

Euskal musikaren eszenan ezohikoak den estiloa eskaintzen duzue.

Kontua da ez genuela euskarazko erreferenterik; gaztelaraz eta ingelesez entzuten genuen, gehienbat, guk musika, eta behar genuena guk sortu genuen. Gaur egun, oso ondo sentitzen naiz zera esaten: euskal musika tradizionala egiten dugula, zeren

folklorearen hilda dagoen zerbait den bitartean tradizioa mugitzen doa, eta, beraz, gu sar gaitezke, nire ustez, tradizio horren barruan. Azken finean, adibidez, *Gazte arruntaren koplak* zortziko txikia da; ezberdintasuna da guk gitarra batekin egin beharrean ordenagailu batekin abesten dugula.

Zeresan handia sortu duzue egin duzuen kantuaren moldaketarekin.

Zergatik aukeratu zenuten hori? Era guztiz naturalean atera zen. Azken urtean, batez ere, *Flako Fonki*-k eta biok sekulako obse-

sioa izan genuen euskal musika tradizionalarekin: Oskorrirekin, Ez Dok Amairu taldearekin... *Flako*-k bere etxean Xabier Leteren *Kantatzera noazu* diskoa entzun zuen eta broma antzean egiten; konturatu orduko, *hit* bat genuen esku artean.

Batzuei gustatu zaie eta beste batzuek, berriz, gorrotatu egiten dute. Baina hori ona da! Ezin da arrakastarik izan, ez baduzu aldi berean *hater*-ik. Pozten nau jendeari erreakzio negatiboa sortu izanak, horrek erran nahi du erosotasun puntu batean zeudela batzuk eta handik atera ditugula.

Txalo ugari jaso dituzue gazteen partetik eta kritikatu duzuen euskal kultura establishment-etik ere bai. Horrek erakusten du euskal kultura *establishment* barruan kokoteraino zegoen jendea dagoela. Aitak askotan errieta egin izan dit -eta arrazoiak ematen diot- auzoko jaietako txosnagunean *Sarri Sarri* entzuten duela. Ados, egia da, oso kantu ona da, baina orain dela 40 urte sortutakoa. Kultura moldatu eta mugitu egin behar da, tradizioa mugitu egin behar da.

Orokorrean, atzera begira jarraitzen dugula uste duzue?

Dena dela, ez dago gaizki atzera begiratzea, guk ere hala egiten dugu, baina aurrera egiteko.

Probokatzera zen zuen helburua ala probokaziotzat hartu da?

Helburua disko ona egitea zen, eta lortu dugu. Probokatzailak izan gara, baina, nire ustez, horrela garelako era naturalean. Jende asko harritu duena da *Gazte arruntaren koplak* gazte batzuek abestea eta, gainera, dauzkagun *barrio*-ko itxurekin. **Zerk eman du min handiagoa, moldatutako hitzek ala zuen janzkerak?**

Ba, ez dakit, harritu direnei galdetu beharko genieke.

Kebabari kantu bat eskaini diozue. Zerk bideratzen zaituzte halako kantuak egitera?

Gure egunerokotasunak. Historian zehar ez dago guztiz iraultzailea den ezer; adibidez, Monzonen hitzak iraultzaileak ziren bere garaian, baina, egun, politikoki interesgarriagoa da gure errealitateari buruz jardutea.

Aberasgarria izan da zuen kantuen bueltan sortu den euskal kulturari buruzko eztabaida, ezta?

Duda barik! Gure erakarpen artistikoena, diskoa baino gehiago, arlo askotan sortu diren auziak izan direla esango nuke: genero auzian, klase auzian, herrigintzaren barne sortu diren eztabaidak... Orain arte gertatzen ez zirenak baina izan behar dutenak.

Irudiari garrantzi handiegia?

Baliteke, baina irudia inportantea da; moda espresatzeko beste modu bat da.

Txandal-zaleak zarete eta, bereziki, Astore markako txandalak oso gustuko dituzuela diozue. Bergara bidean Arrasaten geldialdia egingo duzue berriak jasotzeko?

Dagoeneko bidali dizkigute batzuk. Astoreko *community manager*-ak idatzi eta ondoren bidali zizkigun.

Zelako kontzertua izango da?

Hogei minutuko emanaldia egingo du bakoitzak, ez da ohikoa izango; bide batez, aurreratuko dugu udaberriaren Bergarako gaztetxean izango garela.

"PROBOKATZAILEAK IZAN GARA, BAINA, NIRE USTEZ, HORRELA GARELAKO ERA NATURALEAN"

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU

IDOIA ASURMENDI

GAZTELUPE GUNEKO (ARIZMENDI) IKASLEEK
MUSIKARIARI EGINDAKO ELKARRIZKETA
JOKIN BEREZIARTUAK GIDATUTAKO 'GALDEGAZTE' SAIOAN
MARTXOAREN 24AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

"Niretzat opari bat da musikari izatea; pasioa da eskatu ahal zaigun gutxienekoa"



goiena
Zu hemen zaude.



Konpost taldeko kideak; tartean, Txerra Bolinaga arrasatearra —ezkerretik eskuinera, hirugarrena—. KONPOST

Agertokietara itzulera, lan berria aurkezteko

Konpost musika taldeak joan den asteburuan aurkeztu zuen taldearen izen bera daraman lehen lana, Jimmy Jazz aretoan eskainitako kontzertuan. Gasteizko taldeko kideetako bat da Txerra Bolinaga arrasatearra, RIP taldeko bateria-jotzaile ohia

Maialen Santos ARRASATE

2018an sortu zuten Konpost taldea Ruben Sanchezek (ahotsa eta perkusioak), Jon Aranburuk (gitarrak, mandolina, perkusioak, ahotsak), Bingen Mendizabalek (zazpi sokako biolina) eta Txerra Bolinagak (bateria, ahotsak). Ia hiru urte geroago, 2021eko martxoan, kaleratu dute taldearen izen bera daraman lana.

Ibilbideak elkartuta

Taldekideek lehendik ezagutzen zuten elkar; izan ere, beste hainbat proiektutan ibilitakoak dira denak, eta "aurrekoetatik hartutakotik" lan berria egin nahi izan dutela aitortu du Txerra Bolinaga arrasatearra.

Joseba B. Lenoirren laguntzaz ekoiztu dute hamar kanta dituen lana, eta Erraiak diskoetxearekin kaleratu dute. Adierazi duenez, post folk eta post pop musikan oinarritutako diskoa sortu dute. Arlo ugari jorratzen dituzte Ruben Sanchezek sortutako letretan: badira bi kanta

iraganaz hitz egiten dutenak, eta blues ukitua dute. Kanta eszeptikoak eta distopikoak eta eroagoak ere badaude, eta baita maitasunari eta sexuari kantatzen diotenak, eta Gasteiz alternatiboari edo lan ez egiteari kantatzen diotenak ere. Horretaz gain, hip-hopera eta reggaera edo skara hurbiltzen denik ere bada diskoan.

Grabaketa, "prozesu luzea"

"2019an hasi ginen diskoa grabatzen, baina, gitarra-joleak izandako istripu bat medio, gelditu egin behar izan genuen", aitortu du arrasatearra. Hori gutxi balitz, lanari berrekin eta gutxira iritsi zen koronabirusaren pandemia, eta horrek berri-

HAMAR KANTUZ OSATUTAKO LANA ZAPATUAN AURKEZTU ZUTEN, GASTEIZKO JIMMY JAZZ ARETOAN

ro oztopatu zuen taldearen lana. "Etengabean joan zitzagun lana atzeratzen. Iaz maiatzean aurkeztu gura genuen diskoa, baina ez zen posible izan", azaldu du. Eta gaineratu: "Argi genuen diskoa ateraz gero, aurkeztu egingo genuela. Ez genuen gura diskoa esku artean izan eta aurkeztu ezin izatea".

Lan berria, aurkeztuta

Joan den zapatu arratsaldean Gasteizko Jimmy Jazz aretoan aurkeztu zuen taldeak disko berria. RIP taldeko bateria-jotzaile ohiak adierazi du gustura daudela kontzertuak emanda koarekin: "Pandemia osteko lehen kontzertua izan zen, eta oso gustura geratu ginen egindako lanarekin. Hamalau hilabete generamatzan agertoki bat zapaldu gabe". Hori gutxi balitz, ikus-entzuleak ere "inplikaturik" azaldu ziren: "Ikusi nuen giroa-gatik, esango nuke ikusleek disfrutatu egin zutela, eta hori ere ezinbestekoa da".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko Martxoko sariak!



Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

ERRIGORA

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSATILORU BAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.barramantenda.org
Bidezko Merkataritza Produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: klubo@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen UPD 15/1999 legearen arabera, jiraren ostean, argi dute pertsonak Goiena Foruakiko Jiratuaren bitartez zozketatzen direla. Zozketaren helburua da irabazlearen izena zuzenean jakinaraztea. Zozketaren irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko, irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko, irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko, irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko. Irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko, irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko, irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko, irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko.

Irabazi bi lagunendako otordua

TXOPEKUA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: Martxoaren 23a

943 25 05 05 klubo@goiena.eus

KLUBA Jotetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko udalari esker

"Tertziro, gaztaren sekretua" haur antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Martxoaren 27an | 17:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-posta: klubo@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Antzokia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen UPD 15/1999 legearen arabera, jiraren ostean, argi dute pertsonak Goiena Foruakiko Jiratuaren bitartez zozketatzen direla. Zozketaren helburua da irabazlearen izena zuzenean jakinaraztea. Zozketaren irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko, irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko, irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko, irabazlearen izena zuzenean jakinarazteko.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45€

Deitu: 943 25 05 05 • klubo@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HILDAKOAK

- Gonzalo Izurrategi Eriz.**
Arrasaten, martxoaren 4an. 93 urte.
- Aitzol Elkoroberezibar Gonzalez.**
Irunen, martxoaren 4an. 19 urte.
- Maria Francisca Garcia Hernandez.**
Aretxabaletan, martxoaren 5ean. 82 urte.
- Ines Guerra Segovia.**
Arrasaten, martxoaren 6an. 69 urte.
- Elias Mellado Campos.**
Bergaran, martxoaren 6an. 91 urte.
- Jesus Osa Azpiazu.**
Bergaran, martxoaren 6an. 78 urte.
- Maria Teresa Godoy Romero.**
Arrasaten, 7an. 90 urte.
- Esteban Guridi Ayastuy.**
Oñatin, martxoaren 8an. 92 urte.
- Dionisia Jimenez Jimenez.**
Arrasaten, martxoaren 9an. 96 urte.
- Ana Fuentes Flores.**
Aretxabaletan, martxoaren 9an. 66 urte.
- Marilu Kortazar Uribealago.**
Eskoriatzan, martxoaren 10ean. 72 urte.
- Jesusa Rodriguez Perez.**
Aretxabaletan, martxoaren 10ean. 90 urte.
- Felisa Bastardo Alcalde.**
Arrasaten, martxoaren 11n. 88 urte.
- Maritxu Arruti Mazmela.**
Bergaran, martxoaren 12an. 85 urte.
- Felisa Kerejeta Beitia.**
Oñatin, martxoaren 12an. 92 urte.
- Angel Izquierdo Garcia.**
Arrasaten, martxoaren 13an. 93 urte.
- Jose Maria Lopez Rubio.**
Arrasaten, martxoaren 13an. 83 urte.
- Juan Leibar Guridi.**
Arrasaten, martxoaren 13an. 94 urte.
- Rosario Viguri Viguri.**
Aretxabaletan, martxoaren 13an. 92 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 19	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Zapatua, 20	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Domeka, 21	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Astelehena, 22	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Martitzena, 23	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguaztena, 24	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguena, 25	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 19	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 20	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 21	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 22	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Martitzena, 23	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztena, 24	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 25	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 19	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 20	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 21	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 22	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 23	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 24	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 25	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2021eko abuztuaren 15era arte:
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38	/ 943 77 16 30

BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2021 osoan:
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76	16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoako aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

Isidro Zabaleta Narbaiza

(Ugarte Torre baserria)



2020ko martxoaren 16an hil zen, 77 urte zituela.

Urte gogor honetan gure alboan egon zareten guztioi eskerrik asko, familia osoaren izenean.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 21ean, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Antzuolan, 2021eko martxoaren 18an.

URTEURRENA

Amparo Vega De la Calle



1932-10-30 / 2020-03-21

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Nahiz eta gureartetik joan, beti izango zaittugu gure bihotzean!

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko martxoaren 18an.

ESKER ONA



Maritxu Arruti Mazmela

Jesus Mari Unamuno Araiztegui



Mila esker maite izan dituzuen guztiei.

Bergaran, 2021eko martxoaren 18an.

ESKER ONA

Esteban Guridi Ayastuy



2021eko martxoaren 8an hil zen, 92 urte zituela.

Hileta elizkizunera etorritakoei eta samin agurrak bidali dizkiguzuenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aldi berean, jakinarazten dizuegu zapatuan, martxoak 20, 19:30ean, Agustindarren elizan bere aldeko ondra meza izango dela. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2021eko martxoaren 18an.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ESKER ONA



Marilu Kortazar Uribealago



2021eko martxoaren 10ean hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskerrik asko, amama. Ez dira alferrik izango zurekin igarotako une goxoak bihotzean gordetako ditugu bizi garen bitartean.

Unax, Iradi, Inhar eta Malen. Eskoriatzan, 2021eko martxoaren 18an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otarola Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publicitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

TXUTXU-MUTXUAK



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Bulegorekin kantuan

Oñatiko gaztelekua birritan bete zuen Azkoitiko taldeak. Euskal pop estiloko ereserki bilakatu diren *Kantu bat* eta *Hegan* kantuek txalo zaparrada jaso zuten.

2. Etxekoen aurrean kantuan

Olatz Ugarte bergararra buru duen The Mood Rings taldeak kontzertua egin zuen Bergarako Seminarixoan. Hamar abesti propio eta hiru bertsiok jo zituzten.

3. Bazkari birtuala

Bergaran egindako Bizipoza jaiaren baitan, Senegalgo janariarekin egindako bazkari birtuala egin zuten hainbat familiak. Senegalgo jakiak prestatu zituzten.

4. Aipamena zerbitzu kalitatearengatik

APPLUS erakundearen ziurtagiria jaso du Arrasateko Ojanguren ehorztetxeak. Bailarako lehena, bere sektorean. Zerbitzuaren kalitateari emandako saria da.

5. Arimazubin jolasean

Arrasateko ludoteka ibiltariak bigarren geltokia dauka martxoko zapatuetan: San Andres. Neska-mutikoei askotariko jokoak eta jolasak egiten dituzte, begiraleekin.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Izar Unamuno
Unamuno
Martxoaren 22an, 3 urte. Zorionak, Izartxo! Muxu pilo bat familia danaren partetik. Ondo pasatu eguna!



ESKORIATZA
Aratz Kortazar
Garaiurrebaso
Martxoaren 22an, 33 urte. Zorionak, aitabxo. Egun ederra pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi bat.



OÑATI
Benita Arejola-leiba
Martxoaren 21ean, 100 urte. Familiako danon partetik zorionak, amama! Segi betiko umorearekin.



ARETXABAETA
Ane Zubiria Muñoa
Martxoaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Anetxo! Sei urte jada. Ederto ospatu zure eguna, maittia, eta besarkada goxo bat etxekuen partetik!



ARRASATE
Nestor Agirrebeña
Arriaran
Martxoaren 20an, urtebete. Urtebete, maitia! Zorionak eta mila muxu etxeko guztion partetik.



OÑATI
Eire eta Gari Agirrebaltzategi Urzelai
Martxoaren 20an, 2 urte. Zorionak, bikote! Jada bi urte egin dozue. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna. Patxo handi bana etxekoen partetik.



ESKORIATZA
Haizea eta Iraia Diaz de Gereñu
Martxoaren 20an, 9 urte Haizeak eta 21ean, Iraiak 15. Zorionak, bikote. Asko disfrutatu zeuen egunaz, merezitxa daukotzue-ta! Besarkada handi bat eta muxu pila bat familia osoaren partetik.



ANTZUOLA
Luka Santos Lete
Martxoaren 19an, 3 urte. Zorionak, pitxin, eta ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat. Zure familiariaren eta, batez ere, zure lehengusinen partetik.



BERGARA
Elene Goikoetxea
Makazaga
Martxoaren 19an, 9 urte. Zorionak, politx hori! Egun politxa euki deizula. Patxo handi bat familia osoaren partetik.



OÑATI
Ane Emparanza
Judez
Martxoaren 19an, 9 urte. Zorionak, maittia! Jada bederatzita urte. Ze handi zauden. Patxo handi bat etxeko danon, eta bereziki, Xabiren partetik.



BERGARA
Sare Larrañaga
Barrenetxea
Martxoaren 19an, 10 urte. Aupa, Sare! 10 borobil-borobilak, *pitxi!* 10 patxo potolo bada, danon partetik!



BERGARA
Manuel Moreno
Martin
Aitaren egunean, zorionak eta eskerrik asko, aita.



OÑATI
Alaitz Isasti Arkauz
Martxoaren 17an, 8 urte. Zorionak, polit hori. Ondo pasatu zure eguna. Asko maite zaitugu etxeko danok.




ARRASATE
Ekiñe Retes De
Vicente
Martxoaren 17an, 8 urte. Zorionak, bihotza! Aitaxoren, amatxoren eta familiako guztion partetik. Asko maite zaittugu!



ARRASATE
Asier Ollolqui Sarabia
Martxoaren 16an, 13 urte. Ene, zeinen handi egiten ari zaren! Muxu asko aitaxoren, Iratiren eta amatxoren partetik. Asko maite zaitugu! Zorionak, txapeladun!



OÑATI
Jakes Campo Manias
Martxoaren 15ean, urtebete. Jakes, zorionak, maittia! Urte bat igaro da zu jaino eta etxean konfinatu gintuztenetik. Hau da hau! Badugu zer ospatu! Besarkada erraldoi bat etxeko guztion partetik. Egin irribarre, laztana!



ARRASATE
Laia Agorria
Lumbreras
Martxoaren 15ean, 2 urte. Zorionak gure etxeko printzesari! Zoragarria zara! Asko maite zaitugu. Aitaxoren, Xabierren eta amatxoren partetik.



BERGARA
Helene Sanchez
Martxoaren 15ean, 7 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasatu zure eguna. Patxo pilo bat familia osoaren partetik.



ELGETA
Amets Agirre Osa
Martxoaren 15ean, 9 urte. Zorionak Usitako pastoriori! Segi horrela eta primeran pasatu zure urtebetetze eguna, familia eta lagunaren partetik.



ARRASATE
Iraitz Sarabia
Martxoaren 13an, 20 urte. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta musu potolo bat etxeko guztien partetik, *kukin*. Asko maite zaitugu!



ARRASATE
Laia Castillo Romero
Martxoaren 13an, 4 urte. Zorionak, poxpolintxo! Asko maite zaitugu! Patxo erraldoiak etxeko guztien, eta batez ere, Danel eta Oihanen partetik.



OÑATI
Eduarne Iciar Garcia
Martxoaren 11n, 7 urte. Zorionak, Eduarne! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat etxeko guztion partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus

goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Oharra

Martitzeneko 9:00ak arte jasotzeko zorion agurrak atara ditugu. Ordu horretatik aurrerakoak, hurrengo astean argitaratuko dira.



ARRASATE
Xabi Andres
Martxoaren 11n, 6 urte. Zorionak, maitia! Sei urte jaino zinel! Izugarri maite zaitugu! Besarkada eta muxu mila danon partetik!



OÑATI
Lihor Ferreiro Garcia
Martxoaren 11n, 6 urte. Zorionak, polit hori! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat, familia danaren partetik.



ANTZUOLA
Maddi Acosta
Martxoaren 9an, 7 urte. Zorionak, Maddi! Zazpi urte jada! Zelako azkar pasatzen dan denbora! Edarki ospatu ditugu zure urteak. Muxu potolo asko etxeko guztion eta, baita aita-amonen partetik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUENA 18

ARRASATE Sasoibide: irteera
Arrasaten paseoan egingo dute.
Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI 'Feminismoak bazterretik' irakurketa zikloa
Luciana Alfarok gidatutako saioa, gazteleraz.
Kultura etxeko atikoan, 18:00etan.

ARRASATE Margo Taldekoen erakusketa
Gaurtik apirilaren 24ra arte ikusgai.
Kulturaten, 19:00etan.

OÑATI 'La Ilorona' filma, zineklubean
Jayro Bustamanteren pelikula.
Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 19:00etan.

M8 ARRASATE 'Salda badago' liburuaren aurkezpena
Edukiera mugatuarekin. Euskaraz.
Kulturaten, 19:00etan.

M8 ARAMAIO 'Ama-alu lur sorgin baten ametsak' antzezlan
Edukiera mugatuarekin.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA Shane Curley eta Azkaite Pelox
St. Patrick's egunaren harira.
Seminarixoa, 19:00etan.

ARETXABALETA Huhezinema: sari banaketa ekitaldia
Edukiera mugatuarekin.
Arkupen, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 19

ARETXABALETA 'Posible al da kea kateatzea?' liburuaren aurkezpena, eta tailerra
Maddi Loiti egilea egongo da.
Udaletxe zaharrea, 10:30ean.

OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua
Sancti Spiritus unibertsitatea eta parroquia ezagutzeko aukera. Izena, aurrez, 943-78 34 53 telefonoan.
Turismo Bulegoan, 13:00etan eta 17:00etan.



HABIA

BERGARA Ekain Txou pailazoa
Alejo ikuskizuna egingo du.
Sarrerak, lau euro.
Seminarixoa, 18:00etan.

OÑATI 'Markak' dokumentala eta Habia hirukotea
Beratu musika jaialdiaren baitan.
Aitor Etxeberriak sortutako soinu-banda zuzenean entzuteko aukera.
Santa Ana antzokian, 18:00etan.

OÑATI 'Jantzi dantza' erakusketa
Errenteriako Iraultza dantza taldeko kide eta jantzizintzan aditu Ramon Garciak prestatutako erakusketa.
Hilaren 26ra arte.
Kultura etxean, 18:00etan.

BERGARA 'Mi pequeño gran samurai' dokumentala
Ekai Lersundi trans gaztearen istorioa kontatzen duen lana.
Ostean, Aitzole Aranetarekin solasaldia.
Kartzela zaharrea, 18:30ean.

ESKORIATZA Bandaren kontzertua
Musika eskolako ikasleen emanaldia. Gonbidapenarekin.
Kiroldegian, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Cholitas' dokumentala
Amerikako mendi-tontorrik garaiena igotzea erronka izan zuten Boliviako bost emakume indigenaren istorioa.
Sarrerak, hiru euro.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI 'Joseba Arregi Erostarberen senideak eta beraien zigorrak' solasaldia
Edukiera mugatua.
Gaztetxean, 20:00etan.

ZAPATUA 20

OÑATI Martuteneko espetxera irteera
Oñatiko Sarek antolatuta.
Postetxean, 09:00etan.

ARRASATE Baserritarren azoka
Ohiko produktuez gain, karapaixoak leku berezia izango du martxoko azokan. Arrasaten egindako hiru karapaixo mota erosteko aukera egongo da.
Seber Altuben, 09:00etan.

OÑATI Mahai jolasak eta sukalde txokoa
3 eta 8 urte arteko umeendako, Txalokaren ludoteka ibiltariaren eskutik.
Errementari plazan, 11:00etan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria San Andresen
3-12 urte artekoendako. Aurrez eman behar da izena.
Arimazubi plazan, 11:30ean.

OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua
Sancti Spiritus unibertsitatea eta parroquia ezagutzeko aukera. Izena, aurrez, 943-78 34 53 telefonoan.
Turismo Bulegoan, 13:00etan eta 17:00etan.

OÑATI Habia hirukotea eta Markak' dokumentala
Beratu musika jaialdiaren baitan.
Aitor Etxeberriak sortutako soinu-banda zuzenean entzuteko aukera.
Bihar, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 18:00etan.

BERGARA Monzonen omenezko jaialdia
Brigade Loco, Chill Mafia eta La Basu egongo dira, besteak beste.
Sarrerekin batutako dirua eskal kultura sustatzera bideratuko dute.
Udal pilotalekuan, 17:00etan.

OÑATI Ana Andreu eta Juan Valls
Beratu musika jaialdiaren baitan.
Andreuk *Els mals costumes* diskoa aurkeztuko du. Valls oñatiarrak eta bere bandak folk-country doinuekin betekote dute oholta.
Santa Ana antzokian, 18:00etan.

BERGARA 'Gu, primer' antzezlan musikatua
Xentimorik Gabe taldearen lana.
Ramon Agirre, Inazio Tolosa eta Nerea Gorriti oholatzen. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoa, 19:00etan.

BERGARA 'Tránsitos' liburuaren aurkezpena
Aingeru Mayor liburuaren egileak eta Ekaitz Goikoetxeak egingo dute aurkezpena. Hurren eta gazteen gurasoek kontatutako 25 istorio erreal jaso ditu liburuan Mayorrek.
Kartzela zaharrea, 19:00etan.

DOMEKA 21

OÑATI Aitor Etxebarria Nihilism part 1 bakarkako lana aurkeztuko du, Beratu musika jaialdiaren baitan.
Santa Ana antzokian, 13:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua
Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parroquia ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'
0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

OÑATI Verde Prato
Beratu musika jaialdiaren baitan, Ana Arsuagaren proiektua.
Euskaraz, gaztelaniaz eta errusiarrez kantatzen du.
Gaztetxean, 18:00etan.

ARAMAIO 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala
Iñaki Peñak egindako lana. Sarrerak aurrez erreserbatu behar dira.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARETXABALETA Paul San Martinen emanaldia
Pianista donostiarrak blues, boogie woogie eta jazz doinuekin girotuko du aretoa. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Bideak' dokumentala
Aritz Ganboa artzainaren bizipenak kontatzen dituen lana. Ostean, solasaldia, Ganboarekin eta Xabier Unanua zuzendariarekin.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 22

ARRASATE 'Viajando por el espacio con los astronautas' hitzaldia
Esteban Esteban astronomoak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoa, 10:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.



Elikadura osasuntsua

Azkenaldian zerbait argi gelditu bazait gure osasuna eta gure gorputza guk geuk zaindu behar ditugula izan da. Ezin ditugu interes ekonomikoei eta politikoei baino erantzuten ez dien osasun-sistemaren esku utzi. Urtebete osoa izan dugu ikusteko nola kudeatu duten eta kudeatzen ari diren COVID-19a. Gure osasunaren arduraren geure egite horretan, beste hainbat faktorekin batera, elikadurak berebiziko garrantzia hartzen du. Osasuntsu elikatzea ezinbestekoa da eta horretarako sasoikoa, bertakoa, ekologikoa... jatea gako bihurtzen da.

Ekuzazio honetan ekoizpena ere sartzen da eta ekoizleek kalitatez ekoizteko eta duintasunez bizitzeko ezin dute prezioan bestelako elikagai askorekin lehiatu. Elikagai osasuntsuak beste asko baino garestiagoak dira eta ondorioz ez daude guztion eskura. Batzuk kontsumitu ditzakegu –eta egin beharko genuke–, baina ez guztiok.

Elikadura osasuntsurako eskubideak unibertsala beharko luke eta hor badaukagu non lan egin eta zer aldatu.

BUKATZEKO



Oihana Arana idazle eta bertsolari eskoriatzarra, bere liburuko pasarte bat irakurtzen, Arrasateko saioan. XABI URZELAI



Ikasle bat mugikorrarekin galderak eginen.



Nerabeak aurrez aurreko saioa jarraitzen.

Oihana Aranak lagunduta iritsi da 'Hi gazte!'

Joan den egubakoitzean, Arrasatera iritsi zen gazteen artean euskara sustatzea helburu duen proiektua. Bergarako, Oñatiko eta Leintz bailarako ikastetxe banako DBH-3ko eta 4ko ikasleek hartu zuten parte, eta idazle eskoriatzarra izan zuten lagun

Maialen Santos ARRASATE

Gazteen artean euskarazko ikus-entzunezko edukien sorkuntza, hedapena eta kontsumoa sustatzea helburu duen dinamika da *Hi gazte!*, Foru Aldundiko Euskara Departamentuak sustatu eta Goiena kudeatzen duena.

Martxoan hasi eta ekainera arte iraungo du proiektuak, eta

tarte horretan, Gipuzkoa osoko DBH-3ko eta 4ko ikasleei erronka ezberdinak jarriko dizkiete, aurrez aurre egingo dituzten saioetan. Gazteak ez dira bakarrik egongo: euskal sorkuntzarekin harreman zuzena duten erreferente gazteak izango dituzte alboan; tartean, Kai Nakai, Ningra, Odik, Iholdi Beristain,

Ilargi Arrizabalaga eta Oihana Arana.

Idazle eskoriatzarra, erreferente

Orain arte, Eibarren, Azpeitian eta Urnietan batu dituzte gazteak, eta joan den egubakoitzean Arrasatera iritsi zen *Hi gazte!* Bergarako Ipintzako, Oñatiko Bigarren Hezkuntzako Institutuko

eta Leintz bailarako Arizmendi Ikastolako ikasleak hartu zituen Amaia antzokiak, eta Oihana Arana idazlea eta Odik musikaria izan zituzten lagun.

Aranak bere liburuko pasarte batzuk irakurri zituen saio hasieran, eta jarraian, mugikorrek erabilia, sortzaileei galderak egin zizkieten ikasleek. Idazle eskoriatzarrak halako proiektuen garrantzia azpimarratu du: "Ez da erraza izaten gazteak parte hartzerantz animatzea, baina ohol-tzara igotzera animatu ziren batzuk, eta galdera interesgarriak ere egin zizkidaten".

Gipuzkoako gazte guztiendako zabalik dago *Hi gazte!*, eta iPhone 12a egongo da jokoan. Horretarako, @higazte etiketa erabilia gazteek lelo bat asmatu beharko dute, eta ikus-entzunezko bat sortu horrekin.

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU

OIER ARAOLAZA

IDOIA TORREGARAIAK DANTZARIARI EGINDAKO
ELKARRIZKETA 'ELKARRIZKETTAP' SAIOAN
MARTXOAREN 24AN, EGUAZTENEAN, 21:00 ETA 23:00

"Hezkuntzaren maila guztietan beharko genuke normaltasun batean euskal dantza, gure gorputz hizkuntza den bezala"



goiena
Zu hemen zaude.